Oro har, eta beste jende hispaniar batzuei gertatu zitzaizen bezala, euskaldunek ez zuten hain urruneko herrialderako emigrazioan segitu. Nahiago izan zuten Amerikako kontinentea, eta erlijioso batzuek Filipinetan jarraitu bazuten ere bere eginkizunetan, filipinarrei gaur egun geratzen zaizkien Euskal Herriari buruzko erreferentzia eta oroitzapen bakarrak izen historiko batzuk eta XX. mendearen lehen hamarkadan eramandako Jai Alaiako zesta-punta dira.



Filipinetako mapa, Murillo Velarde jesuitak egina, 1774. Madrilgo Museo Naval.

Itsasbide ugari gurutzatzen duten lekua izanik, 7.000 irla baino gehiagoz osatutako Filipinetako uhartediak oso osaketa konplexua du, etniei dagokienez. Lurralde hartan antzinakoenak ziren "beltxei" edo itei, indonesiar jatorrikoak gehituko zitzaizkien, eta papuatarrak, melanesiarrek, polinesiarrek, hinduak, indotxinarrak, txinatarrak, japoniarrak eta, azkenean, europarrak. Aniztasun honek guztira 67 talde etniko eta 80 bat hizkuntz talde desberdin izan ditu emaitza. Espainiarrak iritsi zirenean, erlijio sinesmen nagusiak animistak ziren, nahiz ordurako zona batzuetan erlijio musulmanak ere bazuten presentziarik.

### Mapa de las islas Filipinas, obra del jesuita Murillo Velarde, 1774. Museo Naval, Madrid.

Situado en una encrucijada de rutas marítimas, el archipiélago filipino, compuesto por más de 7.000 islas, presenta un complejo fondo étnico. A los denominados negritos o ita, los grupos de más antigua raigambre, vinieron a sumarse los de origen indonesio, papúes, melanesios, polinesios, hindúes indochinos, chinos, japoneses y finalmente europeos. Esta variedad se concreta en 67 grupos étnicos y unos 80 grupos lingüísticos diferentes. A la llegada de los españoles las creencias religiosas mayoritarias eran de tipo animista aunque en determinadas zonas ya estaba presente la religión musulmana.

traficantes de seres humanos se incluyen los nombres de Juan Bautista Sasuategui, al mando de la barca chilena *Eliza Mason*, que fondeó en las islas de Hiva Oa, Fuatuhiva y Pascua; José Antonio Basagoitia, en el *Trujillo*, arribó en Tongareva, Manihiki, Rakahanga y Niue, y con el *Misti*, en Pascua, Rapa y Tahití; Antonio de Aguirre, con la goleta peruana *Cora*, en las islas de Pascua, Mangareva y Rapa; Garay, en la goleta peruana *Hermosa Dolores*, a Pascua, y a bordo del *Polinesia*, en Nukulaelae, Funafuti y Rotuma; Urrubarranca, con el *Urmeneta y Ramos* en Pascua; y Larrazábal, con el *Guayas* en Nukuhiva y Tahití.

Las protestas de los misioneros de Tahití ante este masivo secuestro de isleños encontraron apoyo en los gobiernos francés y norteamericano. Se logró repatriar a unos dos mil supervivientes, varias decenas de ellos murieron en el regreso, y los que lograron llegar a sus islas contagiaron enfermedades a sus pobladores. En definitiva, la mortandad hizo decrecer las poblaciones insulares y rompió la vida de muchas comunidades polinesias.

## Conclusión

En este breve resumen se ratifica que desde las primeras exploraciones españolas del Pacífico la presencia de gente vasca es notoria, algunas veces puntual, pero otras numerosa, como es el caso de la expedición de Legazpi y Urdaneta. Como sucedió con todos aquellos primeros pasajeros y tripulaciones que se instalaron en las islas descubiertas, los vascos que viajaron eran militares y misioneros.

A partir del siglo XVIII en varias islas de la Polinesia y Melanesia se confirma la presencia de algún misionero y religioso vasco, sin contar la arribada a sus costas de los esclavistas vascos que partieron del Perú y Chile en el XIX. Los pocos misioneros que llegaron a estas islas dependían del arzobispado de Tahití y generalmente pertenecían a los franciscanos o a los monjes blancos de los Sagrados Corazones.

Otra ruta marítima comercial utilizada por marinos vascos en el siglo XIX ha sido la de California-México-Callao. En Lima, de las doce principales navieras, cuatro eran vascas, las de Juan Francisco Izcue,

los hermanos Aramburu, Urien y Compañía y Dalidou Larrabure y Cía. Navieros como José Antonio Aguirre, capitán de barco de la ruta México-Manila-Cantón, su cuñado Miguel de Pedrorena, Pedro Gándara y José Domingo Indart, fueron empresarios y comerciantes de gran prestigio en su época.

En Filipinas, al ser colonia de España por más de trescientos años, es donde hubo más presencia vasca que en otras regiones del Pacífico. En 1793 la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País contaba veintitrés socios en Manila, entre ellos personajes importantes como administradores de rentas y de aduanas, regentes de la Real Hacienda, directores de la Real Compañía de Filipinas y del tabaco en Manila, muestra de un noble testimonio de lealtad étnica en la emigración vasca.

En el siglo XIX, varias familias vascas como los Ayala, Ynchausti, Luzuriaga y Elizalde, fundan las compañías filipinas de industrias azucareras con un alto valor comercial en el ámbito internacional.

El libro del diplomático filipino Marciano R. de Borja, *Basques in the Philippines*, describe la presencia vasca con informaciones precisas, algunas de ellas bien documentadas, durante su permanencia en la isla y durante los cambios que se produjeron en la sociedad filipina, y el trabajo de Ricardo Larrabeiti, *Pueblos de Filipinas con nombres vascos* inventariando los nombres toponímicos vascos que existen en las principales islas, son unas interesantes fuentes recientes para el lector estudioso de la diáspora vasca.

En general, y como sucedió a otros pobladores hispanos, los vascos no tuvieron continuidad en la emigración a tan alejado país, prefirieron el continente americano y a pesar de que algunos religiosos y religiosas continuaron su labor en Filipinas, las referencias y recuerdos que quedan actualmente del País Vasco para los filipinos son algunos nombres históricos y el juego de cesta punta en el Jai Alai, implantado en el primer decenio del siglo XX.



Aventura espiritua eta Pazifikoko eta Ekialde Urrunak eragindako jakin-mina mantendu egin dira mendeetan zehar. Adieraziaren adibide bikaina dugu Francisco Javier Alcorta (Donostia, 1936), Papua Ginea Berriko oso gutxi esploratutako eremuetan barrena bakarrik egin dituen espedizioekin eta australiar armadaren soldaduekin Vietnamgo gerran izandako partaidetza aipagarriarekin.

El espíritu de aventura y la curiosidad por el Pacífico y el Lejano Oriente se ha mantenido a lo largo de los siglos. Buen exponente de ello es Francisco Javier Alcorta (San Sebastián, 1936) con sus expediciones en solitario por zonas escasamente exploradas de Papúa Nueva Guinea en 1973-74 y su participación destacada en la guerra de Vietnam con las tropas del ejército australiano.



# ANDRES URDANETA NABIGATZAILEA: ARO MODERNOKO ZIENTZIALARI POLIFAZETIKOA

Susana Truchuelo García

*Kantabriako Unibertsitatea*



Urdanetaren omenezko monumentua Ordizian. Isidoro Uribealgoren obra hau 1904an inauguratu zuten.

Eskulturaren misiolari ikonografia agerikoa bada ere, Urdanetak ez zuen ebanjelizazio lanik egin Filipinetan, zeren eta Cebura iritsi zenetik itzulerako bidaia prestatzen murgildu zen, buru-belarri. Edonola ere, itsasbide hori izateak ekarriko zuen, atzanean, uhartedia kristautzea. J. Egañaren argazkia, 2009.

**Monumento a Urdaneta en Ordizia. Obra de Isidoro Uribealga, fue inaugurada en 1904.**

Pese a la iconografía misionera de esta escultura, Urdaneta no llevó a cabo tareas de evangelización en Filipinas puesto que desde su llegada a Cebú su esfuerzo se centró en la preparación del tornaviaje. En cualquier caso la existencia de esta ruta fue la que hizo posible la cristianización del archipiélago. Foto: J. Egaña, 2009.

Agustindarra, Filipinen ebanjelizatzailea, Migel Lopez de Legazpiren laguna Sartaldeko uharteetarako espedizioan, Asia eta Amerika artean Pazifikoa zeharkatuz egin lehen bidaiaren protagonista bera... duela oso gutxi arte horietan ziren Historiako liburu askotan Andres Urdaneta deskribatzeko erabiltzen zituzten elementuak. Baina hainbat urtetatik hona, euskal, espainiar, novohispaniar eta filipinar historiografia errebindikatzan ari da Ordiziako nabigatzaile hau, XVI. mendeko marinel eta aurkitzaile handietakotzat, are lehen globalizatzailetzat ere. Izan ere, ikerkuntza berriek agerian laga dute Andres Urdaneta izan zela itzulerako bidaiaren arrutaren aurkitzaile eta protagonista, eta balentria horrek pribilegiozko tokian jarri du Urdaneta Aro Modernoko nabigatzaile eta aurkitzaileen artean, herrikide zituen Joan Sebastian Elkano eta Migel Lopez de Legazpirekin batera. Eta espainiarrek Pazifiko edo Ozeano Baretik zehar Ekialde Urrunera egin bidaiak protagonista izan zituzten beste askori ere lagundu zien, hala nola Fernando Magallanes, Garcia Jofre de Loaysa, Álvaro de Saavedra, Hernando de Grijalva edota Ruy López de Villalobosi. Andres Urdaneta, baina, gaur egun izugarritzko interesa pizten duen pertsonaia ere bada, bai bizi izatea egokitu zitzaion garaiaren intentsitate, konplexutasun eta zailtasunagatik bai Asiatik Amerikarantz Ozeano Baretik zehar itzultzeko bidea aurkitu izanak izan zituen oihartzunengatik ere.

2008ko urtean zehar, Andres Urdanetaren inguruko hainbat jarduera akademikok aukera eman dute pertsonaia honetan sakontzeko, bizi izan zen testuinguru historikoaren, jaio zen famili eta herri giroaren eta biografiaren xehetasunen analisiak eginez; eta, batez ere, beraren nortasun eta jardueren hainbat alderdi aztertu dira, ez bakarrik nabigatzaile, astronomo, zientzialari eta erlijioso gisa, baizik eta baita soldadu, abenturazale, diplomatiko, idazle, politikari, errege ofizial, epaile, zerga-biltzaile, eta meatzari gisa ere, besteak beste. Hainbat historialarik Urdanetaren bizitzako alderdi asko atera dituzte argitara, eta horiek modua eman dute marinel honen jarduerak, jakintza, are nortasuna bera ere, neurri egokian baloratzeko, eta horiez ostean ere 1508an Gipuzkoako Ordiziako hiribilduan jaio zenetik 1568an Mexikoko San Agustinen komentuan hil zen arteko bizitza-bilakaeraren berri ere izan dugu horiei guztiei esker.

Filipinar Uharten eta Mexikoren historia, deskubrimenduen historia oro har eta zientziarena bereziki ikertzen dituztenentzat, eta horietan interesa dutenentzat, esan behar dokumentu eta txosten pila bat bildu dela Andres Urdanetari loturik. Dokumentu hauetako asko hainbat dokumentu-bildumatan jasota zegoen dagoeneko, baina beste batzuk gure garaiotan atera dira argitara, Urdanetaren jaiotzaren bosgarren mendeurrenaren ospakizunak direla eta egindako ikerkuntza ahaleginari esker. Gainera, Andres Urdanetaren biografiako oker eta akats asko bere tokian jarri dira behin betiko, esaterako 1498an jaio zela, Karlos I.aren erregealdian zehar Italiako gerretan parte hartu zuela edo gaztetan latin eta filosofia ikasketak egin zituela ziotenak, ez baitago horiei buruzko inolako froga dokumentalik.

Gaur egun Andres Urdanetaren ibilbide biografikoa nahiko ongi marraztuta dago lerro nagusietan, salbuespena badira ere haurtzarora batetik eta Moluketarako espedizioan ontziratu aurretiko gaztarora bestetik, epe horietan zehar Urdaneta bere jaioterri Ordizia eta Gipuzkoa inguruan egongo baitzen. Eta bestetik, gauza askorik ere ez dakigu agustindarren ordenan sartu aurretik Mexikon bizi izaten eman

# EN TORNO AL NAVEGANTE ANDRÉS DE URDANETA: RECORRIDO VITAL DE UN CIENTÍFICO DEL SIGLO XVI

Susana Truchuelo García

Universidad de Cantabria

Agustino, evangelizador de las Filipinas, acompañante de Miguel López de Legazpi en su expedición a las islas del Poniente, protagonista del primer viaje transpacífico entre Asia y América... hasta hace bien poco éstos eran los elementos con los que se describía a Andrés de Urdaneta en muchos libros de Historia. Pero desde hace unos años, este navegante de Ordizia está siendo reivindicado por la historiografía vasca, española, novohispana y filipina como uno de los grandes marinos y descubridores del siglo XVI, incluso como el primer globalizador. En efecto, las nuevas investigaciones han puesto de manifiesto que Andrés de Urdaneta fue el descubridor y el protagonista de la derrota del *tornaviaje*, una hazaña que, por sí misma, ha colocado a Urdaneta en un lugar privilegiado entre los navegantes y descubridores de la Edad Moderna, junto a sus paisanos Juan Sebastián Elcano y Miguel López de Legazpi, y acompañando a otros protagonistas de los viajes españoles al Extremo Oriente por el Pacífico, como Fernando Magallanes, García Jofre de Loaysa, Álvaro de Saavedra, Hernando de Grijalva o Ruy López de Villalobos. Pero Andrés de Urdaneta es también un personaje que despierta hoy en día un enorme interés tanto por la intensidad, la complejidad y la dificultad de la época que le tocó vivir como por las repercusiones que tuvo el hallazgo de la ruta de retorno desde Asia hacia América por el océano Pacífico.

Durante el año 2008 diversas actividades académicas centradas en la figura de Andrés de Urdaneta han permitido profundizar en este personaje analizando el contexto histórico en el que vivió, el marco familiar y local en el que nació así como los pormenores de su biografía estudiando, en particular, diversas facetas de su personalidad y actividades, no sólo como navegante, astrónomo, científico y religioso sino también como soldado, aventurero, diplomático, escri-

tor, político, oficial real, juez ordinario, recaudador de impuestos, minero, etc. Distintos historiadores han sacado a la luz aspectos muy variados de la vida de Urdaneta que han permitido ponderar, en su justa medida, las actuaciones, conocimientos e incluso personalidad de este marino, valorando para ello, al mismo tiempo, su evolución vital desde su nacimiento en la villa guipuzcoana de Ordizia en 1508 hasta su fallecimiento en el convento de San Agustín de México en 1568.

Para los estudiosos e interesados en la historia de Filipinas y de México, en la historia de los descubrimientos en general y en la de la ciencia en particular se han recopilado muchos documentos e informes relacionados con Andrés de Urdaneta. Muchos de estos documentos estaban ya integrados en diferentes colecciones documentales, pero otros han visto la luz en la actualidad, con ocasión del esfuerzo investigador realizado con motivo del 500 centenario de su nacimiento. Además, se han echado por tierra definitivamente muchas inexactitudes, incorrecciones y erratas de la biografía de Andrés de Urdaneta, como su nacimiento en 1498, su participación en las guerras de Italia durante el reinado de Carlos I o la realización en su juventud de estudios de latín y filosofía, de los que no existe constancia documental.

En la actualidad el recorrido biográfico de Andrés de Urdaneta se encuentra bastante bien delineado en sus aspectos generales, con la salvedad por un lado de su infancia y de su juventud antes de embarcar en la expedición a las Molucas, períodos en los que Urdaneta debió permanecer en el entorno de su Ordizia y Gipuzkoa natales. Y por otro lado, se tiene poco conocimiento de algunos años de su vida en México, antes de pasar a integrarse en la orden de los agustinos. Todas estas aportaciones y valoraciones están recogidas en el libro *Andrés de Urdaneta: un hombre moder-*



Andrés Urdaneta. XX. mendearen hasierako alegiazko irudikapen anonimoa. Ordiziako Udaletxea.

Andrés de Urdaneta. Representación imaginaria anónima de comienzos del siglo XX. Ayuntamiento de Ordizia.



zituen urte batzuei buruz. Ekarpen eta balorazio hauek guztiak Ordiziako Udalak 2009an argitaratu duen *Andrés de Urdaneta: un hombre moderno* (S. Truchuelo, ed.) liburuan daude jasota; honetan XVI. mendeko Gaztela, Nueva España eta Filipinen historiako hainbat adituk hartu dute parte, eta horien guztien lan eta konklusioen erabateko zordun sentitzen naiz, Urdanetaren bizitzaren azalpen hau egiteko mamizko informazioaren iturri izan ditut eta. Beraz, Ordiziako nabigatzaile honen irudian sakondu nahi duenak azterketa kolektibo horretan bildutako informaziora jo beharko du.

Gauza jakina da Andres Urdaneta leinu aberats batean jaio zen, Ordizia inguruan ospe oneko batean. Leinu honek XVI. mendearen hasieran bizi izaten ari zen hedapen koiunturaren abantailak bereganatu zituen, bere ekonomiaren oinarria burdin produkzioari zegoen eta lotuta. Andresen aita, Joan Otxoa Urdaneta, kontzejuko karguetan parte hartzen zuen auzo talde txikikoa zen, eta hiribilduko agintari nagusi izatera heldu zen, auzoek alkate hautatu baitzuten 1511n. Andresen jarduerak zein ziren ez dakigun urte ilun batzuen ostean, izan zuen oinarrizko hezkuntza ere ez dakigu zein zen, 17 urteko Urdaneta gaztea aurkitzen dugu, ozeanoz haraindiko lehen abentura handia abiatzear zuela, 1525ean A Coruñatik itsasoratuko zen Garcia Jofre de Loaysa buru zuen espedizioan sartu baitzen espezieen uharte urrunetara heltzeko. Asiako lehen destino honetan, Moluka uharteetan alegia, joango zen moldatzen Urdanetaren nortasuna, bederatzi urte inguru eman zituen eta bertan, eta itsas munduarekiko, kosmografiarekiko eta ekialdeko Asiako ur nahasietan barrena zebiltzan nabigatzaile gaztelau, portugaldar eta asiarrangandik ikasitako nabigazio praktikarekiko interesa garatuko zuen.

Zehazki, lehen bidaia honetan Andres Urdanetak euskal nabigatzailerik ospetsuenetako bat izan zuen maisu, munduari bira emandako Joan Sebastian Elkano bera alegia, eta honexengandik ikasiko zituen, noski, nabigazio arteetako asko, itsasontzietako elkarbizitza eta bizimodu latzaren, bidaia luze horietako hornidura eta garbitasun arazoan eta ozeanoan barrenako zeharkaldi ia-ia amaigabe horietan, normalean inguru ezezagunetarako egiten ziren horietan, pairatzen ziren eguraldi baldintza muturrekoen berri izateaz batera. Bidaia horri eta Moluketako egonaldia dagokienez, Urdanetak egunkari zehatz-zehatza egin zuen, eta honetan xehetasun dotore eta zorrotzez jaso zituen, bere jardueraz eta bere kideenez gain, espezia-lekuan egindako egonaldiko sentsazio, bizipen eta era guztietako xehetasun eta deskripzioak.

Egunkari horren azterketaren ildotik historialari batzuek azpimarratu egin dute Urdanetak erakusten duen behaketarako sena, bereaz zeharo bestelakoak diren kulturekiko interes antropologikoarekin eta begirunearekin batera. Egunkari horretan, bizi izaten ari zen gertakarien kontalari bihurtzen da Andres, eta argi eta zehatz azaltzen ditu nautikari lotutako kontuak (Magallaes itsasartetik igarotzea esaterako) zein uharteetan bizi izan zituen gorabehera politikoak eta parte hartu zuen aliantza jokoak, Asiako uhartedi horren geografia eta ingurune mailako deskripzioez osaturik, inolaz ere.

Osterantzean, aginte eta lidergorako zituen dohainak agerian geratu ziren agintari gaztelauek Moluketan enbaxada diplomatiko batzuetarako mandatari eta eremu horren kontrola eskuratu nahi zuten etsaien, hala nola portugaldarren eta herri indigena batzuen, kontrako gerra-ekintza batzuetako buru izendatu zutenean. Gogoan izan behar dugu Andres eta bere lagunak 1526ko urrian heldu zirela Moluketara, nabigazio zaileko hamabost hilabeteren ostean, eta 1512az geroztik portugaldarrak zeudela uharte horietan, bertako biztanleekin espezieen merkataritzan aritzeko faktoriak jarriak Urdaneta iristerako. Testuinguru honetan, Urdaneta aukeratu zuten, bere gotorlekuak Terrenate hurbilean zeuzkaten portugaldarrei aurre egitearren Giloloko erregearen eta Tidorekoaren aliantza bilatzen zuten ekintza diplomatikoetan buru izan zedin. Gaztea bazen ere, batzuetan portugaldarrekiko negoziazio zuzenen ardura eman zioten halaber, lehian ari ziren bi botere hispaniarren ordezkarien artean sortutako arazoak konpon zitzan alegia. Tidoreko zein Giloloko biztanleak ordurako agertuak ziren portugaldarrek inguru hartan zuten eraginaren aurka, eta nahiago zuten merkataritzarako harremanak gazte-



Andres Urdaneta zen Garcia Jofre de Loaysaren espedizioan izan ziren euskaldun ugarietako bat.

Espedizio horren helburua Moluketan espainiar kokaleku bat finkatzea zen. Urdanetak zortzi urte emango zituen uharte hauetan, kontrako giro nahasian, toki berean elkartzen baitziren espainiar, portugaldar eta talde indigenen beren interesak. Oso gaztea bazen ere, Urdaneta nabarmendu egin zen bai gerra ekintzetan bai negoziazio eta diplomazia eginkizunetan.

*Irudia:* Théodor de Bry-ren (9. liburua, 3. atala, 1612) *America* laneko estampa baten xehetasuna.

Andrés de Urdaneta era uno de los numerosos vascos que formaron parte de la expedición de García Jofre de Loaysa organizada con el propósito de establecer un asentamiento español en las Molucas. En estas islas Urdaneta permanecerá ocho años en un ambiente complejo y hostil en el que se ponen en juego los intereses españoles, portugueses y de los grupos indígenas. Pese a su juventud, Urdaneta destaca entonces tanto en acciones bélicas como en labores de negociación y diplomacia.

*Imajen:* Detalle de una estampa de *America* de Théodor de Bry (libro 9º, parte 3ª, 1612).

no (S. Truchuelo, ed.), publicado en 2009 por el Ayuntamiento de Ordizia, en el que participan diversos especialistas en la historia castellana, novohispana y filipina del siglo XVI, y de cuyos trabajos y conclusiones soy totalmente deudora, pues de ellos he obtenido la información sustancial para la realización de esta semblanza de Urdaneta. Por lo tanto, quienes quieran profundizar en la figura de este navegante de Ordizia deberán acudir a la información recogida en ese estudio colectivo.

Es sabido que Andrés de Urdaneta nació en el seno de un linaje acomodado y con prestigio en el entorno de Ordizia, que se benefició de la coyuntura expansiva que se vivía a principios del siglo XVI y que sus bases económicas estaban vinculadas a la producción ferrona. El padre de Andrés, Juan Ochoa de Urdaneta, pertenecía al grupo reducido de vecinos que participaba en los cargos del concejo y ejerció la máxima autoridad en la villa, al ser elegido por sus vecinos como alcalde ordinario en el año de 1511. Tras algunos años oscuros en que se desconoce las actividades de Andrés, incluida la educación elemental que recibió, encontramos a un joven Urdaneta, con 17 años, que inicia ya su primera gran aventura transoceánica, al embarcarse en la expedición comandada por García Jofre de Loaysa, que partió de A Coruña en 1525 con destino a las lejanas islas de las especias. En este primer destino asiático, las islas del Maluco, en las que permaneció cerca de nueve años, se forja ya la personalidad de Urdaneta y se desarrolla su interés por el mundo náutico y cosmográfico así como por la práctica de la navegación, aprendida de los navegantes castellanos, portugueses y asiáticos que surcaban las turbulentas aguas que bañan Asia oriental.

En concreto, en ese primer viaje Andrés de Urdaneta tuvo como maestro a otro de los navegantes vascos más ilustres, el circunnavegador Juan Sebastián Elcano, de quien debió aprender no sólo muchas de las artes de la navegación, sino también sobre la convivencia y la difícil vida en los barcos, sobre los problemas de abastecimiento e higiene en esos largos viajes, sobre las duras y extremas condiciones climatológicas que se padecían en esas casi interminables travesías transatlánticas, generalmente hacia lo desconocido. De ese viaje y de la estancia en el Maluco, Urdaneta reali-

zó un pormenorizado diario en el que plasmó, con exquisito y riguroso detalle, no sólo sus actividades y las de sus compañeros sino también las sensaciones, vivencias y todo tipo de pormenores y descripciones relativas al período de permanencia en la especiería.

Precisamente, el estudio de ese diario ha llevado a algunos historiadores a destacar el sentido de la observación del que hace gala Urdaneta, además del interés antropológico y del respeto que muestra hacia culturas muy dispares a la suya. En ese diario, Andrés se convierte en relator de los hechos que estaba viviendo, exponiendo con rigor y minuciosidad tanto cuestiones náuticas (como el paso por el Estrecho de Magallanes) como los vaivenes políticos que vivió en las islas, los juegos de alianzas en los que participó, combinados con descripciones geoambientales de ese archipiélago asiático.

Por otra parte, sus dotes de mando y liderazgo quedaron de manifiesto en su designación en las Molucas por las autoridades castellanas como jefe o emisario en algunas embajadas diplomáticas y en escaramuzas bélicas frente a los enemigos que también se disputaban el control de esa área, como eran los portugueses y algunos pueblos indígenas. Hay que recordar que Andrés y sus compañeros llegaron a las Mo-

García de Loaysaren espediziooko gertakariei eta Moluketan igarotako borroka eta bizimodu latzeko urteei buruz, Urdanetak bi kontaketa idatzi zituen, oso balio historiko, geografiko eta antropológico handikoak berak. Madrilgo Errege Jauregian eta Sevillako Indietako Agiritegi Orokorrean daude gordeta, hurrenez hurren. Azken hau da, 1537an Valladoliden datatua, hemen erreproduzitzen duguna (azkeneko orriak, errubrikadunak).

Sobre los sucesos de la expedición de García de Loaysa y los duros años de lucha y supervivencia en las Molucas, Urdaneta escribió dos relatos de gran valor histórico, geográfico y antropológico que se conservan, respectivamente, en el Palacio Real de Madrid y en el Archivo General de Indias de Sevilla. Este último, fechado en Valladolid, en 1537, es el que aquí se reproduce (páginas finales con rúbrica).





lauekin ezarri. Aukerarik ez zen falta izan, Urdanetak berak kontatu bezala, artean gaztea zen Andresek indar portugaldarren kontrako gerra-ekintzetan parte har zezan, gaztelauen taldea banatu zelarik egin-da zeuzkaten koadriletakoren baten buru zela; izan ere, uharteetan zeuden gaztelauek hainbat talde osatzea erabaki zuten, etsaien aurrean bizirik iraun ahal izatearren.

Ekintza gizon, militar eta diplomatiko gisako jarduera hauez gain, Urdanetak bizkortasun handia eta behaketarako sen berezia erakusten segitu zuen, zeren eta Malaysiera eta hango bertako ohiturak ikasteko interesa eta gaitasuna izan baitzuten; eta jarrera honi esker, indigena askoren konfiantzazko pertsona izan zen, hots, indigenen konfiantza bereganatu zuen edo, behintzat, harreman onak mantendu ahal izan zituen Tidore eta Giloloko indioekin, komunitate horien barnean botere aldaketak etengabeak ziren arren. Konfiantza horrek, era berean, uharteetan europarren, hala portugaldarren nola gaztelauen, presentziari amaiera emateko ahalegin lokal batzuen berri izatea ahalbidetu zion. Urdanetaren

abildade hauek, bortizkeriaren erabilerarekin batera, zeharo etsai zitzaion giro batean bizirik irautea ahalbidetu zioten; izan ere, ez dugu ahantzi behar Moluketako bizimodua oso zaila izango zela, benetan, Andresek bere egunkarian ematen duen informazioaren arabera. Kontu egizue, bertan ematen duen datuaren arabera, 1526an iritsitako ehun eta bost espainiarretatik hamazazpi besterik ez zeuden bizirik 1534an.

Gaztelauek jakin zutelarik Karlos I.ak Molukak Portugalgo erregeari bahituran emanak zizkiola 350.000 dukaten truke, zentzurik ez zuen jada uharte horietan segitzeak. Horrenbestez, bizirik zeudenak Europara itzuli ziren, Indiatik zehar, ahal izan zutenean, Urdaneta bera tartean zela. Dakigun bezala, 1536an Lisboara iritsi zenean portugaldarrek kendu egin zioten berekin zeraman dokumentazioa, gutunak, planoak, mapak eta, baliotsuagoa inondik ere, egunkaria, eta hau geroxeago berregin beharko zuen, buruz, Indietako Kontseiluarentzat, Valladoliden. Kontseiluari aurkeztutako dokumentazioa zein jatorrizko egunkaria (Felipe II.ak berreskuratu zuen geroago, 1580an Portugalgo tronura iritsi zenean) funtsezko iturriak dira ez bakarrik espezieen uharteak ezagutzeko, baizik eta Txina ondoko eremu horretako merkataritzaren

eta asiar uharte horietako errealitate antropologikoaren berri izateko ere.

Denbora askorik ez zuen eman Urdanetak penintsulan, ezen Ordiziara egin bidaiia labur baten ostean, 1538an Pedro de Alvaradorekin batera ontziratu zen Sevillan, Hegoaldeko Itsasorako beste espedizio baterako. Amerikako egonaldi luze horretan zehar, Urdanetak jarduera militarretan parte hartu eta kargu publiko garrantzitsuak izan zituen Nueva Españako erregeorderrian. Honek guztiak bi gauza uzten ditu agerian, batetik errege gaztelauaren boterearekin zuen lotura, eta bestetik Andres Urdaneta erabat txertatuta zegoela ikuspegi politiko, ekonomiko, sozial eta kulturaletik kolonietako gobernuaren mendean zuen espainiarren oligarkiaren barnean. Zehazki, Urdaneta Antonio de Mendoza erregeordearekin batera joan zen, 1542an, gerrako kapitain gisa, Nueva Galiciako lurraldean gertatzen ari ziren indigenen altxamenduak baketzeko eta zapaltzeko eginkizunak zeuzkan gudarostearen buru. 1542ko urte horretako azaroan, Urdanetari eman zioten Ávaloseko herrietako (Michoacán probintziaren ipar-mendebaldean, Nueva Españaren eta Nueva Galiciaren arteko mugan) indioen tributua biltzeko lana, eta horretan aritu zen 1547 arte.



Moluka uharteak. Willem Blaeu-ren plano, Amsterdam, 1630.

Magallanes-Elcano espedizioak egin aurkikuntzen ondorioz, Karlos V.ak Moluketan finkatu nahi izan zuen, espezia trafikoa monopolizatzeko asmoz. Uharte hauetako klima oso egokia zen Europan estimu handian zituzten espezia batzuk hazteko, iltzea esaterako.

Las islas Molucas. Plano de Willem Blaeu, Amsterdam, 1630.

Como consecuencia de los descubrimientos de la expedición Magallanes-Elcano, Carlos V quiso asentarse en las Molucas tratando de monopolizar el tráfico de especias. El clima de estas islas era especialmente adecuado para el crecimiento de algunas especias muy valoradas en Europa como el clavo.

lucas en octubre de 1526, tras quince meses de difícil navegación y que en esas islas se encontraban desde 1512 los portugueses, que ya habían establecido factorías para el comercio de las especias con los pobladores de esas islas. En este contexto, Urdaneta fue elegido para encabezar acciones diplomáticas que buscaban la alianza del rey de Gilolo y del de Tidore frente a los portugueses, que tenían sus plazas fuertes en la vecina Terrenate. Pese a su juventud, también se le encargó en ocasiones las negociaciones directas con los portugueses, para solventar los problemas existentes entre los representantes de los dos poderes ibéricos en liza. Tanto los habitantes de Tidore como los de Gilolo se habían mostrado contrarios a la influencia de los portugueses en la zona y eran más favorables a establecer contactos comerciales con los castellanos. No faltaron ocasiones, como relató el propio Urdaneta, en que el todavía joven Andrés participó en escaramuzas militares frente a las fuerzas portuguesas, liderando alguna de las cuadrillas en las que se había dividido el grupo de los castellanos en las islas para conseguir su propia supervivencia entre los enemigos.

Además de estas actividades como hombre de acción, militar y diplomático Urdaneta siguió mostrando una gran inteligencia y un profundo espíritu de observación, ya que tuvo el interés y la capacidad de aprender la lengua malaya y las costumbres autóctonas, lo que le permitió ser confidente de muchos indígenas, gozar de su confianza o, al menos, mantener buenas relaciones con los indios de Tidore y Gilolo, pese a los continuos cambios de poder en el seno de esas comunidades. Esta confianza también le permitió conocer algunas tentativas locales de acabar con la presencia de los europeos en las islas, fueran portugueses o castellanos. Estas habilidades de Urdaneta, unidas al uso de la violencia, le permitieron sobrevivir en un marco radicalmente hostil, pues no hay que olvidar que la vida en las Molucas debió ser ciertamente muy difícil a tenor de la información que Andrés aporta en su diario y del dato, nada anecdótico, que apunta que de ciento cinco españoles que llegaron en 1526, tan sólo quedaban con vida en 1534 diecisiete de ellos.

Una vez que los castellanos tuvieron conocimiento de que Carlos I había empeñado el Maluco al

rey de Portugal por 350.000 ducados, no tenía ya sentido que se quedaran en esas islas, de manera que los supervivientes, entre ellos Urdaneta, regresaron en cuanto pudieron a Europa a través de la India. Como se sabe, a su llegada a Lisboa en 1536 los portugueses le requisaron la documentación que llevaba, incluidas las cartas, planos, mapas y, lo que era más valioso, su diario, que tuvo que reconstruir de memoria poco después para el Consejo de Indias, en Valladolid. Tanto la documentación presentada al Consejo como el diario original (recuperado luego por Felipe II una vez que accedió al trono portugués en 1580) son fuentes fundamentales para el conocimiento no sólo de las islas de las especias sino también del comercio en esa área colindante con China y de la realidad antropológica de esas islas asiáticas.

Poco tiempo estuvo Urdaneta en la Península, pues tras un breve viaje a Ordizia, en 1538 se embarcó en Sevilla junto a don Pedro de Alvarado, para realizar una nueva expedición al Mar del Sur. Durante esta larga estancia americana, Urdaneta participó en actividades militares y ejerció relevantes cargos públicos en el virreinato de Nueva España, lo que prueba su vinculación al poder del rey castellano y la completa integración de Andrés de Urdaneta en el seno de la oligarquía de españoles que dominaba, desde el punto de vista político, económico, social y cultural, el gobierno de las colonias. En concreto, Urdaneta acompañó al virrey don Antonio de Mendoza en 1542, como capitán de guerra, dirigiendo el ejército que tenía encomendadas tareas de pacificación y de represión de los levantamientos indígenas que se estaban produciendo en el territorio de Nueva Galicia. En noviembre de ese mismo año de 1542, se encargó a Urdaneta la recaudación de tributos de los indios de los pueblos de Ávalos (en el noroeste de la provincia de Michoacán), localizados en el límite entre Nueva España y Nueva Galicia, actividad que ejerció hasta 1547.

Hacia 1543 Urdaneta fue designado por el virrey Mendoza para seguir ejerciendo algunos oficios públicos relevantes, como fue el de corregidor en algunos pueblos de Ávalos, hecho que implicaba tener la autoridad para gobernar y administrar justicia en un área recientemente pacificada. Se trataba de un cargo muy cotizado pues la lejanía de Ávalos del centro de poder,



Nueva Españako (Mexiko) erregeordetzan finkatua zelarik, Urdanetak partaidetza aktiboa izango zuen lurraldearen konkista, kolonizazio eta antolaketa prozesuan, eta jarduera militarretan eta kargu publikoetan ere jardun zuen.

*Irudia:* Diego Duránen *Historia de las Indias*... eskuizkribuko ilustrazio baten xehetasuna, Biblioteca Nacional, Madril. XVI. mendearen azken laurdena.

Instalado en el virreinato de Nueva España (México), Urdaneta participa activamente en el proceso de conquista, colonización y organización del territorio, tomando parte en actividades militares y ejerciendo cargos públicos.

*Imagen:* Detalle de una ilustración del manuscrito de Diego Durán *Historia de las Indias*..., Biblioteca Nacional, Madrid. Último cuarto del siglo XVI.





Urdaneta, agustindarren abitua soinean eta Filipinetako mapa bat eskuan. Alegiazko irudikapena. XIX. mendeko olio-pintura anonimoa. Ekialdeko Museoa, Valladolid. Agustindarren Errege Kolegioa, Valladolid.

Motibazio erlijiosoa akuilua izan zen, funtsezkoa inolaz ere, Urdanetarentzat, itzultzeko bidea bilatzeko ahaleginean: "Orain 52 urte ditudan eta osasunez patal nabilen aren -idatzi zuen-, eta nire gaztaroko lan nekezen ostean nire bizitzako beste denbora erretiraturik bizitzeko asmoa banuen ere, kontuan harturik Erregeren ardura handia Jainkoari eskaini beharreko zerbitzuari eta gure fede katoliko santuaren zabaltzeari dagokionez, prest nago bidaia honi ekiteko, Jainkoaren laguntza besterik izango ez badut ere aldamenen".

**Urdaneta con el hábito agustino y una carta de las islas Filipinas. Representación imaginaria. Óleo anónimo del siglo XIX. Museo Oriental, Valladolid. Real Colegio PP. Agustinos, Valladolid.**

La motivación religiosa fue para Urdaneta un acicate fundamental en la búsqueda de la ruta del tornaviaje: "Aunque ahora tengo 52 años y una salud precaria -escribió-, y tras los arduos trabajos de mis años de juventud pensaba vivir el resto de mi vida retirado, tomando en consideración el gran celo de Su Majestad en todo lo que concierne al servicio del Señor y la difusión de nuestra santa fe católica, estoy dispuesto a afrontar este viaje confiando solamente en la ayuda de Dios".

1543 inguruan, Mendoza erregeordeak Urdaneta izendatu zuen kargu publiko garrantzitsu batzuk betetzeko, esaterako Ávaloseko herri batzuetako korrejidore izateko; honek berriki baketutako eremu batean gobernatzeko eta justizia banatzeko ahalmena izatea zekarren berekin. Oso estimu handiko kargua zen, zeren eta Ávalos urrun zegoelarik botere-gune nagusitik, hots, Mexiko hiritik, jarduteko askatasun handia ematen zuen; aldi berean, baina, erantzukizun eta zailtasun handiko kargua zen, erregeordeak bere erabateko konfiantzako pertsona bati emana, esku gogor eta diplomaziaz bete zezan, indigenek eraso eta arpilatza jotzen zuten eta sarri, kolono espainiarren eta hauen mendean ziren indioen aurka. 1543ko urte horretan bertan bere korrejidoretzako eskualdeko herrietako bisitatzailerik izendatu zuten, indio, enkomendadun eta korrejidoreen jarduerak iker zitzen.

Zalantzarik ez dago, haatik, Mexikon igaro zituen bere bizitzaren erdiko urte horietan zehar Urdanetak partaidetza zuzena izan zuela kolono eta konkistatzaileen presioen aurrean indigena batzuek egin protesten kontra agintari gaztelauek zuzendutako zapalkuntzan. Izan zituen jarduera politikoak Nueva Españako kargu publikoen kudeaketan ohi ziren praktiken beste adibide bat izan ziren, nahiz berari ez zioten, garaikide izan zituen beste askori bai ordea, agintekeria zehar tratatu txarrez jardun izanaren akusaziorik egin. Azken batean, Urdanetak bere garaiko gizon baten antzera jardun zuen, eta Nueva Españako mendebaldeko lurraldearen konkista, kolonizazio eta antolaketa prozesuan hartu zuen parte, honek eskaintzen zizkion abantaila politiko eta ekonomikoez baliatzearekin batera. Adibidez, 1550 inguruan Urdanetak, Nueva Españako eliteko beste kide batzuekin batera, Guachinangoko meategi aurkitu berrietan inbertitu zituen indigenen tributuetatik heldu eta errege ogasunerako ziren sarreretako batzuk; horietan lortutako irabaziez itzuliko zion gero fiskoari, seguruenik, *maille-gu* gisa hartutako dirua; horrela gertatu ez balitz, Luis de Velasco erregeorde berriak ez zuen 1552an Urdaneta atzera korrejidore izendatuko. Dena den, beste zertzelada batzuk tarteko, ez zen kargu horretan arituko.

Ofizial publiko eta meatzari gisako jarduera hauek zituela ere, Urdanetak ez zituen itsas munduarekin estuago lotzen zuten jarduerak utzi, ontzidiak ekidatzeko eta prestatzeko lanak eta ontziak hornitzekoak ikuskatzen segitu zuen eta. 1547an, Urdaneta almirante izendatu zuten Mendoza erregeordeak Peruko erregeorderrira bidali nahi zuen ontzidi baterako, hain zuzen Gonzalo Pizarro buru zuen altxamendua zapaltzeko. Baina azkenean ez zen zigor espedizio hori bidali beharrik izan, 1548ko apirilean hil baitzen Pizarro matxinatua. Une horretatik aurrera, eta San Agustinen komentuan sartu zen 1552ko urtea arte, Andres Urdanetaren jarduera nagusia bere meategien ustiapena izango zen seguruenik. Baina erlijioan sartze honek ez zion Felipe II.aren zerbitzurako hainbat jardueratan segitzea gara-ziko.

Andres Urdanetaren fede-aitormenaren dokumentua 1553ko martxoaren 20koa da. Eztabaida ugari izan da San Agustinen ordenan sartzera eraman zuten arrazoiei buruz, are 44 urte besterik ez zituela eta zeharo jarduera aktiboan ari zela. Erljio kontuak, kontzientziari lotuak, ospe handiko erlijio korporazio batean babes eta aterpea bilatu beharra, gizarte mailan gora egin nahia, lasaitasuna bilatzea kosmografi ikerketetan jarraitzeko... argudio hauek guztiak erabili dituzte historialariek. Hipotesi batzuk oso sinesgarriak dira, esate baterako ordizarraren animuan Mexikoko apezpiku frai Joan Zumarraga-koarekin izan elkarriketek izango zuten eragina aipatzen dutenak; edota Jesusen Izen Guztiz Santuaren sekularrentzako ermandadean sartu zela dioena, agustindarrek zuzentzen zuten eta ermandadea (eta bertan ziren, gainera, Urdanetaren beste herrikide batzuk ere); Michoacánen agustindarrek zituen hartu-eman biziak edo, historialariek oso egoki aipatzen duten bezala, pentsa genezake, era berean, erreakzio bat izan zela erregeri enkomienda bat eskatu eta honek ezetza eman izanaren aurrean, enkomienda hori izango zuen eta Urdaneta sartuta zegoen espainiarren goi mailako taldearen barnean segurtasun materiala, errespetua eta ospea mantentzeko estrategiaren oinarri.

en ciudad de México, posibilitaba una amplia libertad de actuación; pero era, al mismo tiempo, un oficio de responsabilidad y dificultad que otorgaba el virrey a una persona de su plena confianza, para que lo ejerciera con mano férrea y diplomacia, pues se encontraba en un área en la que proliferaban los ataques y saqueos de los indígenas frente a los colonos españoles e indios sometidos a su autoridad. Ese mismo año de 1543 fue designado visitador de los pueblos comarcanos a su corregimiento para que investigara las actuaciones de indios, encomenderos y corregidores.

De lo que no hay duda es de que, durante esos años centrales de su vida en México, Urdaneta participó directamente en la represión que las autoridades castellanas dirigieron contra las protestas que algunos indígenas protagonizaban ante las presiones de los colonos y los conquistadores. Sus actuaciones políticas constituyeron un ejemplo más de las prácticas habituales en la gestión de los cargos públicos en la América novohispana, aunque a diferencia de otros muchos contemporáneos, Andrés no fue acusado de abusos de autoridad ni de maltratos. En definitiva, Urdaneta actuó como un hombre de su tiempo y participó en el proceso de conquista, colonización y organización del territorio occidental de la Nueva España, beneficiándose igualmente de las ventajas políticas y económicas que se le brindaban. Por ejemplo, hacia 1550, Urdaneta, junto a otros miembros de la elite novohispana, invirtió en las recién descubiertas minas de Guachinango parte de los ingresos provenientes de tributos indígenas y destinados a la real hacienda; con los beneficios obtenidos en las minas, probablemente reintegró luego al fisco real el dinero que había tomado a modo de *préstamo*; de no ser así, el nuevo virrey don Luis de Velasco no habría nombrado nuevamente a Urdaneta como corregidor en 1552, cargo que finalmente no ejerció por otras circunstancias.

Junto a estas actuaciones como oficial público y como minero, Urdaneta no abandonó sus actividades más relacionadas con el mundo marítimo, pues continuó supervisando la construcción y el aparejo de flotas y el aprovisionamiento de pertrechos navales. En 1547 se nombró a Urdaneta almirante de una flota que el virrey Mendoza quería enviar al virreinato de Perú,

para reprimir la rebelión encabezada por Gonzalo Pizarro. Pero finalmente no fue necesario el envío de la expedición de castigo ante la muerte, en abril de 1548, del amotinado Pizarro. A partir de este momento y hasta 1552, en que entra en el convento de San Agustín, posiblemente la principal actividad de Andrés de Urdaneta fue la explotación de sus minas. Pero esta entrada en el ámbito religioso no le impidió continuar realizando actividades al servicio de Felipe II.

El documento de la profesión de fe de Andrés de Urdaneta data del 20 de marzo de 1553. Mucho se ha debatido sobre las razones que le llevaron a entrar en la orden de San Agustín cuando, todavía muy activo, contaba con 44 años. Cuestiones religiosas, de conciencia, de necesidad de amparo, cobijo y protección en una corporación religiosa prestigiosa, de promoción social, de búsqueda de tranquilidad y de serenidad para continuar los estudios cosmográficos... todas estas argumentaciones han sido barajadas por los historiadores. Algunas hipótesis son muy verosímiles, como las que apuntan a la influencia que pudieron tener en el ánimo del ordiziarra las entrevistas con fray Juan de Zumárraga, obispo de México; su probable ingreso en la hermandad para seglares del Santísimo Nombre de Jesús, que estaba dirigida por los agustinos (y en la que también se integraban otros paisanos de Urdaneta); el contacto cotidiano con los agustinos en Michoacán o, como indican otros historiadores muy acertadamente, también se podría pensar en una reacción a la denegación de una petición al monarca de una encomienda, que le permitiría mantener una estrategia de preservación de la seguridad material, de respetabilidad y prestigio en el seno del selecto grupo de españoles en el que se integraba.

Las complejas, difíciles pero al tiempo apasionantes circunstancias vitales que le tocaron vivir a Andrés de Urdaneta forjaron la personalidad de este marino y científico vasco. Podemos intuir algunos rasgos de su naturaleza interna y carácter a partir de la confrontación entre las relaciones que él mismo nos ha dejado y las informaciones paralelas procedentes de otros autores. Su capacidad de mando y liderazgo se puso pronto de manifiesto en la estancia en las Molucas, pese a su juventud, dada su activa participación en las tensiones y conflictos locales. Su carác-



Urdaneta, Víctor Villánen alegiazko irudikapen baten arabera. Mihise gaineko olio-pintura, 1895. El Escorialeko Errege Monasterioa.

Urdaneta según representación imaginaria de Víctor Villán. Óleo sobre lienzo, 1895. Real Monasterio de El Escorial.





Visayas uharteetako (Filipinak) biztanleak. XVI. mendearen amaiera aldeko *Boxer Codex* eskuizkribuko irudia. The Lilly Library, Indianako Unibertsitatea.

García de Loaysaren espedizioko kide zelarrik, Urdanetak Visayas uharteetako indigenak ezagutu zituen 1526an. Eta berezkoa zuen buru-argitasuna baliatuta, honakoa idatzi zuen: "Garaiera ertaineko gizonak dira, den-denak pintatuak, eta gerritik behera kotoizko oihalak daramate jantzi gisa, eta baita zetazkoak ere" (Errege Jauregiko Bibliotekako eskuizkribua, Madril).

**Nativos de las islas Visayas (Filipinas). Imagen del *Boxer Codex*, manuscrito de finales del siglo XVI. The Lilly Library, Universidad de Indiana.**

Como miembro de la expedición de García de Loaysa, Urdaneta conoció a los indígenas de las islas Visayas en 1526. Con la precisión y capacidad de observación que le caracterizaban escribió: "Son hombres de mediana estatura y son todos pintados y andan vestidos de la cintura abajo con paños de algodón y también de seda" (Manuscrito de la Biblioteca del Palacio Real, Madrid).

*Miguel Lopez de Legazpi eta Andres Urdaneta Filipinetara iristen.* Telesforo Sugcang pintore filipinarren olio-pintura, 1893 inguruan Valladolideko agustindarren enkarguz egin. Ekialdeko Museoa, Valladolid.

*La llegada de Miguel López de Legazpi y Andrés de Urdaneta a Filipinas.* Óleo del pintor filipino Telesforo Sugcang realizado hacia 1893 por encargo de los PP. Agustinos de Valladolid. Museo Oriental, Valladolid.

Andres Urdanetari bizi izatea egokitu zitzaizkion zertzelada konplexu, zail baina,aldi berean, zoragarriek moldatu zuten euskal marinel eta zientzialari honen nortasuna. Eta Andresen barne izaeraren ezaugarri batzuk suma ditzakegu, ostean, berak utzi dizkigun harremanak eta beste autore batzuen-gandik iritsi zaizkigun informazio paraleloak elkarrekin alderatuta. Aginte eta aitzindaritzarako zuen gaitasuna berehala jarri zen agerian Moluketako egonaldian, gaztea zelarrik artean, han bertan sortutako tentsio eta gatazketan izan zuen partaidetza aktiboaren bidetik. Bere izaera abenturazalea eta biografia erakargarria, Moluketako lehen urteetako eta Mexikon bizi izandako epe luzean zeharrekoa batez ere, hainbat autoreren inspirazio iturri izan ziren drama, eleberri historiko, azkenean filmatzeke geratutako filmen bateko eta, berriki, eta dibulgazio eta pedagogi ikuspegi nabarmenago batez, dokumental saritu bateko protagonista egin zezaten.

Era berean, familiaren barnerako erantzukizuna ere gauzatuko zen Moluketan izan zuen sasiko alabarekiko harremanean; indigena batekin izan zituen harremanetatik sortu zen, eta 1536an Lisboa iritsi zenean bertan laga zuen. Alaba hori, Gracia izena zuen, Andresen anaia nagusi Otxoa Urdanetaren testamentuko onuraduna izan zen, eta honek argi uzten du nolako famili elkartasunak zeuden eta garatzen ziren euskal leinuen barnean, beti familiako alderik desfavoratuenari laguntzearen; horixe dugu Andresen alaba Graciaren kasua, ezen honengan hainbat faktore negatibo biltzen ziren, ezkontzatik kanpo jaio izana, mestizoa izatea, eta emakumezkoa gainera. Are gehiago, bere bidaietako batzuetan eta Amerikako egonaldian zehar, Andres Urdanetak senide batzuk izan zituen aldamenean, iloba Joan Otxoa Zabala kasu, osabarekin izan baitzen hau 1538ko abentura mexikarrean.

Maila ekonomikoan ere badira Urdanetaren zintzotasun pertsonala erakusten duten elementuak. Andresek, 1544 eta 1547 bitartean, Álvaroseko korrejidore izan zen urteetan, indigenek ordaindutako tributuetatik bidegabeki hartuta zituen kopuruak errege ogasunari itzuli izanak, horrela gertatu zela pentsatzeko arrazoi sendoak baitaude, erakusten du ezen ordiziarra, azkenean, eta modu berezi samar batez izan arren, ondradua zela. Gainera, Guachinangoko meategietatik ateratako diruaren zati bat berrinbertitu egin zuen, berriro, leinuaren beraren estatusa mantentzearen, Gracia Urdaneta Ordizian kapare gipuzkoar batekin, Lope de Aitzagarekin, ezkondu ahal izateko ezkonsaria izan baitzen; eta legezko ezkontza honetatik zortzi seme-alaba jaio ziren, Andres Urdanetaren zortzi bilobak alegia.



ter aventurero y su apasionante biografía, en especial los primeros años en las Molucas y también durante el largo período vivido en México, fueron elementos novelescos que inspiraron a diversos autores para que Urdaneta se incorporara como protagonista de dramas, de novelas históricas, de alguna película finalmente no rodada y, más recientemente, con una perspectiva más divulgativa y pedagógica, de un premiado documental.

Asimismo, su sentido de la responsabilidad en el marco familiar se plasmó en la relación con la hija natural que tuvo en el Maluco, fruto de sus relaciones con una indígena, y que dejó a su llegada a Lisboa en 1536. Esa hija, Gracia, fue beneficiaria del testamento del hermano mayor de Andrés, Ochoa de Urdaneta, lo que es un testimonio claro de las solidaridades familiares existentes y desarrolladas en el seno de los linajes vascos apoyando a los segmentos más desfavorecidos de la familia; es el caso de Gracia, la hija de Andrés, en la que convergían diversos factores negativos, como haber nacido fuera de matrimonio, ser de origen mestizo y de género femenino. Asimismo, en algunos de sus viajes y durante su estancia en América, Andrés de Urdaneta se hizo acompañar de algunos familiares, como su sobrino Juan Ochoa de Zavala, que le siguió en su aventura mexicana en 1538.

También en el plano económico hay elementos que apuntan a la integridad personal de Urdaneta. La más que hipotética devolución a la real hacienda de las cantidades que Andrés se había apropiado ilícitamente, provenientes de los tributos que los indígenas habían pagado entre 1544 y 1547, durante el tiempo que fue corregidor de Ávalos, apuntan a esta, al menos *sui generis*, honradez final del ordiziarra. Además, parte del dinero obtenido de las minas de Guachinango fue reinvertido, una vez más, en el mantenimiento del estatus del propio linaje, al ser destinado como dote para que Gracia de Urdaneta pudiera contraer matrimonio en Ordizia con un hidalgo guipuzcoano, Lope de Ayzaga, unión legítima de la que nacieron ocho hijos, nietos por tanto de Andrés de Urdaneta.

Esta integridad, honradez y buen hacer personal y profesional continuó incluso tras su entrada en la orden de San Agustín, como prueba la crítica que emitió Urdaneta a principios de 1563 frente a las actua-

ciones escandalosas de algunos agustinos. Andrés defendió ante el provincial de la orden, de quien era consejero, las actuaciones llevadas a cabo por un visitador enviado por el general de la orden en Roma, para atajar las noticias de abusos que se cometían en la orden. En la misma línea cabría entender los escrúpulos y problemas de conciencia que planteó Urdaneta para dirigirse a las islas Filipinas, al entender que se encontraba dentro del empeño de 1529. Por esta razón, en principio se aseguró de que la expedición de Miguel López de Legazpi se dirigiría a Nueva Guinea, aunque se admitiera el desembarco en Filipinas para rescatar a los supervivientes de las anteriores expediciones. El hecho de abrir las instrucciones en alta mar es una muestra más de los problemas morales que para Urdaneta generaba el destino filipino y también de la necesidad técnica que tenía el rey de contar con la dirección náutica y la supervisión científica personal de Urdaneta en esta empresa.

Probablemente a causa de la definida personalidad que acabo de describir, Andrés de Urdaneta disfrutó de la confianza del poder político, tanto para ejercer cargos públicos de relieve en el virreinato de Nueva España como para dirigir empresas marítimas de primer rango y que se encontraban entre los objetivos prioritarios de Carlos I y, sobre todo, de Felipe II. Ya he aludido a los vínculos de confianza y de tutela que unieron a Urdaneta con Juan Sebastián Elcano, que hicieron que Urdaneta apareciera como testigo y beneficiario en el testamento del anciano marino de Getaria. Andrés también contó con la confianza de los más altos cargos en tierras americanas. Entre ellos destacan los virreyes don Antonio de Mendoza, quien encomendó a Urdaneta relevantes cargos y servicios públicos, tanto políticos como militares, y don Luis de Velasco, quien le encargó personalmente la búsqueda de la ruta del *tornaviaje*, esto es, el difícil retorno a las costas americanas del Pacífico, con el objetivo final de establecerse en Filipinas, conseguir así el ansiado acceso a China y establecer una vía de contacto regular entre Asia, América y Europa. Incluso, durante los primeros años de Urdaneta como fraile agustino, el virrey Velasco demostró el respeto y la confianza que seguía teniendo a fray Andrés al encargarle la prestación de algunos servicios, cuyo contenido



Migel Lopez de Legazpi, Filipinen konkistatzaile eta uhartediko lehen gobernadorearen alegiazko irudikapena. Antonio Valverderen akuarela, c. 1965. Kutxa bilduma.

Representación imaginaria de Miguel López de Legazpi, conquistador de Filipinas y primer gobernador del archipiélago. Acuarela de Antonio Valverde, c. 1965. Colección Kutxa.



Zintzotasun, ondradutasun eta gai pertsonal eta profesionaletarako esku on horrek jarraitu egin zuen, baita San Agustinen ordenan sartu ondoren ere; honen lekuko dugu Urdanetak, 1563ko urtearen hasieran, agustindar batzuen eskandaluzko jardueren aurrean egindako kritika. Andresek ordenako probintzialaren aurrean defendatu zuen, haren aholkularia baitzen, ordenaren Erromako jeneralak bidalitako bisitazaile batek ordenan burutzen ziren abusuen berri zuela eta horrelakoak moztearren egindakoa. Ildo beretik ulertu beharko genituzke Urdanetak Filipinar Uharteetara joateko planteatu zituen eskrupulu eta kontzientzia arazoak, ikusten baitzuen 1529ko ahaleginaren barnean zegoela. Horregatik, hasteko ziurtatu zuen Migel Lopez de Legazpiren espedizioak Ginea Berrira joko zuela, nahiz Filipinetan lehorreratzea onartu, aurretik izandako espedizioetatik bizirik zeudenak erreskatatzeko. Aginduak itsas zabalean zabaltzea bera dugu Urdanetari Filipinetako destinoak eragiten zizkion arazo moralen beste adierazgarri bat, baina erregeren premia tekniko bat ere agerian jartzen digu horrek, subiranoak ezinbesteko zuen eta Urdanetaren nautika arloko zuzendaritza eta ikuskaritza zientifikoa lantegi zail honetan.

Deskribatu berri dudan nortasunagatik seguruenik, Andres Urdanetak botere politikoaren konfiantza izan zuen, bai Nueva Españako erregeorderrian kargu publiko garrantzitsuak betetzeko bai lehen mailako itsas proiektuak, Karlos I.aren eta, batez ere, Felipe II.aren lehentasunezko helburuen artean zeudenak, gidatu eta aurrera eramateko. Dagoeneko aipatu ditugu Urdaneta Joan Sebastian Elkanorekin lotu zuten konfiantza eta zaintza loturak; hauen eraginez, Urdaneta lekuko eta onuradun agertuko zen Getariako marinel zaharraren testamentuan. Andresek berea izan zuen, ostean, amerikar lurraldeetako kargu gorenen konfiantza. Horien artean nabarmenenak, Antonio Mendoza erregeordea, Urdanetari kargu eta zerbitzu publiko garrantzitsuak, hala politikoak nola militarrik, eman zizkiona bera, eta Luis Velasco ziren, honek pertsonalki eman baitzion *itzulerako bidaiarako* modua aurkitzeko eginkizuna, hots, Pazifikoko amerikar kostaldeetara itzultzeko bidaia zaila gauzatzekoa, hain zuten Filipinetan finkatu, Txinarako sarbide zeharo desiratua lortu, eta Asia, Amerika eta Europa arteko hartu-emanetarako bide erregular bat ezartzearen. Are gehiago, Urdanetak fraide agustindar gisa egin lehen urteetan zehar, Velasco erregeordeak agerian utzi zuen frai Andrezi zion begirunea eta konfiantza, zerbitzu batzuk egitea enkargatu zion eta. Ez dugu, baina, zerbitzu horien eduki zehatzaren berri. Azken batean, zalantzarik ez dago Urdanetak erregeren babesa izan zuela, zeren eta Felipe II.ak zuzenean eman zion Migel Lopez de Legazpik, Urdanetaren beraren adiskidea, Sartaldeko uharteetarantz gidatuko zuen espedizioiko nautikaren zuzendaritza.

Ildo beretik, Urdanetak hartu-emanak izan zituen garai hartako goi mailako intelektualekin, ez soilik politiko, nabigatzaile, marinel eta kartografoekin. Andres Urdaneta, 1539an, Indietako historialari ospetsu Gonzalo Fernández de Oviedorekin elkartu zen, Andresek don Pedro de Alvaradoren laguntzaile gisa Guatemalara jo behar zuenean zehazki. Izan zituzten elkarrizketetan, Urdanetak Loaysaren espedizioa azaldu zion, zehatz-mehatz, Moluketako egonaldiarekin batera, eta Fernández de Oviedori egin zion inpresioa hain izan zen ona ezen honek jakintsu eta itsasoko artean aditutzat kalifikatu zuen, are une horretan ezezaguna zen Moluketako hegazti baten lumak ere oparitu zizkiola Urdanetak. Historialariak informazio zehatz hauek guztiak jaso zituen bere *Historia general y natural de las Indias* lanean. Gauzak horrela, Urdanetaren harreman eta egunkari idatzien eragina oso zabala izango zen eta, seguruenik, oso baliagarria Indietako kronikagile ofizial Antonio de Herrera y Tordesillasek XVII. mendearen hasieran egin zuen Moluketako kronikaren oinarriarako; honek guztiak argi uzten du, berriro ere, zein baliotsu izan ziren Urdanetaren kronika eta informazioak garaikide izan zituen kronikagile eta historialarientzat, espainiarrak Pazifikora iriste horren historia biltzeko unean.

Azken batean, Andres Urdanetaren bizitza ikasketa etengabea izan zen, abenturazale eta soldadu gaztea zen urteetatik, orduan jada hasi baitzen bere alderdi politiko eta diplomatikoa ere lantzen, eta



Migel Lopez de Legazpiren estatua Zumarragan. Aniceto Marinasek egin monumentuak, 1897an inauguratuak, paganismoaren eta idolatriaren gaineko garaile gisa erakusten digu Legazpi.

Estatua de Miguel López de Legazpi en Zumárraga. El monumento, obra de Aniceto Marinas, inaugurado en 1897, representa a Legazpi como artífice de la victoria sobre el paganismo y la idolatría.







Mexikoko egonaldian zehar sakonduko zituen horiek geroago. Baina aintzatespen publiko handiena eman dion alderdia kosmografo, nabigatzaile eta zientifikoarena izan da, alderdi teknikoago horietan murgiltzeko modua izan baitzuen, San Agustinen komentuan eskainitako lanorduei esker, zalantzarik gabe. Urdanetak bere garaiko zientzialari ospetsuenetako batzuekin lan egiteko aukera izan zuen, Martin Rada agustindar nafarrarekin besteak beste, eta modua izan zuen, halaber, aurrerapen eta teoria zientifiko berritzaileenak, are iraultzaileak, ezagutzeko, aztertzeko eta aplikatzeko bere kalkulu astronomikoak egin eta itsas zabalean longitudea zehazteko; aurrerapen horien artean taula kopernikarrak zeuden, 1543an Kopernikok bere *De Revolutionibus Orbium Coelestium* argitaratu eta urte gutxira kontsultatuak.

Horrenbestez, Andres Urdaneta ezagutzeko arrazoi nagusiren bat baldin badago, hori *itzulerako bidaiarako* bidearen zientzialari aurkitzaile intelektual eta praktikoa izana da. Errege hispaniarrek espezieen uharteak eta Txinako merkatu itzela ozeano Baretik zehar Amerika eta Europarekin lotuko zituen merkataritza-bide bat finkatzeko interesa konstante bat izan zen XVI. mendean. Baina interes hau areagotu egin zen bostehuneko laugarren hamarkadaz geroztik, Amerikan zilar-meategiak aurkitu zituztean; izan ere, Asian izugarritzko onarpena zuen metal preziatu horrek. Asiako produktuak prezio baxuan erosteak zekarren negozio izugarriak, ezen Txinan sekulako balioa ematen zioten amerikar zilarraz ordaintzen zituzten, eta ondoren askoz garestiago saltzen Amerikan eta Europan, sekulako bultzada eman zion Filipinetatik Nueva Españarako itsasbide zuzen honen esplorazioari eta gatzelauak filipinar uhartedian finkatzeari, ezin toki egokiagoa baitzen Asiaren ekialde inguruan komertzioa indartzeko, Txina hegoaldeko kostaldeak parean eta iparraldean, berriz, Molukak edo espezieen uharteak zeuzkan eta. Eta hori guztia Filipinar uharteak portugesen mendean zeudela, hau da, 1529ko Zaragozako Itunak zehaztutako bahituraren barnean.

Asiatik Amerikara Pazifikoko zeharkatuz itzultzeko itsasbidea aurkitzeko eta bidaiaria egin ahal izateko zailtasunak, baina, ageri-agerian zeuden, kontuan hartzen badugu mendebaldetik ekialderako

Urdanetaren itzulerako bidaiaren ibilbidea, José Ramón de Miguelek, Esteban Rodríguez eta Rodrigo de Espinosa pilotuen itsasbide-liburuetan oinarriturik, egin interpretazioaz. Grafismoa: José Ramón Zubizarreta.

*San Pedro* ontzia ipar-ekialdeko bandan jarri zen Japonen latitudera iritsi arte. Aldeko ziren haizeak eta korronteak bilatzen ari zelarik, ontziak ekialderantz egin zuen bira, Ozeano Barean are barrenago egiteko. Oso zeharkaldi gogor eta luzea egin beharko zuten, Kaliforniako kostaraino heltzeko. Orduan beherantz abiatu ziren, kostaldetik hurbil beti, harik eta Acapulcoko portura iritsi ziren arte.

Urdanetak aurkitutako itzultzeko bideak espainiarrak Filipinetan geratzea ahalbidetu zuen, eta ozeanoz gaindiko hartu-emanein ere hasiera emango zien, Manilako Galeoiaren bidez. Halaz, Asia eta Amerika 250 urtetan zehar lotu zuen bidea mugari garrantzitsua izango zen kultura, merkataritza eta nabigazioaren historian.

Ruta del tornaviaje de Urdaneta en interpretación de José Ramón de Miguel a partir de los derroteros de los pilotos Esteban Rodríguez y Rodrigo de Espinosa. Grafismo: José Ramón Zubizarreta.

La *San Pedro* tomó rumbo al nordeste hasta alcanzar la latitud del Japón. Buscando los vientos y corrientes favorables, la nao viró hacia el este para adentrarse en el Pacífico. Les esperaba una dura y larga travesía hasta alcanzar la costa californiana. Iniciaron entonces el descenso, bordeando el litoral, hasta arribar al puerto de Acapulco.

La vía de retorno descubierta por Urdaneta hizo posible la permanencia de los españoles en Filipinas y dio inicio a las relaciones transpácificas por medio del Galeón de Manila. La ruta que unió Asia y América durante 250 años supuso un hito en la historia de la cultura, el comercio y la navegación.



específico desconocemos. En última instancia, no cabe duda de que Urdaneta gozó del apoyo del monarca, puesto que Felipe II le encomendó directamente que fuera el encargado de la dirección náutica de la expedición que dirigiría Miguel López de Legazpi, amigo personal de Urdaneta, hacia las islas del Poniente.

En esta misma línea, Urdaneta estuvo en contacto con intelectuales de relieve del momento y no sólo con políticos, navegantes, marinos y cartógrafos. Andrés de Urdaneta coincidió en 1539 en Santo Domingo con el reputado historiador de las Indias Gonzalo Fernández de Oviedo, precisamente cuando Andrés se disponía a trasladarse a Guatemala como acompañante de don Pedro de Alvarado. En sus conversaciones, Urdaneta le detalló la expedición de Loaysa y su estancia en el Maluco, dando tan buena impresión a Fernández de Oviedo, que le calificó de sabio y de buen conocedor del arte del mar, llegando incluso Urdaneta a regalarle el plumaje de un pájaro exótico de las Molucas, desconocido hasta el momento. El historiador recogió estas informaciones pormenorizadas en su *Historia general y natural de las Indias*. En este sentido, la influencia de las relaciones y diarios manuscritos de Urdaneta debió ser muy extensa y, probablemente, sirvió de sustento a la crónica del Maluco que realizó el cronista oficial de Indias, Antonio de Herrera y Tordesillas, a principios del siglo XVII, lo que vuelve a ser demostrativo del valor y la veracidad que para los cronistas e historiadores coetáneos tuvieron sus crónicas e informaciones a la hora de compendiar la historia de la llegada de los españoles al Pacífico.

En definitiva, la vida de Andrés de Urdaneta fue un continuo aprendizaje, desde sus años jóvenes de aventurero y soldado, donde ya ensayó su vertiente más política y diplomática, en las que profundizó durante su estancia en México. Pero la faceta que le ha dado mayor reconocimiento público fue la de cosmógrafo, navegante y científico, aspectos más técnicos en los que pudo profundizar sin duda gracias a las horas de trabajo dedicadas en el convento de San Agustín. Urdaneta tuvo oportunidad de trabajar con algunos de los científicos más prestigiosos de la época, como el también agustino navarro Martín de Rada, y de conocer, estudiar y aplicar los avances y teorías

científicas más innovadores e incluso revolucionarios, para realizar sus cálculos astronómicos y determinar la longitud en alta mar, como eran las tablas copernicanas, consultadas muy pocos años después de que en 1543 Copérnico publicara su *De Revolutionibus Orbium Coelestium*.

Consecuentemente, si por algo es y debe ser reconocido Andrés de Urdaneta es por ser el científico descubridor, intelectual y práctico, de la ruta del *tornaviaje*. El interés de los monarcas hispánicos por establecer una ruta comercial a través del Pacífico que conectara las islas de la especiería y el vasto mercado chino con América y Europa había sido una constante en el siglo XVI. Pero este interés se multiplicó con el descubrimiento de minas de plata en América a partir de la cuarta década del quinientos, metal precioso que tenía una enorme aceptación en Asia. El inmenso negocio que suponía la compra de productos asiáticos a bajo precio, pagados con plata americana sobrevaluada en China, y vendidos a precios mucho más elevados en América y Europa, incentivó enormemente la exploración de esta ruta marítima directa entre Filipinas y Nueva España, así como el establecimiento de los castellanos en el archipiélago filipino, lugar idóneo para intensificar el comercio en el área de Asia oriental, al encontrarse frente a las costas del sur de China y al norte de las islas Molucas o de las especias. Y todo ello a pesar de que las islas Filipinas se encontraban bajo soberanía portuguesa, esto es, dentro del empeño demarcado por el Tratado de Zaragoza en 1529.

Pero las dificultades de encontrar la derrota del retorno atravesando el Pacífico de Asia a América y de ejecutarla con éxito se ponen de manifiesto si se tiene en cuenta que ese recorrido marítimo de oeste a este



*Frai Andres Urdaneta Ekialdeko bidea trazatzen.* Jose Sarriegiren hormairudirako estudioa, 1952 inguruan Ordiziako Udalarentzat egina.

Urdanetak lau hilabete eman zituen bidaiara osatzeko. Eta egin zituen 18.000 kilometro horiek ordura arte itsaso zabalean eskalarik gabe egindako zeharkaldirik luzeena ziren. Itsasoan gauzatutako balentria honek, baina, sufrimendua eskatu zuen, galanki, eta giza bizitzak ere eramango zituen: 26 gizonek Ozeano handia izango zuten hilobi. Eta *San Pedro* ontzia bere jomugara iritsi zenean, tripulazio osoa eskorbutoak eta nekeak jota zegoen, akiturik.

*Fray Andrés de Urdaneta trazando la ruta de Oriente.* Estudio para mural de José Sarriegui realizado hacia 1952 para el Ayuntamiento de Ordizia.

Urdaneta tardó cuatro meses en completar el viaje. Los 18.000 kilómetros recorridos constituyen la travesía sin escalas más larga, por mar abierto, realizada hasta entonces. La hazaña náutica no se hizo sin padecimiento y coste de vidas humanas: 26 hombres encontraron sepultura en el gran Océano. Cuando la *San Pedro* llegó a su destino la tripulación entera estaba prostrada por el escorbuto y la fatiga.



zeharkaldi horretan behin eta berriro ahalegindua zela hainbat marinel, Gaztelako errege agintarien laguntza eta bultzadaz. Zenbait espediziok porrot egin zuten Asia ekialdeko uharteetatik Nueva Españara itzultzeko ahaleginean, ez baitzituzten behar bezala ezagutzen Pazifikoko inguru horretako itsaslasterkonplexuak, ezta Ekialde Urruneko ozeano eremu horretako aldizkako haize aldakorren erregimen orokorra ere. Urdanetaren aurretik, Ozeano Bareko alde biak lotzeko ahalegin horretan atarramentu onik atera gabeak ziren, lehenik, Gonzalo Gómez de Espinosa 1522an, (Magallaesen espediziokoa zen hau), Álvaro de Saavedra gero 1528 eta 1529an, eta Ruy López de Villalobosen espedizioko bi kide ondoren, Bernardo de la Torre 1543an eta Iñigo Ortiz de Retes 1545ean. Urdanetak, ordea, zalantzarik ez zuen batere, XVI. mendeko hirurogeiko hamarkadaren hasieran, “gurdi batez ere Sortaldeko uharteetatik itzultzeko modua” izango zuela adierazi zuelarik.

Porrot hauen ostean, itzulerako bidaia gauzatu ahal izatea Andres Urdanetaren obra intelektuala izan zen. Honek, bere bizitza osoan zehar, bildu eta bereganatu egin zuen nautikaren eta nabigazio praktiken inguruan pilotu, marinel, kosmografo, kartografo eta beste zenbaitek metatutako jakintza, bostehuneko lehen hamarkadez geroztik ari ziren eta Atlantiko eta Pazifiko ozeanoetan barrena nabigatzen eta ikertzen, eta ezagutza horri guztiari bere esperientziak erantsi zizkion. Halaz 1565eko ekainaren 1ean, eta udako montzoia, hego-mendebaldekoa, baliatuta, Filipinetako Cebu uhartetik abiatu zen *San Pedro* ontzia, Lopez de Legazpiren biloba Felipe de Salcedo gaztea zuela buru, eta Urdanetaren zuzendaritza teknikoaz; Ipar Pazifikoko bandan jarri zen ipar latitudeko 38° edo 40°ra iritsi arte; gero, mendebaldeko haizeek eta Kuro-Shivoko itsaslasterkonplexuak bereok Kaliforniako kostalderaino eraman zuten zuzenean *San Pedro* ontzia, eta 1565eko urriaren 8an Acapulcon lehorreratu ziren. Ozeano Barea zeharkatuz Amerikara itzultzeko bidaia historikoa, itzulera bidaia deitua, arrakastaz burutua zen azkenean.

Urdanetaren itzulerako bidaia benetan osatu zuenaren inguruko zalantzek testu eta eztabaida ugari eragin dute, baina historialariak oro har bat datoz, itzulerako bidaiaren arrutaren egile intelektuala Andres Urdaneta izan zela berresteko unean; izan ere, Urdaneta bera izan zen aurreko urteetan metatutako itsas tradizioa bildu eta Asia eta Amerika kontinenteak itsasoz lotzeko erronkari behar zuen amaiera ematea lortu zuena. Urdanetaren bidaia historikoaren ostean, komunikazio iraunkorra ezarri zen Manila eta Acapulco artean, Manilako Galeoi edo Txinako Ontzi esaten ziotenaren ibilbideaz. Azken batean, Andres Urdanetaren aurkikuntzak lortu egingo zuen ordura arte elkarren zeharo ezezagun ziren munduen arteko hartu-emanak izugarri ugaltzeko, alde batean baitziren Asia ekialdeko biztanleak, eta bestean, berriz, Pazifikoko bustitako lurralde horietara jotzen hasi ziren euskaldun, gaztelau, europar eta amerikarrak, eta elkarren berri izate honekin indartu egingo ziren, halaber, ekonomi eta kultur mailako elkartrukeak.



Urdanetari egin monumentua. Manilako San Agustinen komentuko apaiztegia. Eduardo Castrilloren obra, 2008an inauguratua. J. M. Unsainen argazkia, 2009.

Monumento a Urdaneta. Seminario del convento de San Agustín de Manila. Obra de Eduardo Castrillo inaugurada en 2008. Foto: J. M. Unsain, 2009.

había sido reiteradamente buscado por distintos marinos bajo el auspicio y la tutela de las autoridades reales castellanas. Varias expediciones fracasaron en el intento de volver desde las islas de Asia oriental a Nueva España, al no conocerse suficientemente las complejas corrientes marinas de esa zona del Pacífico ni el régimen general de vientos periódicos variables existente en ese área oceánica del Extremo Oriente: antes que Urdaneta, habían fallado en sus intentos de unir ambas orillas del Pacífico primero Gonzalo Gómez de Espinosa, en 1522 (perteneciente a la expedición de Magallanes); luego Álvaro de Saavedra en 1528 y en 1529; posteriormente dos miembros de la expedición de Ruy López de Villalobos, Bernardo de la Torre en 1543 y, finalmente, Iñigo Ortiz de Retes en 1545. A Urdaneta, en cambio, no le cabía duda a principios de los sesenta del siglo XVI que “hasta con una carreta podría [...] regresar de las islas del Poniente”.

Tras estos fracasos, la realización efectiva del *tornaviaje* fue obra intelectual de Andrés de Urdaneta quien, obviamente, recogió durante toda su vida los conocimientos náuticos y las prácticas de navegación que le transmitieron pilotos, marineros, cosmógrafos, cartógrafos... que navegaban y estudiaban desde los primeros decenios del quinientos los océanos Atlántico y Pacífico, a los que unió sus propias experiencias. Efectivamente, el 1 de junio de 1565, aprovechando los monzones de verano, del suroeste, partió de la isla filipina de Cebú la nave *San Pedro*, capitaneada por el joven Felipe de Salcedo, nieto de López de Legazpi, bajo la dirección técnica de Urdaneta, que puso rumbo al Pacífico Norte hasta los 38° ó 40° de latitud norte; luego, los vientos del oeste y las corrientes marítimas cálidas del Kuro-Shivo llevaron directamente a la *San Pedro* hasta las costas de California, desembarcando en Acapulco el 8 de octubre de 1565. El histórico viaje



de retorno a América atravesando el Pacífico, el *tornaviaje*, había concluido finalmente con éxito.

Las dudas sobre la paternidad del *tornaviaje* de Urdaneta han hecho correr ríos de tinta, pero existe gran unanimidad entre los historiadores al confirmar que el artífice intelectual de la derrota del *tornaviaje* fue Andrés de Urdaneta, que fue quien consiguió aunar la tradición marítima acumulada los años precedentes y logró llevar a buen término la ansiada conexión de los continentes asiático y americano por vía marítima. Tras el histórico viaje de Urdaneta se estableció una comunicación permanente entre Manila y Acapulco, hecho que se materializó en la ruta del Galeón de Manila o la Nao de la China. El hallazgo de Andrés de Urdaneta permitió, en última instancia, que se multiplicaran los contactos entre unos mundos hasta entonces mutuamente desconocidos, el de los habitantes de Asia oriental y el de los vascos, castellanos, europeos y americanos que comenzaron a desplazarse a esos territorios bañados por el océano Pacífico, favoreciendo los intercambios económicos e interculturales.

Martin Rada. Víctor Villánen alegiazko irudikapenaren xehetasuna. Olio-pintura, 1879. Ekialdeko Museoa, Valladolid.

Martin Rada iruindar agustindarra kosmografiar zekienagatik eta enkomendadunen abusuen aurrean indigenak defendatzeagatik nabarmendu zen. Txina ebanjelizatzearen interesaren bidetik, inperio hau konkistatzeko proiektu bat formulatzera ailegatu zen. Gainera, 1575ean Txinara egin zuen bidaiari buruzko balio handiko kontaketa bat egin zuen.

**Martín de Rada. Detalle de la representación imaginaria de Víctor Villán. Pintura al óleo, 1879. Museo Oriental, Valladolid.**

El agustino pamplonés Martín de Rada destacó por sus conocimientos cosmográficos y por su defensa de los indígenas filipinos ante los abusos de los encomenderos. Su interés por la evangelización de China le llevó a formular un proyecto para la conquista de este imperio. Rada fue autor además de un valioso relato sobre su viaje a China en 1575.



# BIZKAIKO GOLKOKO ITSASONTZIAK PAZIFIKOAREN KONKISTAN

José Luis Casado Soto

*Kantabrikoko Itsas Museoa*

1513ko irailaren 25ean Vasco Núñez de Balboak, hirurogeita zazpi lagunen buru, geroago Panamako istmo esango ziotena zeharkatzeko bidaia osatu zuen. Europarrek, lehen aldiz, parez pare ikus zezaketen Hegoaldeko Itsaso izenaz bataiatu zuten ozeano mugagabea.

Hura balentria izugarri baten hasiera izan zen. Izan ere gizon talde txiki bat, geografia itzel eta ezezaguna menderatzeko ahaleginean, prest zegoen bizia jokoan jartzeko. Aurkikuntzen mendean zehar, espainiarrek oso espedizio kopuru aipagarria prestatu zuten Ozeano Bare edo Pazifikoko kostalde eta barnealdeak esploratzeko, eta horietan bi multzo osa ditzakegu, batetik jarriz Amerikaren mendebaldeko aldea ezagutzea xede zutenak eta bestetik Ekialde Urruna esploratzea eta, ostean, espainiarren presentzia sendotu eta finkatzea zutenak; azken hauei dagokienez, oso kontu garrantzitsua izan zen “Sartaldetiko itzulera” aurkitzea.

Batzuk zein besteak hispaniarrek penintsulan zein Amerika aldeko kostaldeetan ekidatutako ontzietan esker gauzatu ahal izan ziren. Ontzi hauei, igaro zituzten gorabeheri eta ekidatzaile edo eraikitzailei berei eskainiko dizkiegu ondoren datozen lerroak.

## Amerikako Pazifikoaren kostaldearen esplorazioa

Amerikako Pazifiko aldeko kostaldea esploratzeko lehen espedizioak Núñez de Balboak berak eta Dariengo gobernadore Pedrarias Dávila abiarazi zituzten, iparrerantz lehenak eta hegoalderantz bigarrenak. Dávila Santa María la Antigua eta Achako portuak prestatu zituen, Atlantikoan biak, beharrezko zur guztia eskuratu ahal izateko tokitzat; gero, lehorrez eta ibaiak baliatuta, bestaldeko itsasertzearaino eramango zuten.

Urte batzuk geroago Gil González de Ávila eta Andrés Niñok jardungo zuten espedizio horietan, eta 1522 eta 1525 bitartean kostalde osoa igaroko zuten iparrerantz, Tehuantepeceko golkoraino, Nikaragua aintzira barne. Cortés eta honen ondorengo Antonio de Mendoza erregeordea izango ziren, ordea, 1532-1542 bitarteko hamarkadan zehar espedizio sorta luzea bultzatuko zutenak, Mexikoko kostaldeen iparrerantz joateko. Eta hauen guztien emaitza Acapulcotik Colorado ibairainoko zatien geografia ezagutzea izan zen, eta Kalifornia Behereko kostaldekora Cedros uharteraino halaber. Diego Hurtado de Mendozak María uharteak aztertu zituen 1532an; Diego Becerra eta Hernando de Grijalva Santa Cruzeko portuan (gaur egungo La Pazekoan) aingura botatzera iritsi ziren, eta Revillagigedo uharteak aurkitu zituzten 1533an; eta Hernán Cortésekin berak bere izena daraman golkoaren zati bat zeharkatu zuen 1535ean. Hala eta guztiz, espediziorik ausarten eta arriskutsuena Joan Rodríguez Cabrillo kapitain zeramana izan zen; hau, 1542an, Jaliscoko Navidad portutik itsasoratu zen, eta Monterreyko badia heldu zen, San Frantziskotik iparrera. Hango haizeek, baina, atzera San Miguel uharterantz joanarazi zuten, Santa Bárbarako kanalera, eta bertan hil zen kapitaina 1543an. Pilotu nagusiak, Bartolomé Ferrero zen, agintea hartu eta berriro iparrerantz jo zuelarik, erregeordearen oroimenez Mendocino izena eman zion lurmuturra igarotzera iritsi zen.

# BARCOS CANTÁBRICOS EN LA CONQUISTA DEL PACÍFICO

José Luis Casado Soto

*Museo Marítimo del Cantábrico*

El 25 de septiembre del año 1513 Vasco Núñez de Balboa, al frente de sesenta y siete compañeros, culminaba la travesía de lo que más tarde se llamaría istmo de Panamá; aparecía por primera vez ante ojos europeos el horizonte infinito de aguas al que bautizaron con el nombre de Mar del Sur.

Aquello fue el comienzo de un esfuerzo extraordinario, llevado a cabo por un puñado de hombres dispuestos a jugarse la vida en el empeño de dominar una geografía inmensa y desconocida. El muy considerable número de expediciones de exploración por las costas y el seno del Pacífico que apostaron los españoles en el siglo de los descubrimientos puede agruparse en dos conjuntos, las que tuvieron como finalidad el conocimiento de la fachada occidental de las Américas y las dedicadas a explorar, asentar y consolidar la presencia española en el extremo Oriente, en que no fue asunto menor el hallar la llamada “Vuelta de Poniente”.

Tanto unas como otras fueron empresas posibles gracias a los barcos construidos por los hispanos, tanto en la península como en las riberas americanas. A estos buques, sus peripecias y constructores dedicamos las líneas que siguen.

## Exploración del litoral pacífico americano


Las primeras expediciones de exploración de las costas pacíficas de América las emprendió el mismo Núñez de Balboa hacia el Norte y el gobernador del Darien, Pedrarias Dávila, hacia el Sur; este último habilitó los puertos de Santa María la Antigua y Acha, en el Atlántico, como centros para la obtención de la necesaria madera, que transportaron por tierras y ríos hasta las riberas del otro mar.

Unos años más tarde serían Gil González de Ávila y Andrés Niño quienes, entre 1522 y 1525, habían de

reconocer toda la costa hacia el Norte, hasta el golfo de Tehuantepec, incluido el lago de Nicaragua. Pero fueron Cortés y su sucesor, el virrey Antonio de Mendoza, quienes, durante la década 1532-1542, habían de auspicar toda una serie de expediciones desde las costas mexicanas hacia el Septentrión, cuyo resultado fue el conocimiento geográfico desde Acapulco al río Colorado y las costas de la Baja California hasta la isla de los Cedros. Diego Hurtado de Mendoza reconoció las islas Marías en 1532; Diego Becerra y Hernando de Grijalva llegaron a fondear en el puerto de Santa Cruz (hoy de la Paz) y descubrieron las islas de Revillagigedo en 1533, mientras que el mismo Hernán Cortés recorrería parte del golfo de su nombre en 1535. No obstante, la expedición más atrevida y arriesgada fue la capitaneada por Juan Rodríguez Cabrillo, quien zarpó en 1542 del Puerto de la Navidad (Jalisco) y llegó a la bahía de Monterrey, más al Norte de San Francisco. Los vientos desatados le obligaron a retroceder a la isla de San Miguel, en el canal de Santa Bárbara, donde falleció en 1543. Su piloto mayor, Bartolomé Ferrello, asumió el mando enfilando de nuevo al Norte, hasta sobrepasar el cabo al que llamó Mendocino, en memoria del virrey.

El gobernador Pedrarias organizó expediciones hacia el Sur, como la de Pascual de Andagoya por las costas de la actual Colombia, quien remontó el río San Juan en 1522, recogiendo deslumbrantes noticias sobre las riquezas de los incas. Poco después, entre 1524 y 1532, Francisco Pizarro, Diego de Almagro y Hernando de Luque, vecinos de Panamá, habían de emprender por tierra desde Tumbes la conquista del Imperio Inca.

Sin embargo, el reconocimiento total de las costas de América del Sur desde la mar no se consumaría hasta la segunda mitad del siglo XVI. La corriente de Humboldt y los vientos dominantes de componente



Kantabriar ontzia, 1529ko ingeles xilografía baten arabera. J. L. Casadoren kalkoa.

Naio cantábrica según xilografía inglesa de 1529. Calco de J. L. Casado.



Pedrarias gobernadoreak hainbat espedizio antolatu zituen hegoalderantz, Paskoal Andagoiarena esaterako egungo Kolonbiako kostaldeetan zehar; Andagoia San Juan ibaian gora joan zen 1522an, eta inken aberastasunei buruzko berri liluragarriak jaso zituen. Geroxeago, 1524 eta 1532 bitartean, Francisco Pizarro, Diego de Almagro eta Hernando de Luque, Panamako auzoak hauek, Inken Inperioaren konkistan abiatuko ziren Tumbesetik, lehorreko bidea hartuta.

Alabaina, XVI. mendearen bigarren erdialdea arte ez zen osatuko Hego Amerikako kostaldeak itsasotik aztertzekeo prozesua. Humboldtten itsaslasterrak eta hego aldetiko haize nagusiek denbora askoan zehar zaildu zituzten Callao eta Valparaíso bitarteko nabigazioak; izan ere, ibilbide horretan alderantzizkoan behar zuten denboraren halako hiru erabili behar izaten zuten. Juan Fernández marinel handiak aurkituko zuen, 1574an, Hegorako nabigazioaren denbora ia-ia erdira murriztea ahalbidetu zuen lehorretik urruneko itsasbidea. San Félix eta San Ambrosio uharteak aurkitu zituen gainera, bere izena darmaten hiru uharteak bezalaxe.

Peruko erregeorde Francisco de Toledok, 1579an, hau da, Drake piratak Valparaíso eta Callaon egindako arpilatzearen hurrengo urtean, Magallaesen Itsasarterako espedizio baten enkargua egin zion Pedro Sarmiento de Gamboa marinel eta kosmografoari, hain zuzen itsasarte hura gotortzearen. Bi ontziz osatutako armada urrian abiatu zen Callaotik, eta Txile hegoaldeko kostaldearen, Itsasartearen eta honen adarren azterketa zehatza egin zuen, beharrezko kartografia lanekin batera.

Aurkikuntza hauen guztien emaitza Amerikako Pazifiko aldeko kostalde osoa Espainiako Koroaren mendean geratzea izan zen, 53°ko hego-paralelotik 42° 30'ko ipar-paraleloraino zehazki.

Nabigazio hauetarako behar ziren ontziak bi multzotan bil daitezke: batetik lauak zeuden, batez ere arraun bidezko propulsioa zutenak berak, eta bestetik sabel handiko arraun gabeak. Garai hartako kronika eta dokumentuetan, lehenei *brigantin* edo *galeoi* esaten zieten, eta kostaldetik hurbileko edo ur kontinentaletan zeharreko nabigaziorako erabiltzen zituzten; bigarrenak, berriz, *nao* gisa aipatzen zituzten eta, geroago, batzuetan baita *galeoi* gisa ere, *ontzi* hitz orokorraz gain betiere, eta hauek ziren itsas zabaleko nabigazioan erabiltzen zituztenak.

## Pazifiko mugagabea itsasontzien mendean

Kolon buru zuten ontzi hispaniarrek egun Amerika esaten diogun kontinentea kasualitatez aurkitu ondoren, izan ere aurkikuntzaren espedizioaren helburua mendebaldetik Asiara iristea zen, hamaika urte itxaron beharko zituzten ustekabez aurkitu lur berri haiek jartzen zuten oztopo amaigabearen atzean zer zegoen ikusten hasteko.

Balboa Hegoaldeko Itsasora heldu eta sei urtera zehazki, Sanlúcar de Barramedatik sei ontzi itsasoratu ziren. Bizkaiko Golkoaren ekialdean egindako ontziak ziren, eta berrehun eta hirurogeita bost gizon zeramatzen tripulazio gisa, espezieen uharte mitikoetara mendebaldetik zehar iristeko Kolonen helburua lortzeko ahaleginetan berriro ere; oraingoan, baina, espedizionarioek oso ongi zekiten horretarako gainditu egin beharko zutela, ezinbestean, Amerikako Mundu Berriak jartzen zien hesi izugarria.

Hesi mugagabearen hegoaldeko muturretik igarotzeko pasabidea aurkitu ondoren, Amerikaren Atlantiko aldeko kostaldeak esploratu zituzten aurretiko esplorazio segidakoek zabalduetako itsasbideetatik haratago joz, eta Koroaren berriazko agindua zutela ikusten zuten guztia kokatzeko eta kartografiaz jasotzeko, 1520ko azaroaren 27an itsaso zabal eta barea ikusi zuten; horrexegatik, hain zuzen, Ozeano Bare edo Pazifikoa deitu izana. Espedizio bost ontzi ipartarretatik (*Trinidad* kapitana, 110 upeleko edukia zuena; *San Antonio*, 120koa; *Concepción*, 90ekoa; *Victoria*, 85ekoa eta *Santiago*, 75ekoa)

Sur dificultaron durante mucho tiempo las navegaciones entre El Callao y Valparaíso, en cuyo recorrido invertían más de tres veces el tiempo que requería la navegación en sentido contrario. Fue el destacado marino Juan Fernández quien descubrió en 1574 la derrota alejada de tierra que permitió reducir a poco más de la mitad el tiempo de navegación al Sur. También descubrió las islas de San Félix y San Ambrosio, así como las tres que llevan su nombre.

El virrey de Perú Francisco de Toledo encargó en 1579, al año siguiente de la depredación del pirata Drake en Valparaíso y El Callao, al marino y cosmógrafo Pedro Sarmiento de Gamboa una expedición al Estrecho de Magallanes, a fin de fortificarlo. La armada de dos naos zarpó de El Callao en octubre y realizó un minucioso reconocimiento de la costa sur de Chile y del Estrecho y sus derivaciones, con los correspondientes levantamientos cartográficos.

Todos estos descubrimientos supusieron la incorporación a la Corona de España de toda la costa pacífica americana, desde el paralelo 53° Sur hasta el 42° 30 Norte.

Los tipos de barcos requeridos para estas navegaciones pueden agruparse en dos conjuntos, los rasos, de propulsión preferente a remo, y los mancos de alta borda. Los primeros suelen denominarse en las crónicas y documentación de la época “bergantines” o “galeones”, y se utilizaban para navegaciones costeras o por aguas continentales; los segundos, aparecen consignados como “naos” y, más tardíamente, también a veces como “galeones”, además del genérico “navío”, y eran los destinados a las navegaciones de altura.

### El dominio naval de la inmensidad pacífica

Una vez encontrados por azar los continentes que hoy llamamos América mediante los barcos hispanos capitaneados por Colón, ya que la expedición descubridora a donde pretendía llegar era a Asia por Occidente, hubo que esperar once años para comenzar a ver lo que había detrás del interminable obstáculo de las insospechadas nuevas tierras.


Exactamente seis años más tarde de cuando Balboa se asomara al Mar del Sur, zarpaban de Sanlúcar

de Barrameda cinco naves, construidas en el Cantábrico oriental y tripuladas por doscientos sesenta y cinco hombres, con la idea de persistir en el objetivo colombino de llegar a las míticas islas de las especias por Occidente; pero esta vez los expedicionarios eran muy conscientes de que antes debían superar la gigantesca barrera del Nuevo Mundo americano.

Una vez hallado el paso por el extremo meridional de la interminable barrera, yendo más allá de las rutas abiertas por las incesantes exploraciones previas, que habían explorado las costas de la América atlántica en sucesivas expediciones, con la orden expresa de la Corona de situar y cartografiar cuanto vieran, el 27 de noviembre de 1520 contemplaron el anchuroso y calmado mar al que, por eso mismo, llamaron Pacífico. De las cinco naves norteñas de la expedición (la capitana *Trinidad*, que arqueaba 110 toneladas; la *San Antonio*, 120; la *Concepción*, 90; la *Victoria*, 85 y la *Santiago*, 75) solamente tres penetraron en el inmenso océano, ya que la *Santiago* se perdió en los acantilados de Santa Cruz y la *San Antonio* desertó antes de la travesía del estrecho.

Tras recorrer más de 13.000 millas y haber perdido gran número de hombres, tanto por lo penoso de las navegaciones como por culpa de la nueva enfermedad por avitaminosis, el escorbuto, que diezmo las tripulaciones, Magallanes fue muerto por los indígenas en Cebú el 27 de abril de 1521. Tantas fueron las pérdidas de vidas sufridas por la expedición que acordaron quemar la nave *Concepción*, a fin de concentrar los brazos disponibles para tripular la *Trinidad* y la *Victoria*, al mando esta última del vascongado Juan Sebastián Elcano, quien con su barco y 18 hombres sería el único que lograra culminar la epopeya de dar la primera vuelta al mundo, después de atravesar todo el océano Pacífico, pasar por el cabo de Buena Esperanza y remontar la totalidad del continente africano.

El 6 de septiembre de 1522 arribaba la *Victoria* a Sanlúcar de Barrameda, de donde había salido tres años



Kantabriar ontzia, Diego García de Ribero 1532an irudikatua.

J. L. Casadoren kalkoa.

Ontzigtntza zen Aro Modernoko abangoardia teknologikorik sofistikatuena eta konplexuena. Hispaniar monarkiak XVI. mendean zehar Indietako Ibilian edo Atlantikoa eta Pazifikoa esploratzeko eta konkistatzeko espedizioetan erabilitako ontzi gehienak Bizkaiko Golkoaren ekialdean (Gipuzkoa, Bizkaia, Kantabria) egin zituzten. Bertako ontzioletatik ateratzen ziren itsasontziak sendoak, estankoak eta maniobragarriak ziren, eta ongi egokitzen zitzaizkion ozeanoan zeharreko nabigazioari.

Nao cantábrica según Diego García de Ribero en 1532. Calco de J. L. Casado.

La construcción naval constituía la vanguardia tecnológica más sofisticada y compleja de la Edad Moderna. La mayor parte de las naves empleadas por la monarquía hispana en la Carrera de Indias o en las expediciones de exploración y conquista en el Atlántico y el Pacífico durante el siglo XVI fueron construidas en el Cantábrico oriental (Gipuzkoa, Bizkaia, Cantabria). Las naos que salían de sus gradas eran embarcaciones sólidas, estancas y maniobreras que se adaptaban bien a la navegación oceánica.



hiru besterik ez ziren sartu ozeano itzelean, zeren eta *Santiago* ontzia Santa Cruzeko itsaslabarretan galdu zen, eta *San Antoniok*, berriz, desertatu egin zuen itsasarte zeharkatu aurretik.

13.000 miliatik gora egin eta gizon pila handia galdu eta gero, nabigazioaren latzak zein tripulazioan sarraskia eragin zuen abitaminosi gaitz berriak, eskorbutoak alegia, eraman baitzituzten, indigenek Magallaes hil zuten, Cebun, 1521eko apirilaren 27an. Espedizioko kideen artean hildakoak hainbeste izanik, *Concepción* ontzia erretzea erabaki zuten, hain zuzen lanerako moduan zeudenak *Trinidad* eta *Victoria* ontziak tripulatzeko biltzearren; azken honen agintean Joan Sebastian Elkano euskalduna zihoan, eta bera izango zen bere ontziaz eta 18 gizonen lehen mundu bira egiteko epopeia osatuko zuen bakarra, Ozeano Pazifiko osoa zeharkatu, Esperantza Oneko lurmuturretik igaro eta Afrikako kontinentea hegotik iparrera osorik pasatu eta gero.

1522ko irailaren 6an *Victoria* ontzia Sanlúcar de Barramedara iritsi zen, bertatik atera zenetik hiru urte osatzeko hamalau egun besterik falta ez zirela. Hiru hamarkada besterik ez ziren igaro Kolonek, la Cosak, Pinzón anaiek eta Niñok Amerika aurkitu zutenetik, Lur planetaren benetako neurriak, estalgarri dituen ur-masen itzela eta hauetatik gora ateratzen diren mundu zahar eta berrien neurri izugarriak enpirikoki ezagutzea lortu zuten arte.

Inaugurazio bidaia hura beste askoren aurretikoa besterik ez zen izango, XVI. mendean zehar norabide orotan ibiliko baitziren ozeanoetan handienez barrena, itsasbideak aurkitzen eta kostaldeak, uhartediak eta uharteak kokatzen ur eremu izugarriaren erdian; kontu egizue, honi "espainiar laku" esatera heldu ziren, XVII. mendea arte espainiarrak izan zirelako bertan ibili ziren nabigatzaile bakarrak, pirata ingeles baten eraso berankor eta bakarraren salbuespenaz.

Elkano heldu baino lehen Karlos enperadoreak, espedizionarioen berririk ez zuela eta kezkatu, Andrés Niño bidali zuen 1520ko irailean, Bizkaiko Golkoko 150na upeleko hiru ontziz eta brigantin batez, gertatzen ari zenaren berri izatearren. Panamako istmora heldu eta ontziak ibaiak, zingirak eta lehorra bera igaroz eraman zituzten, Hegoaldeko Itsasoan atzera uretaratu zituzten arte. Armada hau Panamako kostaldean ekidatutako lau ontzi txikiz osatu zuten, eta 1521eko hasieran mendebalderantz abiatu ziren guztiak; aurrerantzean ez zen, baina, hauen batere berririk izan.

Elkano eta honen gizonen itzuleratik bi hilabete besterik igaroak ez zirela, enperadoreak kapitulazioak sinatu zituen frai Garcia Jofre de Loaysarekin; hauen indarrez, Loaysak konpromisoa hartzen zuen berriro ere Espezieen Uharteetarantz abiatuko zen armada berri bat antolatzeke, Elkano izanik pilotu nagusi. Oraingoan ontziak ez zituzten, baina, erosiko, berariaz egin baizik Bizkaiko Golkoan, eta guztira zazpi izango ziren. Moluketan espainiar gobernazioa ezarri behar zuen armada ekidatzeko eta hornitzeko lan hauetan ia-ia hiru urte emango zituzten. Ontzi kapitana, *Santa María de la Victoria* zen, 300 upeleko edukiera zuen; *San Gabriele* 130ekoa; *Santiago* patatxe edo galeoiak 50ekoa; *Sancti Spiritusek* 200ekoa; *Amunciadak* 170ekoa; *Santa María del Parralek* 80koa, eta *San Lesmesek* 80koa. Azkeneko laurak Elkanoren agindupean zeuden. Eta espedizionarioak, guztira, 450 gizon ziren.

1525eko abuztuaren 24an Coruñaetik abiatu ziren eta, Andres Urdaneta tripulatzaile gazteak egin dako kontakizunaren arabera, Gomeratik hasi ziren Atlantikoa zeharkatzen; hurrengo urteko urtarrilaren 25ean heldu ziren Magallaes Itsasarteko kostaldera. Ekaitz eta zoritxarrez beteriko lau hilabeteren ostean pasabide arriskutsua zeharkatu zuten, baina zazpi ontzietatik hiru galdu zituzten tartean. Eta ozeanoetan handienez zeharreko nabigazioari ekin zioten lauretatik, kapitana besterik ez zen iritsiko, *Santa María de la Victoria* alegia, Moluketako Tidoreko portura, urtebete geroago iritsi ere, ehun eta hogei gizon zeramatzala; 1527ko urtarrilaren 1ean izan zen. Horiexek ziren gose, heriotza, matxura, sakabanatze eta ekaitzek eragin material galera gisa fortunatutako zorigailtz eta kalamitate amaigabetatik eta laguneren heriotza asko eta askoren ondotik bizirik ateratako bakarrak. Loaysa bera aurreko urteko uztailaren 20an hil zen, eta Elkanok ordezkatu zuen espedizioko buru gisa, baina hau ere handik

menos catorce días antes. Solamente habían transcurrido tres décadas desde que Colón, la Cosa, los Pinzones y Niño descubrieran América, cuando se lograba empíricamente comprender las verdaderas dimensiones del planeta Tierra, la inmensidad de las masas de agua que lo cubren y las enormes dimensiones de los viejos y nuevos mundos que de ellas emergen.

Aquel viaje inaugural no sería sino el preludio de otros muchos que a lo largo del siglo XVI surcaron el mayor de los océanos en todas direcciones, descubriendo rutas, situando costas, archipiélagos e islas en medio de la inmensidad que llegó a ser denominada el “lago español”, ya que españoles eran los únicos navegantes que por sus aguas transitaban hasta el siglo XVII, salvo la tardía y solitaria incursión de un pirata inglés.

Antes de la llegada de Elcano, preocupado el emperador Carlos por la ausencia de noticias de los expedicionarios, mandó en septiembre de 1520 a Andrés Niño con tres naves cantábricas de 150 toneladas cada una y un bergantín para saber qué pasaba. Llegados al istmo de Panamá, cruzaron los barcos por ríos, pantanos y tierra hasta depositarlos en el Mar del Sur. Reforzada la armada con cuatro embarcaciones menores más, éstas construidas en las costas panameñas, zarparon rumbo al Oeste a principios de 1521, para no saberse nunca más de su suerte.

Apenas habían transcurrido dos meses desde el regreso de Elcano y sus hombres, cuando el Emperador firmaba capitulaciones con frey García Jofre de Loaysa, por las que éste se comprometía a organizar una nueva armada que, con Elcano de Piloto Mayor, había de partir de nuevo hacia la Especiería. En esta ocasión los barcos no fueron comprados sino construidos *ex profeso* en el Cantábrico para la expedición, en número de siete. Casi tres años llevó la construcción y el apresto de la armada que debía establecer la gobernación española en “las islas del Moluco”. La capitana, *Santa María de la Victoria*, arqueaba 300 toneles; la *San Gabriel*, 130; el patache o galeón *Santiago*, 50; la *Sancti Spiritus*, 200; la *Anunciada*, 170; la *Santa María del Parral*, 80; y la *San Lesmes*, 80. Las cuatro últimas iban a las órdenes de Elcano. En total sumaban los expedicionarios 450 hombres.

El 24 de agosto de 1525 zarparon de La Coruña y, según la relación confeccionada por el joven tri-

pulante Andrés de Urdaneta, afrontaron la travesía del Atlántico desde la Gomera para llegar a las costas del Estrecho de Magallanes el 25 de enero del año siguiente. Cuatro meses de tempestades e infortunios les llevó atravesar el peligroso paso, habiendo perdido en el trance tres de las siete naves. De las cuatro que emprendieron la navegación del mayor de los océanos, únicamente la capitana, *Santa María de la Victoria*, lograría arribar al puerto de Tidore en las Molucas un año más tarde, con ciento veinte hombres a bordo; cosa que ocurrió el 1 de enero de 1527. Eran los supervivientes de un sin fin de calamidades en forma de hambre, enfermedades, averías, dispersiones, pérdida de material en tempestades y muchas muertes de compañeros. El 20 de julio del año anterior había perecido Loaysa, sustituido al mando de la expedición por Elcano, quien fallecería cinco días más tarde, tras firmar un patético testamento conservado en el Archivo General de Indias. Después de explorar diversos archipiélagos y sufrir violentos encuentros con los portugueses, se instalaron en las Molucas, resistiendo bravamente durante ocho años los ataques lusos, circunstancias en las que Urdaneta desempeñó un papel destacado, reparando la nao y construyendo embarcaciones menores. Enterados de la venta de las Molucas a Portugal por el Emperador, mediante el Tratado de Zaragoza, negociaron con los hasta entonces sus enemigos el regreso a España. El larguísimo y complicado viaje concluyó en Lisboa mediado el año

Arabako Fontechako parrokian San Nikolas Barikoaren erretaulan irudikatutako ontzia. Ortega de Córdoba eta Diego Guillén burgostarrek zizelkatu zuten 1539 inguruan. Elizbarrutiko Arte Sakratuaren Museoko gordailua, Gasteiz.

Erliebeak San Nikolas erakusten digu, hondoratzeaz dagoen ontzi bat salbatzen ari dela. Kondairaren arabera, marinelek San Nikolasi egin zioten erregu, eta hau agertu eta urak baretu egin zituen.

Nao representada en el retablo de San Nicolás de Bari de la parroquia de Fontecha (Álava). Fue esculpida por los burgaleses Ortega de Córdoba y Diego Guillén hacia 1539. Depósito Museo Diocesano de Arte Sacro, Vitoria.

El relieve representa a San Nicolás salvando a una nave de un naufragio inminente. Según la leyenda, los marineros invocaron a San Nicolás y éste apareció calmando las aguas.





bost egunera hilko zen, Indietako Agiritegi Orokorrean gordetako testamentu lazgarri bat izenpetu eta gero. Uhartedi batzuk esploratu eta portugesezko topaketa bortitz batzuen ondoren Moluketan finkatu ziren, eta zortzi urtez adoretu eutsi zieten haien erasoei; zertzelada horietan Urdanetak oso eginkizun garrantzitsua bete zuen, ontzia konpontzeko eta ontzi txikiagoak ekidatzeko lanetan. Zaragozako Itunaren bidez enperadoreak Molukak Portugali salduak zizkiola jakin zutelarik, ordura arte etsai zituztenekin negoziatu zuten Espainiarako itzulera. Bidaia luze eta ezin zailagoa Lisboan amaitu zen, 1536ko urtearen erdialdean, eta han Urdanetari kendu egin zizkieten liburu, kontakizun eta dokumentu guztiak, Erregek berak aginduta; honek ez zion, baina, batere baliorik kenduko bizirik heldutako beste zazpi espainiarrekin batera, eta guztira hamar urte eman zuen abenturaz, munduko bira egindako bigarren gizona izateari.

Espezieen Uhartetarako hurrengo espedizioaren ardura Joan Caboto pilotu italiarrari emango zion enperadoreak; Caboto Espainiaren zerbitzupuan ari zen, Sevillako Kontratazio Etxean. Armada hau ere Coruñatik abiatu zen, 1526ko apirilaren hasieran, Bizkaiko Golkoko hiru *nao* eta karabela bat zituela osagai, eta Magallaesen itsasbideari segitzeko aginduaz. Hala eta guztiz, Cabotok hiru urte eman zituen Río de la Plata esploratzeko lanetan, espedizioaren helburua betetzeke alegia. Horregatik, penintsulara itzuli zenean auzipetu eta obedientziarik ezaren errudun deklaratu zuten, baina Karlos erregeak barkatu eta pilotu nagusi kargua eman zion atzera. Italiarra, baina, berehala igaro zen Ingalaterrako Eduardo VI.aren zerbitzura, honek, Mundu Berrien gaineko monopolio penintsularra hausteko ahaleginetan, diru eskaintza erakargarria egin orduko.

Lehentxeago baina, Karlos enperadoreak jakin zuelarik Hernán Cortés Nueva Españan ontziak egiten ari zela Amerikako Pazifikoko kostaldeak iparrerantz esploratzeko, Loaysa eta Cabotoren espedizioen nondik norakoa argitzeko erabil zitzala agindu zion. Konkistatzaileak, horretarako, bere lehengusu Álvaro de Saavedra kapitain izendatu zuten, 1527ko urriaren 31n Zihuazanejoko portutik mendebalderantz abiatu zen hiru ontzi eta ehun gizonez osatutako armadan. Ontzietako bi abenduaren 15ean banandu ziren, eta ez zen horien inolako berririk izan aurrerantzean. Saavedrak bidaian jarraitu zuen *Florida* ontzian, eta 1528ko otsailaren hasieran Mindanaora heldu zen; eta martxoaren 30ean Tidoren sartu zelarik bertan aurkitu zuen Hernando de la Torre, Loaysaren espedizioeko azken kapitaina, eta armaz eta hornigaiz lagundu zion. Espeziak beterik, *Florida* ontzia ekainaren 12an abiatu zen Amerikarantz, hegoalderagoko itsasbide bat hartuz, baina azaroaren 19an Tidorera itzuli behar izan zuen, aurrez aurre zituen haizeen kontrako nabigazio egun latzen ondotik; dena den, trantze honetan hainbat uhartedi aurkitu zuten. Itsasontzia berriro konponduta, Saavedrak Pazifikoan zeharreko bere hiru garren bidaiari ekin zion 1529ko maiatzean, baina ibilaldi horretan heriotza topatuko zuen Hawaii uharteetatik hurbil. Beste gizonak aurrera egiten saiatu ziren, baina itsaslasterrak eta haizeak kontra zituztela Tidorera itzuli behar izan zuten; han azkeneko hogeita bi espedizionarioek Loaysaren bidaiatik gertatzen zirenekin partekatu zuten fortunatutako atarramentu latz hura.

Hernán Cortés, Saavedraren espedizio zapuztuarekin gustura ez zegoela noski, Francisco Pizarroren eskariari erantzun zion, honek ontziak nahi zituen eta Hego Pazifikoa esploratzeko ahaleginerako; eta *Trinidad* ontzia bidali zion, Fernando de Alvarado zela buru, eta *Santiago*, Hernando de Grijalva kapitainarekin. Lehena, Galapago uharteak ikusi ondoren, Mexikora itzuli zen. Grijalva, ostean, Peruko Paitako portura heldu zen, eta bertan onartu egin zuen Pizarrok emandako eginkizuna, eta handik mendebalderantz abiatu zen, ekuatore-lerroan aurrera, 1537ko apirilean. Hala, 2.700 miliako nabigazioaren ostean, Christmas uhartera ailegatu zen, eta beste mila milia igarota Gilbert uharteetara. Aurrera segitzeko erabakia hartu zuenean, tripulazio gosetua matxinatu egin zitzaion, eta hil egin zuten. Besteek Ginea Berriraino jarraitu zuten, eta han aborigenek preso hartu zituzten. Bi urte geroago, Moluketako gobernadore portugesak bizirik geratzen ziren azkeneko zazpiak erreskatatzea lortu zuen.

1536, donde a Urdaneta le confiscaron por orden del rey, todos los libros, relaciones y documentos que portaba, lo que no restó nada de la gloria al hecho de haber sido el segundo hombre en dar la vuelta al mundo con otros siete españoles supervivientes; aventura en la que habían invertido diez años.


Fue al piloto italiano Juan Caboto, al servicio de España en la Casa de Contratación de Sevilla, a quien le encomendó el Emperador la siguiente expedición a la Especiería. La armada zarpó también de La Coruña a comienzos de abril de 1526 compuesta por tres naos y una carabela cantábricas, con la orden de seguir la ruta de Magallanes. No obstante, Caboto dedicó tres años a explorar el Río de la Plata, incumpliendo el objetivo de la expedición, por lo que a su regreso a la península sería procesado y declarado culpable de inobediencia, aunque el rey Carlos le perdonó y repuso en su cargo de Piloto Mayor. Ello no fue obstáculo para que el italiano pasara pronto al servicio de Eduardo VI de Inglaterra, cuando éste le hizo una tentadora oferta económica, en su pretensión de romper el monopolio peninsular sobre los Nuevos Mundos.

Un poco antes, enterado el emperador Carlos de que Hernán Cortés estaba construyendo barcos en Nueva España para explorar las costas del Pacífico americano hacia el Norte, le ordenó en 1526 que los dedicara a saber del destino de las expediciones de Loaysa y Caboto. Para ello nombró al conquistador a su primo, Álvaro de Saavedra, capitán de la armada formada por tres navíos y cien hombres, que zarpó del puerto de Zihuanajejo el 31 de octubre de 1527 rumbo al Oeste. Dos de los navíos se separaron el 15 de diciembre y no se volvió a saber más de ellos ni de sus hombres. Prosiguió el viaje Saavedra a bordo de la *Florida* hasta llegar a Mindanao, a comienzos de febrero de 1528, y entrar en Tidore el 30 de marzo, donde encontró a Hernando de la Torre, último capitán de la expedición de Loaysa, al que auxilió con armas y vitualla. Cargada de especias partió la *Florida* el 12 de junio de vuelta para América por una ruta más meridional, pero se vio obligada a regresar a Tidore el 19 de noviembre, tras duras navegaciones con vientos encontrados, no sin haber descubierto nuevos archipiélagos. Reparado otra vez el barco, emprendió Sa-

avedra su tercer viaje por el Pacífico en mayo de 1529, jornada en que encontraría la muerte cerca de las islas Hawai. Sus hombres intentaron proseguir, pero la naturaleza contraria de las corrientes y de los vientos les forzaron a volver a Tidore, donde los veintidós últimos expedicionarios compartieron su desgraciada suerte con los que restaban de la empresa de Loaysa.

Hernán Cortés, insatisfecho por la fracasada expedición de Saavedra, atendió el requerimiento de Francisco Pizarro, que le había pedido barcos para el intento de explorar el Pacífico Sur, enviándole la *Trinidad*, al mando de Fernando de Alvarado, y la *Santiago*, capitaneada por Hernando de Grijalva. La primera, tras avistar las Galápagos, regresó a Méjico; Grijalva llegó al puerto peruano de Paita, donde aceptó la misión encomendada por Pizarro y zarpó de allí rumbo al Oeste por la línea ecuatorial, en abril de 1537. Tras una navegación de 2.700 millas llegó a la isla Christmas y, mil millas más allá, a las Gilbert. Decidido a seguir adelante, la hambrienta tripulación se amotinó y lo mató. Los demás continuaron hasta Nueva Guinea donde fueron capturados por los aborígenes. Dos años más tarde el gobernador portugués de las Molucas lograba rescatar a los siete últimos supervivientes.

A pesar de la renuncia a las Molucas del emperador Carlos V, en 1529 por el Tratado de Zaragoza, dada la imprecisión con que se percibía entonces la línea de demarcación establecida en el Tratado de Tordesillas, el virrey Mendoza organizó el año 1542 una armada de dos naos, dos galeras y un patache, construidos en las costas mejicanas, que zarpó del



Kantabriar ontzia, 1548ko xilografia flamenko baten arabera. J. L. Casadoren kalkoa.

Naio cantábrica segun xilografia flamenca de 1548. Calco de J. L. Casado.




Karlos V.a enperadoreak Molukak eskuratzeko aukerari uko egin bazion ere 1529an Zaragozako Itunaren indarrez, Tordesillasko Itunean ezarritako muga-lerroa jarraitzeko unean orduan gertatzen zen zehaztasun falta zela eta Mendoza erregeordeak bi *nao*, bi galera eta patatxe batez osatutako armada bat antolatu zuen 1542an; hauek Mexikoko kostaldean egin zituzten, eta azaroaren 1ean itsasoratu ziren Navidad portutik. Ozeano Barea zeharkatzera abiatutako bosgarren espedizio honetan Ruy López de Villalobos malagarra zen buru, eta tripulazioan 370 gizon zeramatzan. Hainbat uhartedi aurkitu ondoren Mindanaora heldu ziren 1543ko otsailaren 2an, filipinar uhartediko hainbat uharte esploratu zituzten, eta Sarangán uhartean kolonia bat ezartzeko ahalegina ere egin zuten. 1544ko abuztuaren 26an, kapitainak Bernardo de la Torre bidali zuen Nueva Españara, *San Juan* ontziarekin, hain zuzen esplorazio lanetan segitu ahal izateko gizonak eta laguntza ekar zitzan. Ekaitz eta denborale bortitzek portura itzularazi zuten, sortalderantz 750 legoa nabigatu eta gero. Gosearen eta gizon faltaren eraginez, Villalobosek Tidorera jo beste erremediorik ez zuen izan, eta horrela urratu egin zuen eremu portugesean ez sartzeko agindua. *San Juan* ontzia konpondu, eta 1545eko maiatzaren 16an Mexikoko kostaldera itzultzeko beste ahalegin bati ekin zion; bidaia honetan formalki jabetu zen, izendatzeaz gain, 15 urte lehenago Saavedrak aurkitutako Ginea Berriaz. Ekaitzen eraginez atzera, Moluketara itzuli behar izan zuen, eta uhartedi horretako Amboina uhartean zendu zen López de Villalobos, sukarrak paludikoak jota. Bizirik zirenek portugesekin negoziatu zuten penintsulara itzultzeko aukera, ontzien trukean inolaz ere; horrela, 143k lortu egingo zuten munduari hirugarren aldiz bira ematea, 1548an Espainiara itzultzea erdietsi zutenean.

Molukak Portugali laga izanak eta Asiatik Amerikara itzultzeko Ozeano Pazifikoa Espezieen Lurralderantz egindako bidaia guztien norabidearen kontrakoan zeharkatzeko ahaleginek, bost aldiz izandako porrotak 1559 arte atzeratu zuten espedizio proiektu berri bat abian jartzeko aukera; honen helburua, baina, ez zen bakarrik Ekialde Urrunean espainiar kolonizazioa behin betiko finkatzea, baizik eta baita, seigarren aldiz, ordura arte “Sortalderako bidea” edo “Sartaldetiko itzulera” esaten ziotena aurkitzea ere, Asiako kontinente eta uharteetatik Amerikara alegia.

### Sartaldetiko itzulerarako bidea aurkitzea

Honetarako ekimena Nueva Españako bigarren erregeorde Luis Belaskorena izan zen. Honek ia-ia bi hamarkada lehenago fraide agustindar izandako bat proposatu zion Felipe II.ari, Andres Urdaneta alegia, Asiatik Ameriketara itzultzeko bidea aurkitzeko gai izango zen nabigatzaile eta kosmografotzat. Osasunez pattal bazebilen ere, Urdanetak onartu egin zuen erronka, nahiz erregeordea hil zelarik espedizioa urte batzuez atzeratuko zen. Erregeren aginduak betetz, Entzutegiak beharrezko baliabideak jarri zituen fraidea armadaren eraikuntzaz arduraz zedin; eta lan hauek Navidad portuan egingo zituen, hango bertako zuraz eta Bizkaiko Golkotik eramandako burdinariaz. 1564ko azaroaren 21ean portu horretatik itsasoratu zuen armada, hurrenak zituela osagai: *San Pedro* ontzia, 500 upelekoa, *San Pablo*, 300ekoa, *San Juan* eta *San Lucas* patatxeak, 80 eta 40 upelekoak hurrenez hurren, eta brigantin txiki bat, eta hauen guztien buru Migel López de Legazpi kapitain jenerala zihoan. Espedizioak 150 itsasgizon, 200 soldadu eta 5 erlijioso agustindar zituen, eta Filipinak konkistatzeko eta populatzeko agindua zuen, ez baina Ginea Berriko uhartea, Urdanetak hori nahi bazuen ere. Nabigazioan hamar egun eman ostean, *San Lucas* patatxea ontziditik banandu zen, eta bere itsasbidean hainbat uharte aurkitu eta armada baino lehen heldu zen Mindanaora; kanela kargatu eta bera bakarrik iritsi zen Mexikora, nabigazio gogor eta latzeko 109 egunen ostean.

Legazpi eta Urdaneta 1565eko otsailaren 13an iritsi ziren Filipinetara. Ibabao, Samoa eta Leite uharteak ukitu zituzten Cebura heldu aurretik, eta azken honetan San Miguel hiribildua fundatu zuten maia-



*San Pedro* ontzia, Bizkaiko Golkoko materialez eta maisuez eraikia Mexikoko Pazifikoko Navidad portuan; ontzi honekin, Urdanetak Sartaldetik itzultzeko bidea aurkitu zuen 1565ean. José Luis Casadoren estudio eta berregituraketa.

Nao *San Pedro*, construida con materiales y maestranza cantábrica en el puerto pacífico de La Navidad (México), con la que Urdaneta descubrió la ruta de la vuelta de Poniente en 1565. Estudio y reconstrucción José Luis Casado.

puerto de La Navidad el 1 de noviembre. Esta quinta expedición lanzada a cruzar el Océano Pacífico estuvo mandada por el malagueño Ruy López de Villalobos con una tripulación de 370 hombres. Tras descubrir varios archipiélagos arribaron a Mindanao el 2 de febrero de 1543, exploraron diferentes islas del archipiélago filipino e incluso intentaron establecer una colonia en la de Sarangán. El 26 de agosto de 1544 envió el capitán a Bernardo de la Torre con el navío *San Juan* a Nueva España, en busca de hombres y refuerzos para proseguir las exploraciones. Intensas borrascas le obligaron a regresar después de haber navegado hacia levante 750 leguas. Empujado por el hambre y la escasez de hombres, Villalobos se vio forzado a ir a Tidore, trasgrediendo la orden de no penetrar en el ámbito portugués. Reparado el navío *San Juan*, emprendió el 16 de mayo de 1545 un nuevo intento de regresar a las costas mejicanas, en cuya derrota tomó posesión formalmente y dio nombre a Nueva Guinea, descubierta 15 años antes por Saavedra. Otra vez las tempestades le obligaron a regresar a las Molucas, en cuya isla de Amboina falleció López de Villalobos de fiebres palúdicas. Los supervivientes negociaron con los portugueses el regreso a la península a cambio de sus naves, lo que posibilitó que 143


de ellos consiguieran consumir la tercera vuelta al mundo cuando lograron regresar a España en 1548.

La suma de la cesión a Portugal de las Molucas con el hecho de haber fracasado en cinco ocasiones el intento de regresar desde Asia a las Américas atravesando el Océano Pacífico en sentido inverso al de todos los viajes emprendidos hacia el País de la Especiería, aplazó hasta 1559 la puesta en marcha de un nuevo proyecto de expedición destinado, no sólo a lograr el asentamiento definitivo de la colonización española en el Extremo Oriente, sino también a intentar por sexta vez el encontrar lo que hasta entonces llamaban “La ruta al Levante” o “La vuelta de Poniente”, desde el continente e islas asiáticas al americano.

### El descubrimiento de la ruta para “la vuelta de poniente”

La iniciativa partió del segundo virrey de Nueva España, Luis de Velasco, quien propuso a Felipe II a alguien que había profesado como fraile agustino hacia casi dos décadas, Andrés de Urdaneta, como el navegante y cosmógrafo capaz de encontrar el camino de regreso desde Asia a las Américas. A pesar de sus achaques aceptó Urdaneta el desafío, aunque la expe-





Ontzi ozeanikoa, 1565ean datatutako Valentziako portuko kontu-liburu batean. J. L. Casadoren kalkoa.

Nao oceánica en un libro de cuentas del puerto de Valencia fechado en 1565. Calco de J. L. Casado.

tzaren 8an. Beste uharteen konkistan jarraitu baino lehen, Legazpik espedizioaren beste helburua betetzea agindu zion Urdanetari, zera baitzen, Amerikarantz itzultzeko bide segurua bilatzea. Eta horretarako ontzi kapitana laga zion, *San Pedro* ontzia alegia, tripulatzeko beharrezko gizon guztiekin batera.

Urdaneta 1565eko ekainaren 1ean abiatu zen “Sartaldetik itzulera”ren bila. Ipar-ekialderantz jo zuen Japon pare-raino, alisio haizeetatik aparte, eta handik ekialderantz egin zuen Kaliforniako kostaldeetara iritsi arte; orduan, berriz, hegoaldera Acapulcoko portura heltzeko, eta 1565eko urriaren 8an iritsi zen hara, nabigazio etengabea ehun eta hogeita hamar egun eman eta gero. Horrela osatu egin zuen munduko itsasbideen oinarritzko eskema, nabigatzaile iberiarrek, Gizateriaren patua aldatuko zuen epopeia burutuz, zazpi hamarkadatik beherako epean planetan zehar marraztua.

*San Pedro* ontziak, ordura arte Bizkaiko Golkoko maisutza eta teknologiaz Amerikan ekidatutako itsasontzirik handiena bera, posible egin zuen “Txinako ontzia” edo “Manilako

galeoia” esango zioten ibilbide biribila finkatzea. Hurrena Amerika eta Asia arteko nabigazio erregularrak etorriko ziren, oso garrantzi handikoak eta gaur egun osatzen ari den globalizazio unibertsalaren prozesuaren hasierako etapatzat har ditzakegunak berak.

Hori guztia posible egin zuen lanabesa Bizkaiko Golkoaren ekialdeko ontzioletan ekidatutako ontziak izan ziren, edo inguru horretako gizonez eta teknologiaz Amerikako kostaldean eginak bestela.

dición se atrasó algunos años por la muerte del virrey. Cumpliendo las órdenes del Rey, la Audiencia puso los medios para que el fraile se ocupara de la construcción de la armada, lo que hizo en el Puerto de la Navidad con maderas autóctonas y los herrajes traídos desde el Cantábrico. De allí zarparía el 21 de noviembre de 1564, formada por la nao *San Pedro*, de 500 toneles; la *San Pablo*, de 300; los pataches *San Juan*, de 80, y *San Lucas*, de 40, y un pequeño bergantín, todo ello bajo el mando del capitán general Miguel López de Legazpi. Componían la expedición 150 hombres de mar, 200 soldados y 5 religiosos agustinos, con la orden de conquistar y poblar las islas Filipinas y no la de Nueva Guinea, como pretendiera Urdaneta. El patache *San Lucas* se separó de la flota a los diez días; en su derrota descubrió varias islas y llegó a Mindanao antes que la armada; cargó canela y regresó sólo a México tras 109 días de dura navegación.

Legazpi y Urdaneta llegaron a las Filipinas el 13 de febrero de 1565. Tocaron en las islas de Ibabao, Samoa y Leite antes de arribar a Cebú, donde fundaron la villa de San Miguel el 8 de mayo. Antes de proceder a seguir la conquista de las demás islas, Legazpi ordenó a Urdaneta el cumplimiento del otro objetivo de la expedición, es decir, la búsqueda de un camino seguro de retorno hacia América, para lo que le cedió

la nao capitana, *San Pedro*, y los hombres precisos para tripularla.

Fue el 1 de junio 1565, cuando zarpó Urdaneta en busca de “la Vuelta de Poniente”; enfiló rumbo al nordeste hasta la altura de Japón, al margen de los vientos alisios; desde allí viró hacia el este hasta tocar las costas californianas y entonces al sur hasta alcanzar el puerto de Acapulco, donde arribó el 8 de octubre de 1565, tras ciento treinta días de navegación ininterrumpida. Con ello lograba rematar el esquema básico de las rutas marítimas oceánicas universales, dibujadas sobre el planeta por navegantes ibéricos en el transcurso de menos de siete décadas; trascendental epopeya que cambiaría el destino de la Humanidad.

La *San Pedro*, la mayor de las naos construidas hasta entonces en América por maestranza y con tecnología cantábrica, hacía así posible el establecimiento de la ruta redonda que vendría en llamarse de “la Nao de la China” o del “Galeón de Manila”, con lo que se inauguraban las navegaciones regulares entre América y Asia, de enorme trascendencia y etapa primordial del proceso de globalización universal a cuya culminación hoy asistimos.

Fueron barcos construidos en astilleros del Cantábrico oriental, o bien en las costas americanas por hombres y tecnologías procedentes de éste ámbito, el instrumento que hizo todo ello posible.



Galeoi ozeaniko espainiarra 1585 inguruan. J. L. Casadoren kalkoa.

Galeón oceánico español hacia 1585. Calco de J. L. Casado.



# DOMINGO SALAZAR: MANILAKO LEHEN APEZPIKUA ETA FILIPINETAKO AUSTRONESIAR ETA TXINATAR BIZTANLEEN BABESLEA

Manel Ollé

*Pompeu Fabra Unibertsitatea. CSIC*

Oso gauza jakina da euskaldunak aitzindari eta nagusi izan zirela 1565ean Ozeano Pazifikoa zeharkatu eta Filipinar Uharteak konkistatu zituzten nabigatzaileen eta misiolari agustindarren artean. Legazpi eta Urdaneta buru zituen ontzidiko tripulazioan 380 gizon ziren, eta horietatik 200 arma-gizonak eta 150 itsas gizonak; ostean, bost fraide agustindar zeuden, eta besteak zerbitzukoak ziren.

*San Pedro* ontzian, bostehun tonako ontzi hauxe zen 1564ko azaroaren 21ean Jaliscoko (Mexiko) Barra de La Navidad portutik abiatu zen ontzidiko kapitana, Migel Lopez de Legazpi Gurrutxategi –kapitain jeneral mailaz– eta Andres Urdaneta agustindar kosmografoaz gain, beste euskaldun batzuk ere bazihoazen, hala nola Frantzisko Astigarribia, kontramaisua; Martin Ibarra, maisua; Andres Mirandaola, Urdanetaren iloba; Felipe Salcedo, Legazpiren biloba; Martin Goiti, kapitaina; Andres Ibarra, alferiza; eta frai Andres Agirre. Nafar bat ere bazen tartean, misiolari agustindar eta, Urdaneta bezala, kosmografoa zen frai Martin Rada, Txinako lurraldeetan zeharreko enbaxadorea.

*San Pablo* ontzian, hirurehun tona zeuzkan honek, Guido Labezarri zen kapitaina –honen izena era askotan ageri zaigu idatzita, Labezares, Labazaris eta La Basarri gisa–, Migel Lopez de Legazpiren ondorengo izango zena Filipinetako kapitain jeneral karguan 1572tik aurrera, eta frai Pedro Ganboa ere bertan zihotan. Ontzidia osatzeko, galeoi bat eta bi patatxe; ontziotan, dokumentazioan erregistratutako beste euskaldun batzuen artean, honakoak zihozten: Joan Lazkano idazkaria, Pedro Gebara, Amador Arriaga pilotua, Joan Agirre, Joan Zamudio, Pedro Arana, Alberto Orozko, Felipe Salcedo, Luis de la Haya, Joan Goiti, Joan de la Isla, Diego Herrera, Andres Carchela, Martin Ibarra, Esteban Rodríguez eta dagokien zerrendan ageri ez diren beste euskaldun asko eta asko halaber.

Lehen espedizio honetan euskal osagaiak zuen garrantzi kualitatiboaz gain, oso munta handiko beste euskaldun batzuek egingo zuten ondoren Pazifikoko itsasbidea Asia aldeko uhartedi hartarantz –hasieran Sartaldeko Uharteak edo San Lazaroren Uharteak izena eman zieten haiei, eta azkenean garai hartan infantea zen Feliperen, geroko Felipe II.aren, omenez egun duten izena hartuko zuten–. Filipinetako lehen adelantatuak iritsi eta hamabost urtera, Domingo Salazar fraide domingotar arabarra iritsi zen Luzonera. Manilako lehen apezpiku izendatu zuten. Pertsonaia konplexu, kementsu eta erabakigarria izan zen Filipinar kolonia finkatzeko prozesuan eta koloniaren garapenak hartu zuen norabidean, hainbat arlori zegokionez, hala nola bertako biztanleria austronesiarrari eta Manilan instalatutako txinatar merkatarien diaspora komunitate gero eta handiagoari, predikazioari, Manilan hazten ari ziren txinatar merkatarien komunitateekiko tratuari, eta estamentu erlijiosoak Filipinetan zuen protagonismoari lotutako kontuetan.

## Domingo Salazar iberiar penintsulan (1512-1553)

Oso informazio gutxi dago Filipinetako lehen apezpiku Domingo Salazarren bizitzako lehen urteei buruz. Bastidan jaio zen, Araban, baina ez dakigu seguru noiz. Pentsatzekoa da, ordea, 1512 inguruan



Migel Lopez de Legazpi, Cebuko erregearekin odolezko ituna egiteko erritoan erabilitako sastakiairekin. Ceburen historia aipatzen duen eskultura-multzo monumental bateko xehetasuna. Parián Plaza, Cebu. J. M. Unsainen argazkia, 2009.

Miguel López de Legazpi con la daga utilizada en el ritual del pacto de sangre con el rey de Cebú. Detalle de un conjunto escultórico monumental alusivo a la historia de Cebú. Plaza Parián, Cebú. Foto: J. M. Unsain, 2009.

# DOMINGO DE SALAZAR: PRIMER OBISPO DE MANILA Y DEFENSOR DE LOS POBLADORES AUSTRONESIOS Y CHINOS DE FILIPINAS

Manel Ollé

Universidad Pompeu Fabra. CSIC

Es bien conocido el liderazgo y el predominio vasco entre los navegantes y misioneros agustinos que cruzaron el Océano Pacífico y conquistaron las Islas Filipinas en 1565. La tripulación de la flota que lideraban Legazpi y Urdaneta estaba compuesta por 380 hombres, de los cuales 200 eran de armas y 150 de mar, más cinco frailes agustinos; el resto, pertenecían al servicio.

En la nave *San Pedro*, de quinientos toneles, capitana de la flota que partió del puerto mexicano de Barra de La Navidad, Jalisco, el 21 de noviembre de 1564, viajaban además de Miguel López de Legazpi y Gurruchátegui, con el rango de capitán general, y del agustino cosmógrafo Andrés de Urdaneta, los también vascos Francisco de Astigarribia, contraamaestre; Martín Ibarra, maestre; Andrés Mirandaola, sobrino de Urdaneta; Felipe Salcedo, nieto de Legazpi; Martín de Goiti, capitán; Andrés Ibarra, alférez; Fray Andrés Aguirre. También iba con ellos un navarro, el misionero agustino y también cosmógrafo y embajador por tierras chinas Fray Martín de Rada.

En la nave *San Pablo*, de trescientos toneles, viajaba como capitán Guido Labezarri, cuyo nombre aparece escrito a veces como Labezares, Labazaris y La Basarri –que llegaría a ser el sucesor de Miguel López de Legazpi como Capitán General de las Filipinas desde 1572–, así como Fray Pedro de Gamboa. Completaban la flota un galeón y dos pataches en los que viajaban, entre otros vascos registrados en la documentación, Juan Lazcano, secretario; Pedro Guevara; Amador Arriaga, piloto; Juan Aguirre, Juan Zamudio, Pedro Arana, Alberto Orozco, Felipe de Salcedo, Luis de la Haya, Juan de Goiti, Juan de la Isla, Diego de Herrera, Andrés de Carchela, Martín de Ibarra, Esteban Rodríguez y muchos otros vascos cuyos nombres no figuran en la relación respectiva.

Al margen de la importancia cualitativa del componente vasco en esta primera expedición, otros vascos de gran relevancia siguieron con posterioridad la ruta del Pacífico hacia el archipiélago asiático que fue inicialmente llamado Islas de Poniente o Islas de San Lázaro, y que acabó tomando el nombre de homenaje al por aquel entonces infante Felipe, luego rey Felipe II. A los quince años de la llegada de los primeros adelantados de Filipinas, arribaba a Luzón el fraile dominico alavés Domingo de Salazar, nombrado primer Obispo de Manila, personaje complejo, enérgico y decisivo en la consolidación de la colonia Filipina y en el rumbo que tomó su desarrollo, en relación a la población austronesia autóctona y en relación a la creciente comunidad diaspórica de comerciantes chinos instalados en Manila, en relación a la predicación y el trato con las comunidades de mercaderes chinos que de forma creciente se instalaban en Manila, y en relación al protagonismo del estamento religioso en Filipinas.

## Domingo de Salazar en la Península Ibérica (1512-1553)

Se conserva muy escasa información acerca de los primeros años del primer obispo de Filipinas, Domingo de Salazar. Nació en Labastida, Álava, pero no hay seguridad sobre la fecha en que se produjo, que cabe sin embargo situar alrededor de 1512<sup>1</sup>. Estudió en la Universidad de Salamanca, en aquel momento el foco intelectual más prestigioso de Castilla. En esta Universidad surgiría a las pocas décadas de la conquista de América una altamente influyente escuela de teólogos y juristas en la que destaca la figura del dominico Francisco de Vitoria. En el marco de esta escuela de Salamanca surgirían las bases del derecho internacional y



“Primer Obispo y Arzobispo de Manila Domingo de Salazar”, *Anales Eclesiásticos de Filipinas*.

Domingo Salazarrek oso eginkizun garrantzitsua bete zuen Filipinetako kolonia finkatzeko prozesuan. Bastidan jaiotako domingotar arabar honek Filipinetako indigenen eta txinatar jatorriko jendeen eskubideak defendatu zituen, nahiz bere garaian planteatutako Txina konkistatzeko proiektuaren inguruan jarrera aldakor eta kontraesankorrak izan zituen.

“Primer Obispo y Arzobispo de Manila Domingo de Salazar”, en *Anales Eclesiásticos de Filipinas*.

Domingo de Salazar tuvo un papel decisivo en la consolidación colonial de Filipinas. Este dominico alavés, natural de Labastida, defendió los derechos de los indígenas filipinos y de la población de origen chino aunque en relación al proyecto de conquista de China planteado en su época tuvo posicionamientos cambiantes y contradictorios.




izan zela<sup>1</sup>. Salamancako Unibertsitatean ikasi zuen, une hartan Gaztelako gune intelektualik ospetsu-enetakoan alegia. Unibertsitate honetan, Amerika konkistatu eta hamarkada gutxira, teologo eta jurista eskola zeharo eragin handiko bat sortuko zen, eta honetan Frantzisko Vitoria domingotarra nabarmen-duko zen. Salamancako eskola honen esparruan landuko ziren nazioarteko zuzenbidearen eta jendeen zuzenbidearen oinarriak, Amerikako konkistako justiziaren berrikuspen kritikoaren prozesuan zehar formulatuak; hauen bidez gainditu egin zituzten konkistak justifikatzeko Erdi Aroko kontzepzioak, kris-tautu beharreko mundua banatzearen Alexandro VI.ak XV. mendearen azken hamarkadan zehar por-tugalدار eta gaztelauei eman buldetan argi eta garbi ageri zirenak berak.

Salamancako zuzenbide eta teologia eskolan eragindako gogoetek izan zituzten maila intelektual hutseko oihartzunak alde batera utzirik, ez dugu ahantzi behar 1542ko Lege Berriak egiteko unean –hauek, Bartolomé de las Casasen ekintza eta argudioak izan bazituzten ere iturri nagusi, Vitoriaren planteamenduetako asko eta asko bereganatuko zituzten– edota aurkikuntza berriei buruz 1573an eman *Bosque de Segoviako* ordenazioetan izan zuten eragina. Filipinetako apezpiku Domingo Salazarren biografian, halaber, konkista berriei eta gerra justuaren justifikazioei buruzko gogoeta zuzen-bidezko eta teologikoen oihartzun politiko erabakigarriaren adibide bat aurkituko dugu.

Domingo Salazar Salamancako Unibertsitateko Lege Fakultateko ikastaroetara joan zen urteak (1537-39) bat datoz bera bezala euskalduna zen Frantzisko Vitoriaren irakaskuntza jardueraren garairik distiratsuen eta eraginkorrenarekin. Aro modernoko zuzenbidea eta teologia irauli zituzten *De Indis* edo *De Iure Belli*-ren berrirakurtzeak ikastaro horietan zehar diktatu zituzten. Ezin badugu ere esan Domingo Salazar berrirakurtze horietan izan zenik, antzematen da geroago egin zuen obran badela haien gaineko oso ezaguera sakon bat. Dokumentatuta dago Frantzisko Vitoriaren eta Domingo Salazarren arteko hartu-eman zuzen eta pertsonal bat 1545ean, geroago Filipinetako apezpiku izango zena domingotarren Salamancako San Estebanen komentuan nobizio gisa sartu zenean alegia; izan ere horretan, bi hilabetez, Frantzisko Vitoria jurista eta teologo ospetsuarekin batera izango zen<sup>2</sup>. Ezin dugu aipatzeke laga, ostean, Frantzisko Vitoriaren zuzenbide eta teologiako tesiek Domingo Salazarren idaz-kietan izan zuten eragin itzela, nahiz, ikusiko dugun bezala, Txina konkistatzeko proiektuen testuingu-ru historiko konplexuan utzitako aztarna ez den kontraesanik gabe ageriko; eta Salazarrek berak onar-tzen zituen erabat kontraesan horiek, ezen urte gutxiko epean bi aldiz aldatuko zuen zeharo kontu honen gainean zuen iritzia.

Domingo Salazar apezpikuaren idazki eta ekintzak markatuko zituzten prestakuntza eta jarreretan oso eragin handia izango zuen beste figura bat Bartolomé de las Casas sevillarra izan zen, domingota-rra berau era berean. Hau Domingo Salazarrek berak argi eta garbi aitortutako eragin bat da, hain zuzen ere Chiapasko apezpiku izan zenaren jarrerekiko halako ideologi urruntze bat gertatzen ari zen unean. 1584an Manilatik Felipe II.a erregeari bidalitako gutun batean honakoa idatzi zuen: “(...) zeren eta Chiapasko apezpikuaren doktrinarekin hazi bainintzen, eta iritzi berekoa izan nintzen Nueva España eman nuen hogeita hiru urtetik gorako denboran”<sup>3</sup>.

Aztertzen ari garen epean, eta batez ere Filipinar uharteetako biztanleekiko harremanei eta Txinako konkistaren gaiari dagokienez, Filipinetako lehen apezpiku Domingo Salazarren jarrera eta ibilbidea une hartan filipinar kolonian eta, oro har, Ekialdeko Asiako eremu aldakor hartan bizi zen egoera konplexuaren eta sortzen ziren kontraesanen erakusle garbiak dira. Salazarren jarduera “indio-en defentsan aurrena” titulua errebindikatzeko hutsetik askoz haratago doan ikuspegi batetik ikusi behar dugu, titulu hori oso ongi egokitzen bazaio ere neurri handi batean. Izan ere haren figura aztertu dute-netako batzuek, hala nola Lucio Gutiérrez, Lewis Hanke edo Luz Uzturrum Ausejok, Salazarri buruz aipamen hori egin “natiboen egoera penagarriaren erretratu garbia ageri zaigu Filipinetako lehen apez-piku Domingo Salazarren kontakizunean; hau, 1581ean hara iritsi eta 1592an bertatik alde egin zuen



Salazarrek legeak ikasi zituen Salamancako Unibertsitatean, Frantzisko Vitoria jurista eta teologo ospetsuaren irakaskuntza-jarduerak unerik gorenera iritsi ziren garaian. Bartolomé de las Casasek ere oso eragin sakona izan zuen Salazarren prestakuntzan.

*Irudia:* Ohol gaineko pintura, Martín de Cerverarena, 1614. Salamancako Unibertsitateko Liburutegia.

Salazar estudió leyes en la Universidad de Salamanca en la época más brillante de la enseñanza ejercida por el prestigioso jurista y teólogo Francisco de Vitoria. En la formación de Salazar tuvo también gran influencia Bartolomé de las Casas.

*Imagen:* Pintura sobre madera de Martín de Cervera, 1614. Biblioteca Universitaria de Salamanca.

del derecho de gentes, que fueron formuladas en el transcurso del proceso de revisión crítica de la justicia de la conquista de América, superando así las concepciones medievales de justificación de las conquistas, plenamente ejemplificadas en las bulas papales de repartición del mundo a cristianizar otorgadas a portugueses y castellanos por Alejandro VI durante la última década del siglo XV.

Al margen de la repercusión estrictamente intelectual de las reflexiones suscitadas en la escuela jurídico-teológica de Salamanca, no hay que olvidar sus repercusiones sobre la elaboración de la Leyes Nuevas de 1542 –que si bien fueron más directamente inspiradas por la acción y agumentación de Bartolomé de las Casas, asumían buena parte de los planteamientos vitorianos– o sobre las ordenaciones del bosque de Segovia sobre nuevos descubrimientos de 1573. También en la biografía del obispo de Filipinas Domingo de Salazar encontraremos un ejemplo de decisiva repercusión política de las reflexiones jurídico-teológicas acerca de las nuevas conquistas y las justificaciones de la guerra justa.

Los años en que Domingo de Salazar asistió a los cursos de la Facultad de Leyes de la Universidad de Salamanca (1537-39) se corresponden con la etapa más brillante e influyente de la enseñanza ejercida por Francisco de Vitoria. Las relecciones *De indis* o *De Iure Belli* que revolucionaron el derecho y la teología de la época moderna fueron dictadas durante estos cursos. Si bien no se puede asegurar que Domingo de Salazar asistiera a la lectura de las relecciones, sí que se detecta en su obra posterior un profundo conocimiento de las mismas. Encontramos documentado un contacto directo y personal entre Francisco de Vitoria y Domingo de Salazar en el año 1545, año en el que el futuro obispo de Filipinas ingresó como novicio en el convento dominico de San Esteban de Salamanca, en el cual coincidió con el prestigioso jurista y teólogo Francisco de Vitoria durante unos meses<sup>2</sup>. No puede dejar de notarse la enorme influencia que las tesis jurídico-teológicas de Francisco de Vitoria ejercieron sobre los escritos de Domingo de Salazar, aunque como veremos su impronta en el complejo contexto histórico de los proyectos de conquista de China no estará libre de contradicciones, plenamente asumidas

por el propio Salazar, que en el transcurso de pocos años cambiaría dos veces radicalmente de parecer sobre la cuestión.

Una segunda figura con un gran ascendiente en la formación y en las posiciones que marcarían los escritos y la acción del obispo Domingo de Salazar la encontramos en el también dominico, el sevillano Bartolomé de las Casas. Es ésta una influencia explícitamente reconocida por el propio Domingo de Salazar, justamente en un momento de alejamiento ideológico respecto a las posiciones del que fuera obispo de Chiapas. Escribía en carta dirigida al rey Felipe II el año 1584 desde Manila: “(...) porque me crié con la doctrina del obispo de Chiapa y de este parecer fui más de veinte y tres años que estuve en la Nueva España”<sup>3</sup>.

La posición y trayectoria del primer obispo de Filipinas Domingo de Salazar durante el periodo que nos ocupa y especialmente respecto a las relaciones con los pobladores de las islas Filipinas y en relación al tema de la conquista de China, es un exponente de la complejidad y de las contradicciones del momento en la colonia filipina y en general en el cambiante ámbito de Asia Oriental. Su actuación se debe contemplar desde una perspectiva mucho más matizada que la simple adjudicación vindicativa del título de “campeón de la defensa de los indios” –caracterización que, a pesar de todo, en buena medida le hace justicia–, que le atribuyen, obviando algunos aspectos y posiciones que parecen trabajar en una dirección más bien contraria, estudiosos de su figura como Lucio Gutiérrez, Lewis Hanke o Luz Uzzurum Ausejo: “un vívido retrato del estado lamentable de los nativos emerge en el relato del primer obispo de Filipinas, Domingo de Salazar, quien, desde el momento de su llegada en 1581 hasta su partida en 1592, fue un ardiente defensor de los derechos de los nativos”.

### **Domingo de Salazar en Nueva España (1553-1576)**

Domingo de Salazar permaneció en Nueva España entre los años 1553 y 1576<sup>4</sup>. En 1566 Domingo de Salazar se encontraba como misionero entre los indios zacatecas, denunciando los abusos que contra ellos



arte, natiboen eskubideen babesle sutsua izan zen” eta, hurrena, ahantzi egiten dituzte zeharo kontrako bidean jarriko luketen alderdi eta jarrera batzuk.

### **Domingo Salazar Nueva Españan (1553-1576)**

Domingo Salazar Nueva Españan izan zen 1553 eta 1576 bitartean<sup>4</sup>. 1566an misiolari lanetan ari zen zacateco indioen artean. Hauen kontrako abusuak ere salatu zituen behin baino gehiagotan. Espainiara itzuli aurretiko urteetan, partaidetza aktiboa izan zuen Nueva Españan izandako hainbat eztabaida bizitan. Esate baterako, parte hartu zuen chimicheca indioak menderatzeko gerra ekintzei ekitera begira erregeordeak egin proposamenen ildotik sortutako eztabaidan. Alonso de Zurita lizentziatuak esanaren arabera, hau Domingo Salazarren lagun eta mireslea baitzen, Mexikoko Unibertsitatean teologia irakasle gisa izan zen garaian Salazar Amerikako espainiar okupazioan zeharreko justiziar buruzko tratatu bat, *De modo quo Rex Hispaniarum et eius tenentes habere teneantur in regimine indiarum* izeneko bat, idazten hasi zen. Alonso de Zuritak honela definitu zuen Domingo Salazarren figura: “... frai Frantzisko Vitoriaren dizipulua eta urte askoan Nueva Españan eta Indietako beste toki batzuetan egona, eta leku horietako jendearen konbertsio lanean ardura, arreta eta kontu handiz jarduna”<sup>5</sup>.

### **Domingo Salazar Madrilan (1576-1580)**

1576an Domingo Salazar Espainiara itzuli zen, bere ordenaren prokuradore Erregeren aurrean, eta Nueva Españako domingotarren bozeramale ofizial gisa aita santuaren aurrean; eta domingotarren posizioak defenditu behar zituen, bi gai eztabaidagarritan, honakoak baitziren: Pio V.ak aldarrikatutako eta 1573an Gregorio XIII.a aita santuak itsasoz haraindiko lurralde guztietara zabaldutako Gurutzada Santuko Bulda ez predikatzea batetik, eta bereziki indioei Mexikoko gerretan bidegabeki kendu zieten itzultzeko obligazioa bestetik. Madrilan zela jada, Domingo Salazar hainbat ekintzatan abiatu zen, bere aldekoak irabaztearren eta bide ofizialak lanean jartzearren. Konkistako alderdi bidegabeki eta egindako banaketei buruzko hainbat sermoi predikatu zituen sutsuki, eta honek enkomien dadun eta konkistatzaileen interesetatik hurbileko sektoreak mugiarazi zituen. Azkenean, Domingo Salazarrek aita santuaren nuntzioak ezarri zigorra jasango zuen, Atotxako komentuan kartzelaturik egotekoa alegia. Ez dakigu, baina, kartzelatzeko honek zenbat iraun zuen. Osterantzean, aldi berean Errege Kontseiluak atzera botako zituen Domingo Salazarrek, domingotarren ordenak Nueva Españan zuen prokuradore gisa, defendatutako proposamenak. Aske zelarik jada, Domingo Salazarrek beste hainbat sermoi esan zituen gai berari buruz Bartolomé de las Casas bera hil zen Atotxako domingotarren komentuen aldameneko elizan. Handik gutxira, domingotarren San Estebanen komentuan denbora bat eman ostean, Felipe II.ak egin izendapena iritsiko zen, Domingo Salazar Filipinetako apezpiku izendatzea alegia; honen berrespina 1579ko maiatzaren 10ean helduko zen<sup>6</sup>.

Urtebete lehenago, 1578ko otsailaren 8an, Gregorio XIII.a aita santuak Filipinetako elizbarrutia eratu zuen Mexikotik bereizirik, Joan Baptista Gessio kosmografoaren aholkuei jarraiki espainiar diplomaziak bultzatutako ekintza batez<sup>7</sup>. Manilako elizbarruti honen sorrera Ekialdeko Asiako eremuan gertatzen ari zen portugaldarren eta gaztelauen arteko kolonia-lehia gogorren testuinguruan koka genezake. Izan ere, elizbarrutia sortze hau diplomaziaren kontraeraso bateko elementuetako bat da,

se cometían. Durante los años que precedieron su retorno a España, Domingo de Salazar participó activamente en diversos debates controvertidos en Nueva España. Así, por ejemplo, participó en el debate que surgió a raíz de las propuestas virreinales de acometer acciones bélicas para someter a los indios chichimecas. Según el licenciado Alonso de Zurita, amigo y admirador de Domingo de Salazar, durante su paso por la Universidad de México como profesor de teología éste inició la redacción de un tratado sobre la justicia de la ocupación española de América titulado *De modo quo Rex Hispaniarum et eius tenentes habere teneantur in regimine indiarum*. Alonso de Zurita definía en estos términos la figura de Domingo de Salazar: "...discípulo de Fr. Francisco de Vitoria y que ha estado muchos años en Nueva España y en otras partes de Indias, entendiendo en la conversión de los naturales dellas, con gran celo, diligencia y cuidado"<sup>5</sup>.

### Domingo de Salazar en Madrid (1576-1580)

El año 1576 Domingo de Salazar volvió a España como procurador de su orden ante el rey y ante el Papa como portavoz oficial de los dominicos de Nueva España con el encargo específico de defender sus posiciones en dos puntos controvertidos: la no predicación de la Bula de la Santa Cruzada promulgada por Pío V y ampliada a todos los territorios de ultramar por el papa Gregorio XIII en 1573, y especialmente la obligación de restituir a los indios lo que les había sido injustamente adquirido en las guerras de México. Ya en Madrid, Domingo de Salazar emprendió acciones diversas encaminadas a ganar adeptos para su causa y a poner en movimiento los cauces oficiales. Predicó con vehemencia diversos sermones sobre los aspectos injustos de la conquista y sobre los repartimientos, hecho que mobilizó a los sectores próximos a los intereses de encomenderos y conquistadores. Finalmente Domingo de Salazar fue condenado por el nuncio papal al encarcelamiento en el convento de Atocha por un periodo del que se desconoce su exacta duración. Por otro lado, de forma

simultánea las propuestas defendidas por Domingo de Salazar como procurador de la orden dominica en Nueva España fueron rechazadas de plano por el Consejo Real. Una vez recobrada la libertad, Domingo de Salazar pronunció otra serie de sermones sobre la misma cuestión en la iglesia anexa al convento dominico de Atocha, lugar donde había muerto Bartolomé de las Casas. Poco después, tras un periodo pasado en el convento dominico de San Esteban, llegaba la designación de Domingo de Salazar como obispo de Filipinas por parte de Felipe II que se confirmaría el 10 de mayo de 1579<sup>6</sup>.

Un año antes, el 8 de febrero de 1578, el papa Gregorio XIII había erigido la diócesis de Filipinas segregándola de la de México, en una acción urgida



Domingo Salazar, apezpiku ikurrez. Manilako Santo Tomas Unibertsitatearen Arte eta Zientzia Museoko olio-pintura anonimoa. Seguruenik Salazar hil eta askoz geroago egindako irudikapen konbentzional bat da.

Domingo de Salazar con los atributos de obispo. Óleo anónimo del Museo de Artes y Ciencias de la Universidad Santo Tomás de Manila. Probablemente se trata de una representación convencional realizada mucho después de la muerte de Salazar.



Makaoko elizbarrutia sortu izanaren aurrean Ekialdeko Asian gaztelauen presentzia legitimatzeko eta finkatzeko ahaleginean gauzatu. Dena den Domingo Salazarren figura Filipinetako lehen apezpiku izendatzea harrigarri gerta daiteke, ordura arte Filipinetan nagusia zen agustindar erlijiosoen ordenako kide bat ez zelako. Gainera, Felipe II.ak Domingo Salazar apezpiku izendatzea proposatzeko hartu erabakia misiolari agustindarren eta enkomendadunen artean salaketak eta eztabaidak ugaltzen eta larriagotzen ari ziren filipinar testuinguruan etorri zen. Beraz, oso erabaki adierazgarria da, indio mexikarren defentsaren gaian Domingo Salazarrek Madrilen argi eta garbi erakutsi beligerantzia ikusita. Izan ere, alde batetik badirudi ezen erabaki honek berretsi egiten duela koroaren borondatea, justiziaren aldeko borrokan konprometitutako erlijiosoen tesiei sostengu ematekoa, baina, bestetik, datu hau aztertzean kontuan hartu behar dira hilabete batzuk lehenago koroaren eta Gonzalo Ronquillo de Peñalosaren artean egindako kolonizatze akordioaren baldintzak (Peñalosa Filipinetako gobernadore eta kapitain jeneral izendatu zuten, biziarteko eta ia-ia herentziaz igarotzeko kargua eman, eta eskuzabal ordainduko zioten, gainera, biztanleria zibil kolonizatzailea eramatea, hainbat ordain eta jaun-pribilegio eman horretarako<sup>8</sup>).

Erabaki biak batera ikusiz gero, badirudi koroaren jarrera ez zela hain koherentea, kontraesan korra baizik, zeren eta kontrako bi norabide ari baitzen lantzen aldi berean: batetik saiatzen ari zen filipinar kolonia demografiaren ikuspegitik finkatzen errentagarritasun ekonomikoa lortzeko, prezio politikoari erreparatzeke, eta bestetik kontrapuntu etiko kritikoa ari zen eskaintzen, gehiegikeriak bridatzeko eta Asia Ekialdean zeharreko espantsioari teologiaz zilegitasuna emateko. Koloniako estamentu zibilekin ezinbestean sortuko ziren tentsioak aurreikusita, Filipinetara abiatu baino lehen errege zedula bat promulgatu zuten gobernadoreari eta ofizialei zuzendurik, “harako izendatu den apezpikuarekin, Domingo Salazarrekin, arazorik izan ez dezaten eta honi dagokion gailentasuna errespetatu, ondratu eta estimuan har dezaten...”; zedula hau San Lorenzo del Escoriale aldarrikatu zuten 1579ko uztailaren 1ean<sup>9</sup>.

### Domingo Salazar Filipinetan (1581-1591)

1581ean *San Martín* galeoia, Luis de Sahagosa zelarik agintean, Acapulcotik abiatu zen Manilako bandan. Bidaiarien artean, Domingo Salazar apezpikua eta beste erlijioso batzuk ziren, hala nola sei frantziskotar, agustindar talde handi eta zehatzgabe bat, eta hiru jesuita, Alonso Sánchez hauetako bat. Ozeano Pazifikoa zeharkatzeko bidaiako gorabeheretan lau hilabete eman ostean, *San Martín* galeoia filipinar uhartetako lehen uharteetara iritsiko zen 1581eko uztailaren hasieran, eta Manilara, azkenean, 1581eko irailaren 17an. *San Martín* ontzian eta zeharkaldi honetan zehar, Domingo Salazarrek Alonso Sánchez jesuitarekin tratua izango zuen, adiskide egin ziren, eta hurrengo urteetan zehar oso harreman estua izango zuten, harik eta, Txina konkista militarren bidez konbertitzeko gaiaren inguruko eztabaidan oso iritzi desberdinekoak zirela eta, azkenean eten zuten arte.

Manilan Filipinetako apezpiku gisa emandako hamar urtean zehar, han bertan hartzen ari ziren erabakietako askoren erdian egon zen Domingo Salazar, bitartekari eginkizunetan eta tentsio-gune bat baino gehiago zuela, aldi berean, inguruan. Filipinetara iritsi zenean, Filipinetako lehen apezpiku Domingo Salazar posizioak muturrera joan ez zitezten saiatu zen. Misiolari agustindarren eskumenak murrizten saiatu zen, baina honek ordura arte uharteetako presentzia erlijiosoaren monopolioa zuen ordena erlijioso horrekiko eztabaida garrantz batean sartu zuen. Manilara heldu eta hilabete gutxira hasi ziren agustindar erlijiosoek zeuzkaten eskumenen gaineko gorabehera eta desadostasunak. Apezpikuak ez zegozkien eginkizunak bere gain hartzea leporatzen zien agustindarrei, eta bere komentue-



Zambales. *Boxer Codex* eskuizkribuko irudia, c. 1595. The Lilly Library, Indianako Unibertsitatea.

Zambaleseko biztanleak filipinar uhartetako talde etniko ugarietako bat ziren. Jatorri indonesiarreko talde hau Luzonen mendebaldeko kostaldean bizi zen. Espainiarrek XVII. mendearen amaiera arte ez zuten hauek mendean hartzea eta kristautzea lortu.

Zambales. Imagen del *Boxer Codex*, manuscrito, c. 1595. The Lilly Library, Universidad de Indiana.

Los zambales eran uno de los numerosos grupos étnicos del archipiélago filipino. Habitaban el litoral oeste de Luzón y eran de origen indonesio. Hasta finales del siglo XVII no fueron sometidos y cristianizados por los españoles.

desde instancias diplomáticas españolas a consejo de cosmógrafo Juan Baptista Gessio<sup>7</sup>. Cabe enmarcar la erección de esta diócesis de Manila en el contexto de enconada rivalidad colonial luso-castellana en el ámbito de Asia Oriental. Esta erección responde a una acción de contraofensiva diplomática en el intento de legitimar y consolidar la presencia castellana en Asia Oriental ante la creación de la diócesis de Macao. La elección de la figura de Domingo de Salazar como primer obispo de Filipinas puede sorprender por el hecho de no tratarse de un miembro de la hasta entonces hegemónica orden en Filipinas de los religiosos agustinos. Además, la decisión de Felipe II de proponer el nombramiento episcopal de Domingo de Salazar se produjo en un contexto filipino de plena escalada de acusaciones y controversias entre misioneros agustinos y encomenderos. Se trata por tanto de una decisión altamente significativa, dada la inmediata beligerancia en el tema de la defensa de los indios mexicanos mostrada con vehemencia en Madrid por Domingo de Salazar. Por un lado, esta decisión parece confirmar la voluntad de la corona de dar apoyo a las tesis de los religiosos comprometidos con la lucha por la justicia, pero hay que poner este dato en paralelo a los términos en los que se había producido meses antes el acuerdo colonizador entre la corona y Gonzalo Ronquillo de Peñalosa, nombrado gobernador y capitán general de Filipinas de forma vitalicia y prácticamente hereditaria, recompensando sustanciosamente la aportación de población civil colonizadora con contrapartidas y prerrogativas señorializantes<sup>8</sup>.

La contemplación simultánea de ambas decisiones parece dibujar una posición de la corona menos coherente, sino contradictoria, moviéndose al mismo tiempo en dos direcciones opuestas: intentando al mismo tiempo consolidar la colonia filipina desde el punto de vista demográfico para rentabilizarla económicamente a cualquier precio político, y aportando un contrapunto éticamente crítico para moderar los abusos y legitimar teológicamente la expansión en Asia Oriental. En previsión de las tensiones que necesariamente surgirían con los estamentos civiles de la colonia, antes de su partida hacia Filipinas se promulgó la “real cédula al gobernador y oficiales para que no tengan discordias con el obispo que se ha nombrado para

allí, Domingo de Salazar, y le guarden las preeminencias, honren, estimen...” promulgada en San Lorenzo del Escorial el 1 de julio de 1579<sup>9</sup>.

### Domingo de Salazar en Filipinas (1581-1591)

En marzo de 1581 el galeón *San Martín*, bajo el mando de Luis de Sahagosa, en el que viajaba el obispo Domingo de Salazar junto con otros religiosos (seis franciscanos, un grupo nutrido e indeterminado de agustinos y tres jesuitas, entre los que se contaba Alonso Sánchez), zarpó de Acapulco con destino a Manila. Después de cuatro meses de azaroso viaje de travesía del Océano Pacífico, el galeón *San Martín* abordaba las primeras islas del archipiélago filipino a principios de julio de 1581 y llegaba finalmente a Manila el 17 de setiembre de 1581. A bordo de la nave *San Martín* y en el transcurso de esta travesía Domingo de Salazar entró en conocimiento y relación de amistad con el jesuita Alonso Sánchez, con quien mantendría una estrecha colaboración en años venideros hasta una final ruptura basada en buena medida en su alejamiento de posiciones en la controversia sobre el tema de la conversión de China a través de una conquista militar.

Durante los diez años pasados en Manila como obispo de Filipinas, Domingo de Salazar se encontró en el centro de muchas de las decisiones que se tomaban en Manila, con una misión intermediaria y con diversos focos de tensión simultáneos. A su llegada a Filipinas, el primer obispo de Filipinas, Domingo de Salazar, intentó moderar posiciones. Intentó recortar las atribuciones de los misioneros agustinos, hecho que le complicó en una agria polémica con esta orden religiosa, hasta entonces monopolizadora de la presencia religiosa en las islas. A los pocos meses de su llegada a Manila empezaron las fricciones sobre la cuestión de las competencias ejercidas por los religiosos agustinos. El obispo acusaba a los agustinos de atribuirse funciones que les sobrepasaban, de tener tribunales, cárceles y cepos en sus conventos<sup>10</sup>. El cabildo secular de Manila se posicionó en favor del obispo. Ante la amenaza formulada por los agustinos de retirar su presencia en Filipinas, la controversia se



Domingo Salazarrek borroka egin zuen enkomendiadunen eta militar konkistatzaileen gehiegikerien kontra, hala Mexikon nola Filipinetan.

*Irudia:* Felipe Guamán Poma de Ayalaren ilustrazioa. *Nueva Crónica y Buen Gobierno* eskuizkribukoa, c. 1615. Danimarkako Errege Biblioteka, Kopenhage.

Domingo de Salazar combatió los abusos de los encomenderos y de los militares conquistadores en México y Filipinas.

*Imagen:* Ilustración de Felipe Guamán Poma de Ayala. Del manuscrito *Nueva Crónica y Buen Gobierno*, c. 1615. Biblioteca Real de Dinamarca, Copenhage.



Komunitate erlijiosoak. Ezkerretik eskuinera: domingotarra, frantziskotarra, errekoletoa, agustindarra eta San Joan Jainkoaren anaia. José Honorato Lozanoren *Album de las Yslas Filipinas y Trages de sus Abitantes (sic)* laneko marrazkia, 1847. Biblioteca Nacionala, Madril.

Manilara apezpiku gisa iritsi zenean, 1581an, Domingo Salazar agustindarren boterea murrizten saiatu zen, uste baitzuen ordena horrek –Filipinetako ebanjelizazio lanean aitzindaria– gehiegikeriaz baliatzen zituela bere boterea eta eskumenak.

Comunidades religiosas. De izquierda a derecha: dominico, franciscano, recoleto, agustino y de San Juan de Dios. Dibujo del *Album de las Yslas Filipinas y Trages de sus Abitantes (sic)* de José Honorato Lozano, 1847. Biblioteca Nacional, Madrid.

Al llegar a Manila como obispo, en 1581, Domingo de Salazar trató de reducir el poder de los agustinos considerando que esta orden –pionera en la evangelización de Filipinas– se excedía en su poder y atribuciones.



tan epaitegiak, kartzelak eta zepoak edukitzea<sup>10</sup>. Manilako kapitulu sekularrak apezpikuaren iritziekin bat egin zuen. Agustindarrek Filipinetatik alde egingo zutelako mehatxuaren aurrean, eztabaida eta xextra giro hau arinduz joan zen, apezpikuak etsi egin zuen eta bere nahietako askotan; arazoak baina, nolabait ezkutaturik izan arren, bere horretan segitu zuen.

Apezpikua indigenen protesten bozeramaile izango zen koloniako agintari zibilen eta koroaren aurrean. Filipinetako espainiar dominatzaileen kontra indigenek egindako kexa baten lekukotasunik zaharrena Domingo Salazar apezpikua Manilara iritsi eta hilabete gutxira gertatuko zen; honek Felipe II.ari helaraziko zion hurrena, 1582ko ekainaren 15eko gutun batean<sup>11</sup>. Hurrengo urtean Salazar apezpikuak, 1583ko ekainaren 18ko gutun batean<sup>12</sup>, *Indioen Babesle* Benito Mendiolak idatzitako memorial bat igorriko zuen; memorial horretan zehaztu egiten ziren hango bertakoek zerga gehiegikeriak eta “polo” deituarenak –derrigorrezko prestazio pertsonala zen– zirela eta egindako kexak<sup>13</sup>.

Manilara iritsi eta aste gutxira batzar baterako deia egin zuen. Hau 1581eko urrian egin zuten, eta gaia Filipinetako esklaboak askatzea eskatzen zuen errege zedula bat aplikatzeko epeak eta modua zen. Gonzalo Ronquillo de Peñalosa gobernadoreak zedularen aplikazioa geroratzeko, are aplikazioa bera oso gainetik gauzatzeko, egin ahaleginek eragin zuten batzar horretarako deia egitea; dei hau, gainera, dokumentatuta dago *La Junta y Resolución que el obispo tomó sobre la ejecución de la Cédula de los esclavos* izeneko irizpenean<sup>14</sup>. Baina esklaboak askatzearen kontu honetatik aparte ere, Gonzalo Ronquillo de Peñalosa gobernadore eta kapitain jeneralaren gobernu epe osoan zehar Domingo Salazarrek zeharo jarrera kontrako eta kritikoa izan zuen hark hartutako erabakietako askorekiko. Horrelaxe utziko zuen agerian Alonso Sánchezek *Avisos al gobernador Gómez Pérez Dasmariñas* testuan, apezpikua etsai izatea ez zitziola komeni egiten ziolarik ohar: “Jaunak jakin beza apezpikua adiskide izatea komeni zaiola, adiskide ez izatea komeni ez zaion bezalaxe; zeren eta beldurgarria baita hitz egiteko eta hizpide dituen gauzei buruz idazteko unean, eta uste dut bera izan zela on Gonzalo Ronquillori gogorren aurre egin ziona”<sup>15</sup>.

diluyó al ceder el obispo en buena parte de sus pretensiones, quedando sin embargo el conflicto latente.

El obispo se hizo portavoz de las protestas de los indígenas ante las autoridades civiles de la colonia y ante la corona. El más antiguo testimonio de una queja formalizada de los indígenas filipinos contra los dominadores españoles en Filipinas se produce a los pocos meses de la llegada del obispo Domingo de Salazar a Manila, transmitida en una carta a Felipe II el 15 de junio de 1582<sup>11</sup>. El año siguiente el obispo Salazar envió en una carta del 18 de junio de 1583<sup>12</sup> un memorial redactado por el *Protector de Indios*, Benito de Mendiola, en el que se detallaban las quejas de los naturales sobre los abusos tributarios y del “*polo*”, la prestación personal de carácter obligatorio<sup>13</sup>.

Ya a las pocas semanas de su llegada a Manila convocó una junta celebrada en octubre de 1581 sobre los plazos y forma de aplicación de una cédula real que urgía a la liberación de los esclavos de Filipinas. Los intentos dilatorios y de “aplicación tenue” de la cédula por parte del gobernador Gonzalo Ronquillo de Peñalosa provocaron esta convocatoria que queda documentada en un “parecer” titulado *La Junta y Resolución que el obispo tomó sobre la ejecución de la Cédula de los esclavos*<sup>14</sup>. No sólo en esta cuestión específica de la liberación de los esclavos sino, en realidad durante todo el periodo de gobierno del gobernador y capitán general Gonzalo Ronquillo de Peñalosa, Domingo de Salazar mantuvo una actitud claramente beligerante y crítica con muchas de sus decisiones. Así lo puso de manifiesto Alonso Sánchez en los *Avisos al gobernador Gómez Pérez Dasmariñas*, cuando le advertía que le convenía no tener al obispo como enemigo: “Vuestra Señoría advierta como le está también tener al obispo por amigo, le estará mal tenerle por no tal: porque es terrible en hablar y escrivir de las cosas que toma entre dientes, y creo que fue el que más guerra hizo a don Gonzalo Ronquillo”<sup>15</sup>.

Se puede considerar esta junta de octubre de 1581 sobre la esclavitud como la primera de una serie de cuatro juntas de características diferenciadas entre sí, impulsadas por el obispo Salazar como un medio de afrontar la grave crisis que enfrentaba a los estamentos civiles y religiosos del archipiélago, y, en el caso de las dos últimas (1583 y 1586) como un medio de estable-

cer consenso acerca de los proyectos de expansión a China y, especialmente en el caso de la cuarta junta de 1586, como un medio de proyectar los problemas de la colonia y de formular peticiones de solución ante la corte española. Este proceso de discusión conciliar se ha venido a designar frecuentemente con el epígrafe de “sínodo de Manila”, terminología que se puede emplear tan sólo en un sentido laxo y considerando que los testimonios documentales diferencian claramente cada una de las juntas celebradas entre 1581 y 1586<sup>16</sup>.

En realidad cabe distinguir entre las dos primeras, de carácter exclusivamente religioso, de las dos últimas, en las que se integraban elementos y argumentos civiles. La primera junta fue celebrada en octubre de 1581 sobre la cuestión de la esclavitud, la segunda celebrada antes de marzo de 1582, momento de la partida del jesuita Alonso Sánchez a Macao en su primera incursión a tierras chinas y centrada en la cuestión de la encomienda, la tercera fue celebrada tras el regreso a Manila de Alonso Sánchez, en la primavera de 1583, y se centraba en la justificación de la conquista de China, y finalmente la cuarta y más importante convocada el 19 de abril de 1586 por la real audiencia de Manila, que reunía a todos los estamentos de la colonia para elaborar unos memoriales que serían conducidos ante la corona por el jesuita Alonso Sánchez.



San Agustinen eliza eta komentua Manilan. José Honorato Lozanoren ur-kolorezko pintura. *Album Karuth* lanekoa. Filipinas Heritage Library, Ayala Foundation.

San Agustinen eliza da gerrak, tifoia eta lurrikarak jasan behar izan dituen arren zutik iraun duen Manilako eliza kolonialetako bakarra. 1762an soldadu ingelesak arpilatu egin zituzten bertan zeuden Lopez de Legazpi eta honen biloba Joan Salcedoren hilobiak. Hauen bien gorpuzkinak, gero, 1965ean Lopez de Legazpiren oroimenez berreraiki zuten kapera batean jarri zituzten. Estatua etzan bat ere jarri zuten bertan. Honen egilea Juan Manuel Iriarte izan zen, eta finantzaketa Espainiako Kanpo Gaietarako Ministeriotik heldu zen, garai hartan Fernando María Castiella bizkaitarra baitzuen buru.

Iglesia y convento de San Agustín en Manila. Aguada de José Honorato Lozano. Del *Album Karuth*. Filipinas Heritage Library, Ayala Foundation.

La iglesia de San Agustín es la única de las iglesias coloniales de Manila que ha permanecido en pie pese a las guerras, los tifones y los terremotos que hubo de sufrir. En 1762 las tropas inglesas saquearon las tumbas de López de Legazpi y su nieto Juan de Salcedo allí situadas. Los restos de ambos se depositaron luego en una capilla que, en 1965, fue reconstruida en memoria de López de Legazpi. Se instaló en ella una estatua yacente, obra de Juan Manuel Iriarte, que fue financiada por el Ministerio de Asuntos Exteriores español a cuyo cargo estaba entonces el vizcaino Fernando María Castiella.





Domingo Salazar, Manilako elizbarrutiaren fundatzailea. Manilako katedraleko ateko erliebea. Argazkia: Manilako apezpikutegia.

Domingo de Salazar, fundador de la diócesis de Manila. Relieve de la puerta de la Catedral de Manila. Foto: Obispado de Manila.

Esklabotzari buruz 1581eko urrian egin batzar hau har dezakegu Salazar apezpikuak bultzaturik egindako lau batzar desberdinez osatutako sortako lehentzat; izan ere, apezpikuak uhartediko estamentu zibilak eta erlijiosoak aurrez aurre zituen krisialdi larriari aurre egiteko bidetzat zituen eta, azkeneko bien kasuan (1583 eta 1586an) Txinara hedatzeko proiektuen inguruan kontsensu edo adostasuna lortzeko modutzat; eta laugarrenaren kasuan bereziki (1586), koloniako arazoak proiektatzeko eta espainiar gortearen aurrean irtenbide eskariak egiteko baliabidea ikusten zuen Salazarrek. Kontzilio-eztabaida prozesu honi, sarritan, “Manilako sinodo” esan izan zaio. Dena den, horrelako terminologia bakar-bakarrik zentzu zabal batean har daiteke, eta kontuan izanda, betiere, dokumentu bidezko lekukotasunak oso desberdinak direla 1581 eta 1586 bitartean egindako batzarretako bakoitzean<sup>16</sup>.

Egia esateko lehenbiziko biak, izaera erlijioso hutsekoak, eta azkeneko biak bereiz ditzakegu, hauetan elementu eta argudio zibilak sartuta zeuden eta. Lehenbiziko batzarra 1581eko urrian egin zuten, esklabotzaren gaia zutela aztergai; bigarrena 1582ko martxoan baino lehen egin zuten, hau da, Alonso Sánchez jesuita Txinako lurraldeetarako lehen bidaian Makaora abiatzekoa zen unean, enkomendaren kontua aztertzeko; hirugarrena Alonso Sánchez Manilara itzuli ondoren egin zuten, 1583ko udazkenean, eta Txinaren konkistaren justifikazioa zuen gai nagusi; eta azkenean laugarrena, eta garrantzitsuena bera, 1586ko apirilaren 19rako deitu zuen Manilako Errege Entzutegiak, eta koloniako estamentu guztiak bildu zituen Alonso Sánchez jesuitak koroara eramango zituen memorial batzuk egi-tearren.

Bere bizitzako azken urteetan, Domingo Salazar apezpikua erabat beligerante agertu zen enkomendadunen, militar konkistatzaileen eta Filipinetako esklabo jabeen gehiegikeriak salatzeke eta horien kontra jotzeko, batez ere Manilako sinodo deituaz uharteetan zabaldu eta 1586ko Filipinar uharteetako estatu guztien batzarra ekarriko zuen eztabaida epearen ostean.

Filipinar koloniako barne gatazkak areagotu egingo ziren 1590ean beste gobernadore bat, gortean Alonso Sánchezek kargurako proposatu Gómez Pérez Dasmariñas izenekoa bera, iritsi zenean. Dasmariñas 1589an abiatu aurretik Felipe II.ak eman zizkion aginduetan, berriro planteatzen zen emandako ordenantzak urratzearen kontua, zehazki baketu gabeko enkomendetan gehiegizko zerga kobrantzari zegokionez. Erregek ohar egiten zion ezen: “...jakin badakidanez enkomienda arazotsu edo sekula baketu gabeetan zerga kobrantzan ez direla betetzen horretarako emandako ordenantzak, gobernadoreak beharrezko guztia egin dezala gai honetan, apezpikuaren irizpena aintzat hartuta, eta zehatz-mehatz betez horretan adosten dena, agindua ez betetzeak ekar ditzakeen eragozpenek azkena izan dezaten”<sup>17</sup>.

Hain zuzen ere apezpikuarekin adostasuna lortu behar hori izan zen gatazka gune nagusia. Zergak kobratzen hasteko enkomendadunek egingo zuten eskariari aurrea hartuz, Domingo Salazar apezpikuak gutun bat idatzi zion 1591ko urtarrilaren 12an gobernadore berriari<sup>18</sup>; honetan, bere iritzia eta teologoen ematen zion aditzera –sinodoan luze eta zabal eztabaidatua baitzen–, aintzat hartu behar zuen eta, ezinbestean, Erregek emandako aginduei jarraiki. Apezpikuak Filipinetako enkomien tipologia bat ezartzen zuen, enkomendadunak zerga kobratzearen trukean eskaintzen zituen ordainen betetze mailaren arabera bi irizpideri jarraiki: doktrinatuak eta doktrinatu gabeak, eta justiziadunak eta justizia gabeak.

En los últimos años de su vida el obispo Domingo de Salazar se mostró absolutamente beligerante en la denuncia y ataque a los abusos de los encomenderos, de los militares conquistadores y de los propietarios de esclavos de Filipinas, especialmente después del periodo de discusión abierto en las islas con el llamado sínodo de Manila, que culminó en las juntas de todos los estados de las islas Filipinas de 1586.

Los conflictos internos de la colonia filipina se agudizaron con la llegada el año 1590 de un nuevo gobernador, Gómez Pérez Dasmariñas, propuesto al cargo en la corte por Alonso Sánchez. En las instrucciones que le dio Felipe II antes de su partida el año 1589, volvía a plantearse la cuestión del incumplimiento de las ordenanzas dadas y concretamente sobre el cobro abusivo de tributos en encomiendas no pacificadas. El rey le advertía que: "...teniendo entendido que en la cobranza de tributos de las encomiendas alteradas o nunca pacificadas, no se guardaban las ordenanzas dadas sobre ello, provea el gobernador en esta materia lo que fuere necesario, con parecer del obispo, ejecutando puntualmente lo que en ello se acordare, para que cesen los inconvenientes que la falta de cumplimiento de lo mandado pudiera traer consigo"<sup>17</sup>.

Fue justamente la necesidad de ponerse de acuerdo con el obispo la que focalizó el conflicto. Avanzándose a la petición de los encomenderos para proceder al cobro de los tributos, el obispo Domingo de Salazar escribió una misiva al nuevo gobernador el 12 de enero de 1591<sup>18</sup> en la que le informaba de su parecer y del de los teólogos –largamente debatido en el sínodo– que necesariamente debía ser tomado en consideración según las instrucciones reales. El obispo establecía una tipología de las encomiendas filipinas según dos criterios (adoctrinadas y no adoctrinadas, y con justicia y sin justicia) que atendían al grado de cumplimiento de las contrapartidas ofrecidas por el encomendero a cambio del cobro del tributo. Caso por caso examinaba cuáles de estas encomiendas tenían derecho a tributo y cuáles no tenían este derecho. En realidad, esta apreciación no negaba en sí misma la encomienda como institución, se limitaba a exigirle una función evangelizadora efectiva y marcaba los límites de la misma: los indígenas no evangelizados no podían ser sujetos fiscales. Tan sólo

se podría cobrar el tributo allí donde el adoctrinamiento fuese efectivo y se protegiese con justicia a los indígenas. Estos conflictos reflejan tanto una preocupación por los indígenas como inquietud por la efectividad de la tarea misional<sup>19</sup>.

### **Domingo de Salazar en la Corte (1591-1594)**

Las resistencias de los encomenderos filipinos a aceptar la puesta en práctica de las decisiones sinodales acerca de la restitución de los bienes de los indígenas, las divergencias de los misioneros jesuitas y franciscanos, la oposición del gobernador Gómez Pérez Dasmariñas y sobre todo la consideración de que el jesuita Alonso Sánchez había traicionado la confianza que en él había depositado como procurador de la colonia, impulsaron al obispo Domingo de Salazar, ya un hombre mayor, de más de setenta años, a viajar en julio de 1591 hasta la corte española para defender sus posiciones ante la corona. Aparte de polemizar sobre la cuestión de las tributaciones a las encomiendas también polemizó con el jesuita Alonso Sánchez en contra del proyecto de invasión del imperio chino que años atrás había defendido y legitimado, intentando desautorizarlo como representante del archipiélago en la corte<sup>20</sup>. En algunos pasajes de las argumentaciones jurídico-teológicas en las que basa su refutación al derecho de conquista de China, emergen explícitamente las posiciones de su maestro Francisco de Vitoria. Así por ejemplo, Domingo de Salazar se basa en él cuando niega la procedencia divina de la legitimidad del poder real que daría derecho a ocupar dominios territoriales otorgados por áreas de demarcación misional del estilo de las planteadas a finales del siglo XV en las bulas papales de Alejandro VI: "Y hase de advertir que según doctrina del Doctor P.M. Francisco de Vitoria, en la elección "De potestate Civili", que quando decimos que los príncipes seculares tienen poder y autoridad de Dios sobre sus repúblicas, se ha de entender que este poder no lo reciben los reyes y príncipes inmediatamente de Dios, ni radicalmente está en ellos, sino en las repúblicas que gobiernan, y estas, cuando son perfectas, cuales son aquellas que pueden transferir el





Jesuiten eliza, Manilan, 1858 inguruan. José Honorato Lozanoren urkolorea. *Album Karuth* lanekoa. Filipinas Heritage Library, Ayala Foundation.

Jesuitak 1581ean finkatu ziren Filipinetan. Salazarrek eskaturik, Manilako Kolegioa edo Konpainiarena fundatu zuten 1595ean; hau, 1620an, San Ignazioaren Kolegio Goren bihurtuko zuten, unibertsitate mailaz.

Jesuiten misio lana Visayas uharteetan bildu zen nagusiki, baina Mindanaon ere finkatu ziren, agustindar errekoletokiko lehia gogorrean.

Hiru jesuita euskaldun hil ziren Filipinetan, misio lanetan ari zirela: Frantzisko Mendoza, Jose Esandi eta Joan Bautista Larrauri.

**Iglesia de los jesuitas en Manila hacia 1858. Aguada de José Honorato Lozano. Del *Album Karuth*. Filipinas Heritage Library, Ayala Foundation.**

Los jesuitas se implantaron en Filipinas en 1581. A instancias de Salazar fundaron el Colegio de Manila o de la Compañía en 1595, transformado en Colegio Máximo de San Ignacio con rango universitario en 1620. La labor misional de los jesuitas se centró en las Visayas, aunque también se establecieron en Mindanao en cruda competencia con los agustinos recoletos.

Tres jesuitas vascos perdieron la vida misionando en Filipinas: Francisco de Mendoza, José de Esandi y Juan Bautista de Larrauri.

Eta aztertu egiten zuen, banaka harturik, enkomienda horietatik zeinek zuen zerga kobratzeko eskubidea eta zeinek ez. Egiaz, honek ez zuen berez enkomienda ukatzen instituzio gisa; bakar-bakarrik ebanjelizazio lan eraginkorra eskatzen zion, eta bide batez muga batzuk ezartzen zizkion: ebanjelizatu gabeko indigenak ezin ziren zergapetu. Bakar-bakarrik doktrinatzeari eraginkorra zen eta indigenek justiziaren babesaren zuten tokian kobra zitekeen zerga. Arazo hauek, hala, indigenekiko zein misio lanaren inguruko kezka islatzen dute<sup>19</sup>.

**Domingo Salazar gortean (1591-1594)**

Indigenen ondasunak itzultzeari buruz sinodoak hartutako erabakiak gauzatzearen aurrean Filipinetako enkomiendadunek jarri erresistentzia, misiolari jesuita eta frantziskotarren dibergentziak, Gómez Pérez Dasmariñas gobernadorearen aurkaritza eta, batez ere, Alonso Sánchez jesuitari koloniako prokuradore gisa emana zion konfiantza urratua izan zelako iritzia, hauek guztiak izan zituen arrazoi Domingo

Salazar apezpikuak, ordurako hirurogeita hamar urtetik gorako gizon edadetua bera, 1591ko uztailaren espainiar gorterrantz abia zedin koroaren aurrean bere jarrerak defenditzera. Enkomiendetako zergen kontuan eztabaidan hasi aurretik, Alonso Sánchez jesuitarekin ere jardun zuen xextran, hainbat urte lehenago defendatu eta legitimatu zuen Txinako inperioa inbaditzeko proiektuaren kontra, eta ahaleginak egin zituen hura uhartediak gortean zuen ordezkari kargutik kentzeko<sup>20</sup>. Txina konkistatzeko eskubidea errefusatzeko hori oinarritzeko erabiltzen dituen zuzenbidezko eta teologiako argudioetako pasarteetako batzuetan, argi eta garbi ageri zaizkigu maisu izan zuen Frantzisko Vitoriaren jarrerak. Hala, esate baterako, ondoren datorren pasarteetan Domingo Salazarrek Frantzisko Vitoria hartzen du sostengu, errege boterearen legitimitatearen jainkozko jatorria ukatzen duenean, eta kontuan izan behar da jatorri horrek ematen zukeela misio-mugapeetan, Alexandro VI.aren buldetan XV. mendearen amaiera aldean planteatutakoen estilokoetan, banatutako lurralde domeinua hartzeko eskubidea. “Eta aintzat hartu behar da ezen, Frantzisko Vitoria doktoreak “De potestate Civili”ren berrirakurtzean adierazi doktrinaren arabera, printze sekularrek bere errepublikaren gainean Jainkoaren botere eta agintea dutela diogunean ulertu behar dela botere hori ez dutela errege eta printzeek Jainkoagandik zuzenean jasotzen, eta botere hori ez dagoela beraiengan ere, baizik eta gobernatzen dituzten errepubliketan, eta hauek, akasgabeak direnean, akasgabeak baitira domeinua nahi dutenari eskualda diezaioketenak, eskubide naturalez libreak direla, eta errepubliketatik ondorioztatzen dela printzeen boterea...”<sup>21</sup>.

Hain zuzen ere, Domingo Salazar apezpikuak Txinaren konkista militarreko planei eman laguntza aktiboa da, itxura, halako kontraesan bat erakusten duena, gaztelauk amerikar kontinentean jarraitutako “*odol eta indarrezko*” konkista ereduarekin beti kritikoa agertutako posizioekin bat argi eta garbi egin zuen ibilbidean. Filipinar uharteetara iritsi zenetik, eta batez ere 1582ko batzarra, Manilako sinodo izenaz ezaguna, hasi eta gero, Domingo Salazar apezpikuak bat egin zuen, sarritan, Alonso Sánchez jesuitaren posizioekin; hau militar konkistatzaileen eta misiolarien arteko lankidetzaren estu eta beharrezkoaren aldekoa zen, “paganoen” artean predikatze eginkizunera begira, eta Txina bide militarretik konkistatzearen aldeko eta sustatzaile era berean.

Horixe ikusten dugu Salazar apezpikuak 1583ko ekainaren 18an Felipe II.ari bidalitako gutun zeharo adierazgarri bateko pasarte batean, honetan Erregeri aditzera ematen baitzion ez zetorrela bat



## EUSKALDUNAK ETA JAPONIARRAK 1586an TXINA INBADITZEKO PROIEKTUAN

XVI. mendearen azken herenean, Filipinar uharteetatik Txina inbaditzeko hainbat asmo planteatu zituzten, inperioa eta erlijio katolikoa Asia Ekialdean hedatzeko asmoz. Proiektu arriskutsu horien azpian, Hernán Cortésék burutu zuen inperio aztekaren konkistaren ereduak sorrarazitako lilura zegoen.

1581ean Espainia eta Portugalgo koroen bategite dinastikoa gauzatu zelarik Felipe II.aren pertsonarengan, iberiar eszenatoki koloniala aldatu egin zen, eta Txinako inperioaren konkista eta Monarkia Unibertsalaren mitoa gauza lorgarriak ziren jada Filipinen konkistatzaileen begietan. 1586ko inbasio plana espainiarren eta portugesen baterako ekintza militar gisa itxuratu zen. Tropa kopuruari dagokionez, berriz, Felipe II.aren koroako erresumetako edozeinetako hamabi mila soldadu bidaltzea eskatzen zuten, nahiz euskaldunak nahiago zituzten –arrazoirik ez zuten, baina, azaltzen-. Sei mila japoniar erreklutatze asmoa ere bazuten, borroka garairako oso odol berokoaz izateaz aparte betiko etsaiak baitziren txinatarrantzat. Era berean, Visayas uharteetako sei mila natibo eta India portugeseko bostehun esklabo erreklutatzea ere espero zuten.

Zorionez, Felipe II.ak ez zuen oso serio hartu proiektu hau, ezta are zentzugabeagoak ziren beste batzuk ere, eta Inperio Zerutarrarekiko harreman baketsua bultzatu zuen beti. Txina konkistatzeko proiektua jauregian aurkezteak bat egin zuen, denboran, Ingalaterra konkistatzeko Armadaren porrotaren albistea El Escorialera iristearekin. Honek bere eragina izango zuen, noski, Txinako itsasoetan beste armada bat bultzatzeari Erregek eman ezetzerako. Jesusen Konpainia eta Filipinetako lehen apezpiku Domingo Salazar kontra agertzeak ere bere eragina izan zuen konkista planak atzera botatze horretan.

## VASCOS Y JAPONESES EN EL PROYECTO DE INVASIÓN DE CHINA DE 1586

En el último tercio del siglo XVI se plantearon desde las islas Filipinas diversos planes de invasión de China con el propósito de extender el imperio y la religión católica en Asia Oriental. Latía en estos arriesgados proyectos la sugestión del modelo de la conquista del imperio azteca llevada a cabo por Hernán Cortés.

En 1581 la unión dinástica de las coronas de España y Portugal en la persona de Felipe II alteró el escenario colonial ibérico y la posibilidad de conquista del imperio chino y el mito de la Monarquía Universal se presentó a los ojos de los conquistadores de Filipinas como meta alcanzable. El plan de invasión de 1586 se perfiló como una acción militar conjunta de españoles y portugueses. En cuanto al contingente de tropas, se pedía el envío de doce mil soldados de cualquiera de los reinos de la corona de Felipe II aunque se hacía notar –sin explicar las razones– la preferencia por los vascos. También se pensaba reclutar a seis mil japoneses, pues estos eran considerados como muy belicosos en combate y además mantenían una secular rivalidad con los chinos. Asimismo, se contaba con el reclutamiento de seis mil nativos de las islas Visayas, y quinientos esclavos de la India portuguesa.

Afortunadamente Felipe II no tomó muy en serio ni éste ni otros proyectos aún más quiméricos, promoviendo, en todo momento, la pacífica relación con el Celeste Imperio. La presentación en palacio del proyecto de conquista de China coincidió en el tiempo con la llegada a El Escorial de la noticia del fracaso de la Armada para la conquista de

Inglaterra, lo cual influyó sin duda en la negativa real a impulsar una Armada en los mares de China. La oposición contraria de la Compañía de Jesús y del primer Obispo de Filipinas, Domingo de Salazar, también influyeron en este rechazo a los planes de conquista.



lehen konkistatzaileak eta enkomiendadunak, gehiegizko zerga kobrantzaren eta esklabotzaren praktikak aurrez erabat baztertu ez zituztenak eta Filipinetako indigenei bidegabeki kendutako ondasunak itzultzen ez zietenak, aitorpen bidez absolbitzearen kontra agustindarrek sinodoan aldarrikatutako konklusioen zorrotasunarekin. Gutun horretan, Domingo Salazar apezpikuak berariaz azaltzen zuen lehenago Chiapasko apezpiku Bartolomé de las Casasekin zituen adostasunekiko halako urruntze bat, eta inplizituki, era berean, Frantzisko Vitoria jurista domingotarraren planteamenduekiko bat, konkistagerra misioetarako metodotzat erabiltzearen bidegabekeriaren inguruan; are gehiago, defendatu egingo zuen Alonso Sánchezek Txinara egin lehen bidaiaren ondotik 1583an itzuli zelarik Manilako hainbat estamentuk egin Txina konkistatzeko planteamendua, ekintza militar eta misio ekintza konbinatu gisa ulertuta. Txina konkistatzeko lehen proiektu honek bazterrean utziko zituen, eraginkortasunik gabeak zirelako, Txinako inperioan sartzeko bide diplomatikoak eta ebanjelizazioa bake bidez lortzeko ahaleginak, eta bide militarren alde egiten zuen zuzenean, Alonso Sánchez jesuitak behin eta berriro sus-tatu eta argudiatutako konkista proiektua bere eginez, goitik behera<sup>22</sup>.

Dena den, Domingo Salazar apezpikuaren jarrera hau dagokion testuinguruan kokatu behar dugu. Alde batetik, Filipinetan oso krisialdi ekonomiko eta instituzional sakona ari ziren bizi izaten XVI. mendeko laurogeiko urteetako hamarkadan zehar<sup>23</sup>, eta bestetik halako frustrazio eta samindura giro bat ere bazen, misio espedizio gaztelau zenbaitek Txinan sartzerik ez zutelako izan, behin eta berriro saiatu arren. Eta giro hau areagotu egingo zen, gainera, Txinara egin lehen bidaiaren ostean Alonso Sánchezek marraztu zuen inperio zerutarraren ikuspegi zeharo erradikalaren eraginez. Domingo Salazar apezpikuak Txinara zuzendu ahaleginari eskaini zion legitimazio laguntza horrek beti bilatuko zuen maisu izan zuen Frantzisko Vitoriaren zuzenbide eta teologiako diskurtsoaren eskakizunetara egokitzea, prozesua neurritz eramateko ahalegin batez batetik, eta “gerra zuzen” baten parametroetara egokitutako itxuraketa judiziala ematearren bestetik. Alabaina, denbora askorik ez zuen behar izan jarrera belizista hauetatik aldentzeko: 1590eko urtetik aurrera, Domingo Salazar apezpikuak kendu egingo zien bere babesa Alonso Sánchezen ekimenei, eta gogor kritikatu zuen, gainera, Txinara zuzendu ahalegina, lehenago berak legitimatze lan handia egin zuen huraxe alegia.

Hala, Filipinetako koloniarrekiko zituen posizioak espainiar gortearren aurrean berak zuzenean defenditzearen 1591n Domingo Salazar zaharra Pazifikoa eta Atlantikoa zeharkatzeko abenturan abiatzera eramango zuten arrazoen atzean, enkomiendaren inguruko gatazkak –Gómez Pérez Dasmariñas gobernadorearekiko borrokan bilduak– gogortu izana eta Txinako enpresarekiko izan zuen jarrera aldaketa zeuden, ezen azken honen kasuan Alonso Sánchezek bultzatutako gerra tesiei erabateko babesa ematetik Txinako lurralde barnera misiolari domingotar eta frantziskotar talde zabalak inolako laguntza militarrik gabe bidaltzearen alde gotera igaro zen.

Txinaren aurreko estrategia borroka honetan, gortean azkenean Sánchezen posizioetako alderdi ez hain espansionistak eta Salazarrenak lotzen zituen politika bat nagusitu zen: Felipe II.ak Txina konkistatzeko planak atzera botatzeko jarraitutako politika bat zetorren Salazar apezpikuaren posizioekin, baina baimenak emateari eta Txinako lurralde barnera domingotar eta frantziskotar misiolari talde handiak bidaltzea finantzatzeari uko egiteak bat egiten zuen Alonso Sánchezen posizioekin. Alabaina Felipe II.ak be-

Ceburen historia aipatzen duen eskultura-multzo monumentalak. Parián Plaza, Cebu. Edgardo Castrilloren obra, 2000ko urtean inauguratua. J. M. Unsainen argazkia.

Conjunto escultórico monumental alusivo a la historia de Cebú. Plaza Parián, Cebú. Obra de Edgardo Castrillo inaugurada en 2000. Foto: J. M. Unsain.





dominio a quien quisiesen, de derecho natural son libres de sí, y de ellas se deriva el poder en los príncipes...”<sup>21</sup>.

Fue justamente el apoyo activo que dio el obispo Domingo de Salazar a los planes de conquista militar de China lo que parece aportar una nota contradictoria en una trayectoria inequívocamente alineada con posiciones siempre críticas con los modelos de conquista “a sangre y fuego” seguidos por los castellanos en el continente americano. Desde su llegada a las islas Filipinas y especialmente después del inicio de la junta de 1582, conocida como sínodo de Manila, el obispo Domingo de Salazar se alineó con frecuencia con las posiciones del jesuita Alonso Sánchez, partidario de una colaboración estrecha y necesaria entre militares conquistadores y misioneros en la tarea de predicación entre los “paganos” y partidario y promotor de la conquista por la vía militar de China.

Así lo pone en evidencia este pasaje de una misiva altamente significativa que envió el obispo Salazar a Felipe II el 18 de junio de 1583 en el que disienta del rigor de las conclusiones propugnadas por los agustinos en el sínodo en contra de la absolución en confesión de los primeros conquistadores y encomenderos que no hubiesen antes frenado por completo prácticas de exacción fiscal abusiva y de esclavitud, y que no restituyesen a los indígenas filipinos los bienes obtenidos de forma ilegítima. En esta misiva, el obispo Domingo de Salazar marcaba explícitamente distancias con sus anteriores afinidades con el obispo de Chiapas, Bartolomé de las Casas, e implícitamente con los planteamientos del jurista dominico Francisco de Vitoria sobre la ilegitimidad de la guerra de conquista como método misional, defendiendo por contra la empresa de China, entendida una acción combinada de acción militar y misional, que había sido formulada por los diferentes estamentos de Manila después del retorno de Alonso Sánchez de su primer viaje a China en 1583. Este inicial proyecto de empresa de China arrinconaba por ineficaces las tentativas de una vía diplomática y pacíficamente evangelizadora de penetración al imperio chino y optaba directamente por la vía militar, asumiendo así plenamente un proyecto de conquista promovido y argumentado de forma incansable por el jesuita Alonso Sánchez<sup>22</sup>.



San Frantzisko Xabier Txinako maparen aurrean. Joan González enakar-lana, 1703. Bilduma partikularra.

Txina mundu katolikora ekartzea Frantzisko Xabier eta beste europar askoren desira izan zen.

San Francisco Javier ante el mapa de China. Enconchado de Juan González, 1703. Colección particular.

La incorporación de China al mundo católico fue un deseo que Francisco Javier compartió con muchos europeos.

Es necesario contextualizar esta posición del obispo Domingo Salazar por un lado en el clima de profunda crisis económica e institucional que vivía Filipinas durante la década de los años ochenta del siglo XVI<sup>23</sup> y por otro lado en el ambiente de frustración y de indignación ante la reiterada imposibilidad de penetrar en China por parte de diferentes expediciones misionales castellanas, avivado especialmente por el panorama radicalmente negativo del imperio celeste que dibujó Alonso Sánchez después de su primer viaje a China. El apoyo legitimador a la empresa de China que prestó el obispo Domingo de Salazar buscaría siempre acomodarse a las exigencias del discurso jurídico-teológico de su maestro Francisco de Vitoria, intentando moderar el proceso y darle una conformación judicial ajustada a los parámetros de una “guerra justa”. Sin embargo no tardaría en alejarse de estas posiciones belicistas: a partir del año 1590, el obispo Domingo Salazar retiraría su apoyo a las iniciativas de Alonso Sánchez y criticaría duramente la empresa de la China a la cual él tanto había contribuido anteriormente a legitimar.

Los motivos que forzarían en 1591 a un Domingo de Salazar ya anciano a acometer la aventura de

rretsi eta finkatu egingo zuen, ondoren, Txinanzko hedatze gogoan bridarazteko politika 1593an, hain zuzen ere errege zedula batez, honek agintzen baitzuen *ontzirik ez joatea Perutik eta Leborretik Txinara eta Filipinar ubarteetara, eta handik eta Nueva Españatik erresuma hauetara ez ekartzea Txinako inolako merkantziarik*<sup>24</sup>. Bere eskariak eta proposamenak espainiar gortera helaraztea lortzeke, Bastidako arabar eta Manilako lehen apezpiku Domingo Salazar Madrilen zendu zen, 1594ko abenduaren 4an<sup>25</sup>.

## Oharrak

- <sup>1</sup> (GUTIÉRREZ, 1976, 452. or.).
- <sup>2</sup> (PORRAS CAMUÑEZ, 1985, 332.-335. or.).
- <sup>3</sup> Indietako Agiritegi Orokorra, Patronato, 25, 8.
- <sup>4</sup> Domingo Salazarrek Mexikon igarotako lehen urteei buruz, XVII. mendeko domingotar kronikagile Diego Aduarteren lekukotasuna nabarmentzen da, *Historia de la provincia del Santo Rosario de Filipinas, Japón y China* (1640) lanekoa. (ADUARTE, 1962, I. liburukia).
- <sup>5</sup> (HANKE, 1943, XXXVI).
- <sup>6</sup> Indietako Agiritegi Orokorra, Filipinas 339, 1, f149.
- <sup>7</sup> Gertakari honi buruzko dokumentuen artean Joan Bautista Gessio italiar kosmografoaren hiru agiri nabarmentzen dira: Felipe II.ari bidalitako bi gutun, 1578ko apirilaren 14an eta 1578ko urriaren 25ean datatuak (Indietako Agiritegi Orokorra, Patronato, 24, 66 eta Patronato, 24, 43), eta *Relación de la isla y ciudad de Machao, y su situación en longitud y latitud, en qué demarcación cae, de su erección en Cathedra obispal y de las bulas expedidas por el Papa para esto, y en qué hacen perjuicio a S.M. y a la conquista de Castilla* izenekoa, 1579an datatua (Indietako Agiritegi Orokorra, Patronato 24, 66, 67.-68. or.).
- <sup>8</sup> (COSTA, 1950, 315).
- <sup>9</sup> Indietako Agiritegi Orokorra, Filipinas, 339, 1, f. 159-160.
- <sup>10</sup> (GUTIÉRREZ, 1979, 21. or.).
- <sup>11</sup> Indietako Agiritegi Orokorra, Filipinas 74.
- <sup>12</sup> *Ibid.*
- <sup>13</sup> (PORRAS CAMUÑEZ 1988, 207.-208. or.).
- <sup>14</sup> Indietako Agiritegi Orokorra, Filipinas, 84.
- <sup>15</sup> (COLIN-PASTELLS, 1904, II, 464. or.).
- <sup>16</sup> (PORRAS CAMUÑEZ, 1990, 803.-815. or.).
- <sup>17</sup> Indietako Agiritegi Orokorra, Filipinas 339. *Registro de cédulas* (MONTALBAN, 1930, 95. or.).
- <sup>18</sup> Indietako Agiritegi Orokorra, Filipinas 74.
- <sup>19</sup> (PORRAS- SALAZAR, 1988, 243. or.).
- <sup>20</sup> (COLIN-PASTELLS, 1904, II, 389. or.).
- <sup>21</sup> (HANKE, 1943, 121.-122. or.).
- <sup>22</sup> Domingo Salazarrek Felipe II.ari 1583ko ekainaren 18an. Indietako Agiritegi Orokorra, Patronato 25, 8. (COLIN-PASTELLS, 1904, II, 312. or.).
- <sup>23</sup> Manilan epe horretan zehar gertatzen zen ondasun falta arazoak argitzen dituzten hainbat dokumentu daude neurri batean jaso eta glosaturik honetan: MORGA-RETANA, 1910, 16\*-21\*. Era berean, Domingo Salazar Filipinetako apezpiku lanetan aritu zen denboran zehar Filipinetako koloniaren egoera konplexuari buruzko laburpen bikaina dugu honakoan: COSTA, 1950, 314.-332. or.).
- <sup>24</sup> AMN Colección Fernández Navarrete, XVIII, 298. fol.
- <sup>25</sup> (RICCI-D'ELIA, 1942, I, 214, n. 2), (COLIN-PASTELLS, 1904, I, 164. or.), (PASTELLS & LANZAS, 1925-1936, II, CXLIII, CXLV).

cruzar el Pacífico y el Atlántico para presentarse ante la corte española a defender personalmente sus posiciones respecto a la colonia filipina, obedecen tanto al recrudescimiento de los conflictos acerca de la encomienda focalizados en su confrontación con el gobernador Gómez Pérez Dasmariñas, como a su cambio de posición respecto a la empresa de China, pasando del apoyo absoluto a las tesis belicistas impulsadas por Alonso Sánchez al apoyo al envío de amplios contingentes de misioneros dominicos y franciscanos al interior del territorio chino sin apoyo militar alguno.

En esta disputa de estrategias frente a China, finalmente se impuso en la corte una política que aunaba los aspectos menos expansivos de las posiciones de Sánchez y de Salazar: la política seguida por Felipe II

de rechazo a los planes de conquista de China concordaba con las posiciones del obispo Salazar, mientras la negativa a conceder permisos y a financiar el envío de amplios contingentes misionales dominicos y franciscanos al interior del territorio chino concordaba con las de Alonso Sánchez. Felipe II reiteraría y fijaría esta política de paralización de las ansias expansivas hacia China el año 1593 en la *Real Cédula de su Magestad en que manda que no vayan Navíos desde Perú y Tierra Firme a la China e Islas Filipinas, ni se traigan de ellas ni de Nueva España a estos reynos mercadurias alguna de China*<sup>24</sup>. Sin haber conseguido llevar adelante sus peticiones y propuestas ante la corte española, el alavés de Labastida, el primer obispo de Manila, Domingo de Salazar moría en Madrid el 4 de diciembre de 1594<sup>25</sup>.

## Notas

<sup>1</sup> (GUTIÉRREZ, 1976, 452).

<sup>2</sup> (PORRAS CAMUÑEZ, 1985, 332-335).

<sup>3</sup> Archivo General de Indias (AGI) Patronato, 25, 8.

<sup>4</sup> Sobre los primeros años de la presencia en México de Domingo de Salazar destaca el testimonio del cronista dominico del siglo XVII Diego Aduarte en su *Historia de la provincia del Santo Rosario de Filipinas, Japón y China* (1640). (ADUARTE, 1962, vol I).

<sup>5</sup> (HANKE, 1943, XXXVI).

<sup>6</sup> AGI Filipinas 339, 1, f.149.

<sup>7</sup> Destacan entre los documentos referentes a este episodio tres del cosmógrafo italiano Juan Bautista Gessio: dos cartas a Felipe II fechadas el 14 de abril de 1578 y el 25 de octubre de 1578 (AGI Patronato, 24, 66 y AGI Patronato, 24, 43) y la *Relación de la isla y ciudad de Machao, y su situación en longitud y latitud, en qué demarcación cae, de su erección en Cathedra obispal y de las bulas expedidas por el Papa para esto, y en qué hacen perjuicio a S.M. y a la conquista de Castilla*, fechada en 1579 (AGI Patronato 24, 66, 67-68).

<sup>8</sup> (COSTA, 1950, 315).

<sup>9</sup> AGI Filipinas, 339, 1, f. 159-160.

<sup>10</sup> (GUTIÉRREZ, 1979, 21).

<sup>11</sup> AGI Filipinas 74.

<sup>12</sup> *Ibid.*

<sup>13</sup> (PORRAS CAMUÑEZ 1988, 207-208).

<sup>14</sup> AGI Filipinas, 84.

<sup>15</sup> (COLIN-PASTELLS, 1904, II, 464).

<sup>16</sup> (PORRAS CAMUÑEZ, 1990, 803-815).

<sup>17</sup> AGI Filipinas 339. *Registro de cédulas* (MONTALBAN, 1930, 95).

<sup>18</sup> AGI Filipinas 74.

<sup>19</sup> (PORRAS-SALAZAR, 1988, 243).

<sup>20</sup> (COLIN-PASTELLS, 1904, II, 389).

<sup>21</sup> (HANKE, 1943, 121-122).

<sup>22</sup> Domingo de Salazar a Felipe II el 18 de junio de 1583 AGI Patronato 25, 8. (COLIN-PASTELLS, 1904, II, 312).

<sup>23</sup> Se encuentran reproducidos parcialmente y glosados diversos documentos que ilustran los problemas de carestía y escasez de bienes en Manila durante este periodo en (MORGA-RETANA, 1910, 16\*-21\*). Se encuentra asimismo una excelente síntesis de la compleja situación en la que se encontraba la colonia filipina durante el periodo durante el cual Domingo de Salazar ejerció como obispo de Filipinas en (COSTA, 1950, 314-332).

<sup>24</sup> AMN Colección Fernández Navarrete, XVIII, fol. 298.

<sup>25</sup> (RICCI-D'ELIA, 1942, I, 214, n. 2), (COLIN-PASTELLS, 1904, I, 164), (PASTELLS & LANZAS, 1925-1936, II, CXLIII, CXLV).



# ARGIEN MENDEKO ITZALEN ARTEAN AURKITUA. MANUEL AGOTE, FILIPINETAKO ERREGE KONPAINIAREN AGENTEA (1779-1797) \*

Carlos Rilova Jericó

*Euskal Herriko Unibertsitatea*

## Sarrera. Karikaturatik historiara

Meltxor Oianguren (Leintz-Gatzaga, Gipuzkoa) frantziskotarraren obrak, XVIII. mendean argitaratuak. Ezkerrean, Filipinetako hizkuntza nagusia den tagaloaren gramatika. Eskuinean, japonierari buruzko lehen gramatika espainiarra. Oiangurennek, ostean, tagalo-gaztelania-euskara hiztegi bat prestatu zuen, baina ez zuten inoiz argitaratu. Agiritegi Frantziskotar Iberiar-Ekialdekoa, Madril.

Lehenago, Domingo Ezkerra jesuitak Cebuko hizkuntzarekiko eta honen aldaera batzuekiko interesa erakutsi zuen, eta *Arte de la lengua visaya* argitaratu zuen Manilan (1663).

Obras del franciscano Melchor de Oyanguren (natural de Salinas de Léniz, Gipuzkoa) publicadas en el siglo XVIII. A la izquierda gramática del tagalo, principal lengua de Filipinas. A la derecha la primera gramática española de la lengua japonesa. Oyanguren preparó además un diccionario tagalo-castellano-euskera, pero no llegó a publicarse. Archivo Franciscano Ibero-Oriental, Madrid.

Con anterioridad, el jesuita Domingo Ezguerra se interesó por la lengua cebuana y algunas de sus variantes publicando en Manila *Arte de la lengua visaya* (1663).



Jesuiten aurkako grabatu anonimoa, seguruenik XVIII. mendekoa.  
San Telmo Museoa, Donostia.

Irudi honek oso modu satirikoan jasotzen ditu Jesusen Lagundiaren ustezko errege-hilketa eta krimenak, misioetako esplotazio ekonomikoarekin eta erlijiosotasun faltsuarekin batera. XVIII. mendean Europako hainbat herrialdetan hasi zen jesuiten kontrako jazarpenak satira grafiko eta literario ugari sorrarazi zituen.

Jesusen Lagundiak eginkizun garrantzitsua bete zuen Japon eta Txinaren ebanjelizazioan. Gainera, eragin handia izan zuen ekialdeko kultura Europan zabaltzeko unean, begi-bistakoa baita, arte eta dekorazio arloko adierazpenetan.

Grabado antijesuítico anónimo, probablemente del siglo XVIII.  
Museo San Telmo, San Sebastián.

La estampa alude satíricamente a los supuestos regicidios y crímenes de la Compañía de Jesús, la explotación económica de las misiones y la falsa religiosidad. La persecución contra los jesuitas desencadenada en diversos países europeos en el siglo XVIII dio origen a numerosas sátiras gráficas y literarias.

La Compañía de Jesús tuvo un destacado papel en la evangelización de Japón y China. Su influencia fue grande, además, en la difusión de la cultura oriental en Europa con reflejo evidente en las expresiones artísticas y decorativas.



Japongo lehen martiriak. XIX. mende amaierako litografia.  
San Telmo Museoaren bilduma.

Frantzisko Xabierren eta beste jesuita batzuen misiolari lanaren eraginez, kristautasuna bizkor garatu zen Japonen; halaz, 1570erako 30.000 kristau inguru izango ziren jada. 1587an hauen kontrako jazarpena hasi zen, eta urte batzuetan salbuespenak izan baziren ere, bi mende pasatxo iraungo zituen honek. 1597an 26 kristau exekutatu zituzten Nagasakin, tartean Martín Jasokundekoa, euskal frantziskotarra. XVII. mendearen hasieran, jazarpen hau are latzago bihurtuko zen: misiolariak kanporatu egin zituzten, kristautasuna galarazi egin zuten, eta 5.000 kristau baino gehiago hil zituzten mende erdi batean (tartean zeuden Migel Aozaratz eta Domingo Erkizia gipuzkoarrak). Kultura askatasuna ez zen XIX. mendearen erdialdea arte helduko Japoniara.

Los primeros mártires del Japón. Litografía de finales del siglo XIX.  
Colección Museo San Telmo.

La actividad misionera de Javier y otros jesuitas hizo que el cristianismo se desarrollara rápidamente en Japón, calculándose para 1570 un número de 30.000 cristianos. En 1587 se inició contra ellos una persecución que, descontando los períodos de permisividad, duraría más de dos siglos. En 1597 fueron ejecutados en Nagasaki 26 cristianos entre los que estaba el franciscano vasco Martín Aguirre de la Ascensión. A principios del siglo XVII la persecución se recrudeció: los misioneros fueron expulsados, se prohibió el cristianismo y más de 5.000 cristianos murieron en medio siglo (entre ellos los guipuzcoanos Miguel de Aozaraza y Domingo de Erquicia). La libertad de culto no llegaría a Japón hasta mediados del siglo XIX.



## EKIALDEKO ATEAREN DEFENTSA ETA ADMINISTRAZIOA

Merkataritza begira eta geostrategiaren ikuspegitik zuen interesagatik, filipinar uhartedia txinatarrek, japoniarrek, holandarrek eta ingelesk eskuratu nahi zuten harrapakina izan zen. Horien guztien aurrean defentsa antolatu zen, itsasontzi bidez eta indar militarrez, baliabidez urri batzuetan, baina honek koloniaren kontrolari eustea ahalbidetu zuen, XIX. mendearen amaiera aldera arte. Euskaldun askok hartu zuten parte eginkizun horretan, eta batzuk aipatze aldera, hortxe ditugu Joan Tello Agirre (1598an Siamgo eresumara egin lehen bisita ofizialaren protagonista izan zen, gainera), Joan Altzega, Felipe Ugalde, Frantzisko Etxebeste, Ventura Barcaiztegi edo Ignazio María Alaba, Armadako marinelak guztiak.

Gobernu, administrazio eta justizia eginkizunak ez ziren errazak gertatu uhartedi izugarri hartan; izan ere, espainiarren presentzia oso ahula izan zen biztanlez, eta Manila ingurura eta uharte nagusietako perimetro-inguruetara mugatua gainera. Manilako Galeoiari lotutako merkatarien eta militarren, kleroaren, indigenen eta kolono txinatar eta japoniarren interesak elkarrekin egokitzen ahalegintzea, sarritan zeharo elkarren kontrakoak baitziren, lan nekeza zen, eta ezinezkoa ere bai zenbaitetan. Euskal Herritik heldutako jendeak ere arituko ziren gobernu eta administrazio lan eta karguetan, gauzak ahalik eta ondoen eta zintzo jokatuz eramateko ahaleginaz, hala nola Sebastian Hurtado de Corcuera, Martín Urtzua, Gabriel Gurutzelaegi, Fausto Cruzat, Domingo Zabalburu, Simón Anda, José Gardoki, Luis Lardizabal, Manuel Aguirre-Miramón, Antonio Urbiztondo, Fernando Norzagarai, Rafael Etxague eta Ramón Blanco, beste askoren artean.

*Irudia:* Espainiarren eta holandarren arteko itsas borroka. Olio-pintura flandestar anonimoa, XVII. mendekoa. Madrilgo Museo Naval.



## ADMINISTRACIÓN Y DEFENSA DE LA PUERTA DE ORIENTE

Por su interés comercial y geoestratégico, el archipiélago filipino fue pieza codiciada por chinos, japoneses, holandeses e ingleses. Contra ellos se dispuso una defensa naval y militar, no siempre sobrada en recursos, que consiguió mantener el control colonial hasta finales del siglo XIX. En ese empeño participaron numerosos vascos. Cabe mencionar entre ellos a los marinos de la armada Juan Tello y Aguirre (protagonista además de la primera visita oficial al reino de Siam en 1598), Juan de Alcega, Felipe Ugalde, Francisco Echeveste, Ventura Barcaiztegui o Ignacio María de Álava.

Las labores de gobierno, administración y justicia no resultaron fáciles en aquel enorme archipiélago, donde la presencia española fue siempre muy limitada en población y circunscrita al área de Manila y zonas perimetrales de las principales islas. Tratar de conciliar los intereses, muchas veces encontrados, de los comerciantes vinculados al Galeón de Manila, y de los militares, el clero, los indígenas y los colonos chinos y japoneses, era tarea difícil, cuando no imposible. Con mayor o menor acierto y honestidad ejercieron puestos de gobierno y administración gentes procedentes del País Vasco como Sebastián Hurtado de Corcuera, Martín de Urzua, Gabriel Gurucelaegi, Fausto Cruzat, Domingo de Zabalburu, Simón de Anda, José de Gardoqui, Luis Lardizábal, Manuel Aguirre-Miramón, Antonio de Urbistondo, Fernando de Norzagaray, Rafael de Echagüe y Ramón Blanco, entre otros muchos.

*Imagen:* Combate naval entre españoles y holandeses. Óleo anónimo flamenco, s. XVII. Museo Naval, Madrid.



Frantzisko Etxebeste, galeoieta jenerala Filipinar uharteetan eta Espainiaren enbaxadorea Tonkinen. XVIII. mendeko olio-pintura, aurreko beste baten kopia, frai Migel de Herrerak Mexikoko Bizkaitarren Kolegioko egin (1754). Usurbilgo parrokia (Gipuzkoa).

Frantzisko Etxebeste gipuzkoarrak eginkizun diplomatikoak bete zituen Tonkinen (egungo Vietnamen iparraldea). 1719an Tonkinerako bertarako ontzi espedizio bat zuzendu zuen, kristauak babesteko helburuaz, hauek oso jazarpen gogorra pairatzen ari ziren eta. Etxebestek emaitza positiboak lortu zituen bere eginkizunean, eta Filipinekiko harreman komertziala garatzeko akordio bat, baina honek, dirudienez, ez zuen bide luzeagirik egin. Geroago Mexikora joan zen bizitzera, eta han Manilako Galeoiarekin lotutako merkataritza jardueretan aritu zen. Gainera, Mexikoko Bizkaitarren Kolegioaren fundazioan hartu zuen parte, oso modu nabarmenean; hau ongintzako oso zentro garrantzitsua zen. Ezkongabe hil zen Mexikon, eta bere aberastasunen parte bat jaioterriari, Usurbili, eman zion. Horri esker, parrokiako dorre barroko handia eraiki zuten.

Francisco de Echeveste, general de galeones en las islas Filipinas y embajador de España en Tonkin. Óleo del siglo XVIII, copia de otro anterior, obra de fray Miguel de Herrera (1754) realizada para el Colegio de las Vizcainas de México. Iglesia parroquial de Usurbil (Gipuzkoa).

El general Francisco de Echeveste (Usurbil, 1683-México, 1753) fue enviado a Tonkin (norte del actual Vietnam) en 1719 para tratar de defender a los católicos de la sangrienta persecución a la que allí estaban sometidos. Echeveste obtuvo resultados positivos en su misión y logró incluso un acuerdo para el desarrollo de la relación comercial con Filipinas, aunque éste no tuvo, al parecer, mucho recorrido. Más tarde, pasó a vivir en México donde desarrolló actividades comerciales relacionadas con el Galeón de Manila y colaboró, de modo destacado, en la fundación del Colegio de las Vizcainas de México, importante centro de beneficencia. Falleció soltero en la ciudad de México y donó parte de su fortuna a su pueblo natal, Usurbil. Gracias a ella se construyó la gran torre barroca de la iglesia parroquial.





Simon Anda Salazarren erretratua. Behean erreproduzitutako olio-pinturaren xehetasuna.

Simon Anda (Subilla, Araba, 1709-Manila, 1776) epaile lanetan ari zen Manilako Entzutegian, britainiarrek 1762an hiria hartu zutelarik. Gobernu falta egoera ikusirik, oso eraginkortasun handiz antolatu zuen uhartediaren defentsa. 1770ean Filipinetako gobernadore eta kapitain jeneral izendatu zuten, eta kargu horretan arituko zen sei urte geroago zendu zen arte. Ilustrazioaren ideiak bereganatuak zituelarik, hainbat erreforma jarri zituen martxan, Filipinen garapen ekonomikora begira, eta horiek zirela eta parean topatuko zituen, batzuetan, ordena erlijiosoak; eta kolonizazioaren hainbat alderdi ere zalantzan jarriko zituen, esate baterako Manilako Galeoiaren merkataritza jarduerarekiko gehiegizko mendekotasuna, nekazaritza eta abelazkuntzaren ustiapen txikia, edota uhartedian zegoen kolono kopuru murrizta.

**Retrato de Simón de Anda y Salazar. Detalle del óleo reproducido abajo.**

Simón de Anda (Subijana, Álava, 1709-Manila, 1776) ejercía de oidor de la Audiencia de Manila cuando se produjo la toma de esa ciudad por los británicos en 1762. Ante la situación de desgobierno, organiza, con gran efectividad, la defensa del archipiélago. En 1770 es nombrado gobernador y capitán general de Filipinas, cargo que ostenta hasta su fallecimiento seis años más tarde. Como hombre de ideas ilustradas, emprendió reformas dirigidas al desarrollo económico de Filipinas que le llevaron a enfrentarse con las órdenes religiosas y a cuestionar aspectos de la colonización como la excesiva dependencia del comercio del Galeón de Manila, la reducida explotación agrícola y ganadera o el escaso número de colonos existente en el archipiélago.



Simon Andak egin Filipinen defentsa. Olio-pintura anonimoa. XVIII. mendea. Arabako Arte Ederren Museoa, Gasteiz.

Britainiarrek 1762an Manila hartu zutelarik, Simon Andak Filipinar uharteen defentsa antolatu zuen, bertakoez, espainiarrez eta espainiarberriarrez (mexikarrak) osatutako gudaroste bat eratuta. Mihiseak Simon Andaren erretratua erakusten digu goian, eta Filipinetako maparen inguruan, berriz zapuztutako britainiarren okupazio laburrean zehar izandako hainbat gerra ekintza irudikatuta.

**Defensa de Filipinas por Simón de Anda. Óleo anónimo. Siglo XVIII. Museo de Bellas Artes de Álava, Vitoria.**

Tras la toma de Manila por los británicos en 1762, Simón de Anda organizó la defensa de las islas Filipinas formando un ejército compuesto por nativos, españoles y novohispanos (mexicanos). El lienzo muestra en lo alto el retrato de Simón de Anda y en torno al mapa de Filipinas diferentes escenas que representan episodios y acciones bélicas que tuvieron lugar durante la breve y malograda ocupación británica.





135. orriko olio-pinturaren xehetasuna. Britaniarren inbasioaren alde egin zuten *sangleyeen* (Filipinetan finkatutako txinatarrak ziren) kontrako borroka. Mihiseko kartelan irakurtzen denaren arabera, hildakoak ugari izan ziren alde bietan.

Detalle del óleo de la pág. 135. Lucha contra los *sangleyes* (chinos asentados en Filipinas) que apoyaron la invasión británica. Según se lee en la cartela incorporada al lienzo hubo muchos muertos por ambas partes.



135. orriko olio-pinturaren xehetasuna. Bulacango gertakariak. Hogeita hamar fusilari, Pampanga eta Bulacango natiboen laguntzaz, britainiarrek okupatuta zuten lekunea berreskuratzen (koadroko legendaren arabera).

Detalle del óleo de la pág. 135. Sucesos de Bulacán. Treinta fusileros apoyados por nativos de Pampanga y Bulacán recuperan el enclave ocupado por los británicos (según leyenda del cuadro).



135. orriko olio-pinturaren xehetasuna. José de Busto, Andaren indarren ofiziala, britainiarrak mendean hartzen (koadroko legenda).

Detalle del óleo de la pág. 135. José de Busto, oficial de las fuerzas de Anda, vence a los británicos (leyenda del cuadro).



135. orriko olio-pinturaren xehetasuna. Simon Anda arma fabrikazioa ikuskatzen.

Detalle del óleo de la pág. 135. Simón de Anda supervisa la fabricación de armas.





135. orriko olio-pinturaren xehetasuna. Matxinada Pangasinán probintzian. Beste gertakari batzuen artean, irudiak Bayambán hartzeko ekintza odoltsua islatzen du.

Detalle del óleo de la pág. 135. Rebelión en la provincia de Pangasinán. Entre otros episodios la imagen refleja la toma, a sangre y fuego, de Bayambán.



135. orriko olio-pinturaren xehetasuna. Britainiarrei atzera eragin zien Binanen, Bayko aintziran, espainiarrez eta indigenez osatutako indar batek (koadroko legenda).

Detalle del óleo de la pág. 135. Los británicos son rechazados en Binan, laguna de Bay, por una fuerza compuesta por españoles e indígenas (leyenda del cuadro).



135. orriko olio-pinturaren xehetasuna. Simon Anda eta José de Busto beren soldaduekin Manilan sartzen.

Detalle del óleo de la pág. 135. Simón de Anda y José de Busto entran en Manila con sus tropas.





## MANILAKO GALEOIA

Urdanetak 1565ean erakutsi zuenean Ozeano Barea Mendebaldetik Ekialderantz zeharkatu zitekeela, astirik batere galtzeke abian jarri zuten Filipinak eta Mexiko bi mende eta erdiz lotuko zituen merkataritzako bidea. Manilako Galeoia edo Txinako Ontzia deitu hark merkataritza-trukea eta ideia, hizkuntza, ohitura eta nekazaritzarako espezieen jariora ahalbidetu zituen, denbora luze horretan zehar, Asia Ekialdearen, Mexikoren eta Espainiaren artean.

Galeoia urtero abiatzen zen Manilatik, batez ere Txinako produktuekin, hala nola, zetazko ehunekin, porzelanekin, marfilekin eta oso balio handiko beste artisau-gauza askorekin.

Bestelako produktuak ere eramaten zituen: Indonesiako espeziak, Filipinetako eskulanak eta Japonia, Siam, Birmania, India edo Pertiako bestelako salgaiak. Acapulcotik itzultzerakoan, batez ere amerikar zilarrez kargaturik (barrak eta txanponak izan ohi ziren), joaten zen, eta Asiako produktuak ordaintzeko eta koloniar eusteko erabiltzen zuten. Halaber, funtzionario zibilak, militarrek eta erlijiosoak ere eramaten zituen bidaiari.

Inguru haietan portugesez, holandar eta britaniarren lehia nabarmena izan zen arren, Manilak merkataritza-trukerako portu-enklabe izaten jarraitu zuen eta, garai batzuetan Asia Ekialdeko merkataritza-kontratazioaren gune nagusia izatera iritsi zen. Horrenbestean, Pazifikokoan zeharreko Manila-Acapulco nabigazio-linea, lehenbiziko globalizazio komertziala ahalbidetu zuena, erregulartasunez aritu zen, 1815ean itxi zuten arte.


## EL GALEÓN DE MANILA

Cuando Urdaneta logra demostrar en 1565 que el Pacífico podía cruzarse de Oeste a Este, se pone inmediatamente en marcha la ruta que conectaría Filipinas con México durante dos siglos y medio. El denominado Galeón de Manila o Nao de China posibilitó a lo largo de ese tiempo el intercambio mercantil y el flujo de ideas, lenguas, costumbres y especies para cultivos agrícolas entre Asia Oriental, México y España.

El Galeón partía anualmente de Manila con cargamento mayoritario de productos de China como tejidos de seda, porcelanas, marfiles y otros objetos de gran valor artesanal. Junto a estos productos se encontraban las especias de Indonesia, algunas manufacturas filipinas, y mercancías diversas de Japón, Siam, Birmania, India o Persia. La carga principal del retorno desde Acapulco era la plata americana (en barras y monedas) que servía para el pago de los productos asiáticos y el sostenimiento de la colonia. El Galeón servía también para el desplazamiento de funcionarios, militares y religiosos.

Pese a la competencia que supuso la presencia de portugueses, holandeses y británicos en aquellas latitudes, Manila se mantuvo como enclave portuario de intermediación comercial, llegando a ser, en determinadas épocas, el principal centro de contratación de mercancías del Oriente asiático. La línea de navegación transpacífica Manila-Acapulco, cauce que hizo posible la primera globalización comercial, se mantuvo con regularidad hasta su cierre en 1815.





Manilako Galeoi edo Txinako Ontziaren ibilbidea. José Francisco Baderaco. Cádiz, 1750. Madrilgo Museo Naval.

Acapulco eta Manila arteko bidaiak, tropikoetan zeharrekoak, hiru bat hilabete hartu ohi zituen. Manila-Acapulco bidaiak, berriz, bost eta zazpi hilabete bitartean irauten zuten. Bidaia zeharo luze horretan zehar, ura eta janaria hondatu egiten ziren azkenean, eta gaitzek heriotza asko eragiten zuten.

Bakoitzak zuen lanbidez gain, Manilan finkatutako euskaldunek parte hartu zuten, neurri batean edo bestean, Galeoiaren eta Txinako produktuen inguruan osatutako negozioan. Aberastasun handienak lortu zituzten merkatarien artean izan ziren Pedro Antzondo, XVII. mendean, eta Lorenzo de Novia, XVIII. ean. XIX. mendean hasieran jada, Jose Antonio Aguirre nabarmetzen da. Donostiar marinel honek Txina eta Filipinar uharteetara merkataritzan espezializatutako enpresa bat sortu zuen Nueva Españako (Mexiko) hiriburuan, nahiz arrakasta ekonomikorik handiena Kalifornian finkatu zenean erdietsi zuen.

#### Ruta del Galeón de Manila o Nao de China. José Francisco Baderaco. Cádiz, 1750. Museo Naval, Madrid.

El viaje entre Acapulco y Manila, por los trópicos, venía a durar, normalmente, unos tres meses. La derrota Manila-Acapulco, duraba entre cinco y siete meses. Durante esta larga travesía, el agua y la comida terminaban por deteriorarse y las enfermedades provocaban una alta mortalidad.

Al margen de su oficio específico los vascos asentados en Manila participaron en mayor o menor medida en el negocio que giraba en torno al Galeón y los productos de China. Entre los comerciantes que lograron mayor fortuna estuvieron Pedro Anciondo en el siglo XVII y Lorenzo de Novia en el XVIII. Ya a comienzos del siglo XIX destaca la figura de José Antonio Aguirre, marino donostiarra que estableció en la capital de Nueva España (México) una empresa especializada en el comercio con Filipinas y China aunque su mayor éxito económico lo obtendría a partir de su asentamiento en California.



Filipinetako merkataritzaren oroitzapenezko zilarrezko domina baten atzealdea, 1769. Historia Museo Nazionala, Mexiko D.F.

Filipinetako Ibilian erabili zituzten lehen itsasontziak *nao* deituak izan ziren. XVII. mendean hasieratik aurrera galeoiak hasiko ziren erabiltzen *naoen* ordez, neurri handiagokoak izateaz gain prestatuago baitzeuden eraso eta defentsarako. XVIII. mendean hasieran, eta izen zaharrak mantentzen bazituzten ere ("nao" eta "galeoi"), *navío* izena hasiko zen nagusitzen, nahiz izen honen pean oso alde handiak egon zitezkeen neurrietan eta armamentuetan.

#### Anverso de medalla de plata, conmemorativa del comercio filipino, 1769. Museo Nacional de Historia, México D.F.

Las primeras embarcaciones utilizadas en la Carrera de Filipinas fueron naos. Desde comienzos del siglo XVII se sustituyen por galeones, naves de mayor porte y capacidad ofensiva y defensiva. Ya a comienzos del XVIII, y aunque se mantienen las denominaciones arcaicas ("nao" y "galeón"), se impone el *navío* aunque bajo este término los barcos podían tener notables diferencias de porte y armamento.



Acapulcoko portua. Ogilvy-ren grabatua, 1670. Lopez de Legazpiren dorretxea, Zumarraga.

Urdanetak Acapulco aukeratu zuen itzulerako bidaiarako helmugatzat, oso portu baldintza onak eskaintzen zituelako. Manilako Galeoia Acapulcora heltzen zenean feria bat antolatzen zuten, eta Mexiko eta Peruko milaka pertsona joaten zen horretara.

#### Puerto de Acapulco. Grabado de Ogilvy, 1670. Casa-torre de López de Legazpi, Zumarraga.

Urdaneta eligió Acapulco como punto de llegada del tornaviaje por sus buenas condiciones portuarias. Cuando el Galeón de Manila arribaba a Acapulco se organizaba una feria a la que asistían miles de personas de México y Perú.



Balaustre-loreontzia, peonia eta txoriz apaindua. Txinako portzelana, familia arrosa, Qiannlong garaia, 1736-1795. Gipuzkoako Foru Aldundiaren bilduma (Foru Jauregia)

Manilako Galeoiak garraiatzen zituen Txinako portzelana eta zetek oso estimu handia zuten, bai Amerika hispaniarrean bai Espainia eta Europako beste herrialde batzuetan.

Jarrón balaustre decorado con peonías y pájaros. Porcelana china, familia rosa, época Qiannlong, 1736-1795. Colección Palacio Foral de la Diputación de Gipuzkoa.

Las porcelanas y sedas chinas que transportaba el Galeón de Manila eran sumamente apreciadas tanto en la América hispana como en España y otros países europeos.



Manilako merkata, Parian deitua. Juan Raveneten urkolorea, XVIII. mendearen amaiera. Madrilgo Museo Naval.

Manilaren eta Txina hegoaldeko kostaldearen artean zegoen merkataritza fluxua finkatzearekin batera, txinatar jatorriko biztanle talde bat finkatu zen Filipinetan. Txinatarren asentamendu prozesu hau Manilako agintariak kezkatzeko moduan hazi zen. XVII. mendean txinatarren hainbat matxinada izan zen eta bortizkeria beldurgarri zapaldu zituzten. Irudiaren ezker aldean txinatar merkatariek.

**Mercado de Manila, llamado el Parían. Aguada de Juan Ravenet, siglo XVIII. Museo Naval, Madrid.**

Con la consolidación del flujo comercial entre Manila y la zona costera del sur de China se estableció en Filipinas un grupo de pobladores de ese origen. El asentamiento chino creció hasta límites preocupantes para las autoridades de Manila. En el siglo XVII se produjeron sublevaciones chinas que fueron sofocadas con terrible dureza. A la izquierda de la imagen se observa la presencia de mercaderes chinos.





Kutxatila. Zur lakatu eta polikromatua. XIX. mendea. Kantongo (Txina) lantegia. Andre Mariaren Zeruratzea parrokia, Lekeitio (Bizkaia).

Caja de madera lacada y policromada. Siglo XIX. Taller de Cantón (China). Parroquia de La Asunción de Nuestra Señora María, Lekeitio (Bizkaia).




Kristoren azken arnasa, marfil hispaniar-filipinarra. Filipinak, XVII. mendea. Gipuzkoako Foru Aldundiaren bilduma (Foru Jauregia).

Manilako Galeoiak garraiatu ohi zuen merkantzietako bat gai erlijiosoko marfilezko tailak ziren. Egileak Manilan finkatutako txinatar eskulangileak ziren, eta ekialdeko ukitua ematen zieten espainiar imajinen ereduak.

**Cristo expirante, marfil hispano-filipino. Filipinas, siglo XVII. Colección Palacio Foral de la Diputación de Gipuzkoa.**

Una de las mercancías que habitualmente transportaba el Galeón de Manila eran las tallas de marfil de temática religiosa. Eran obra de los artesanos chinos asentados en Manila que aportaban un aire oriental a los modelos de la imaginaria española.



Zeta bordatuzko ohe-estalkia. Kantongo (Txina) lantegia. XIX. mendea. Andre Mariaren Zeruratzea parrokia, Lekeitio (Bizkaia).

Ohe-estalkia eta bere kutxatila (ezkerrean) dohaintza bat dira, Lekeitioko familia batek, hiru belaunaldiz Manilan (Filipinak) bizi eta gero, herrira itzultzean parrokiari egina. Horrelako ohe-estalkiak tapete moduan erabili ohi zituzten, aldareak, katafalkoak eta abar estaltzeko. Kasuren batean, palio gisa erabiltzera iritsi ziren. Lekeitiokoaren kasuan, ez dago zeremonia erlijiosoetan erabili zutenik erasota. [Testua: J. M. González Cembellín].

**Colcha de seda bordada. Taller de Cantón (China). Siglo XIX. Parroquia de La Asunción de Nuestra Señora, Lekeitio (Bizkaia).**

La colcha y su estuche (izquierda) forman una donación a la parroquia realizada por una familia de Lekeitio a su regreso a la villa tras residir durante tres generaciones en Manila (Filipinas). Este tipo de colchas solían utilizarse a modo de tapetes para cubrir altares, catafalcos, etc. En algún caso incluso llegaron a utilizarse como palios. En el caso de la de Lekeitio no hay constancia de que fuera utilizada en ceremonias religiosas. [Texto: J. M. González Cembellín].



Manilako Galeoiko marinela batek eskaintutako zinoparia, 1730ean. Oaxacako Bakardadearen Andre Mariaren basilika txikia, Mexiko. (C. Martínez-Shaw eta M. Alfonsoren *La ruta española a China* (2007) liburukoa).

Exvoto ofrecido por un tripulante del Galeón de Manila en 1730. Basílica Menor de Nuestra Señora de la Soledad de Oaxaca, México. (Del libro de C. Martínez-Shaw y M. Alfonso, *La ruta española a China*, 2007).



## FILIPINETAKO ERREGE KONPAINIA

XVIII. mendean, ilustrazioko erreformen garaian, Manilako Galeoiaren monopolio-trafikoak hainbat kritika jasoko zituen; izan ere, gutxi batzuk aberastu zituen jarduera komertziala alde batera utzita, Filipinetako nekazaritza, abelazkuntza edo baso baliabideak oso gutxi edo oker ustiatu zituzten.

Helburu nagusia uhartediaren garapena zuela aldarrikaturik, 1785ean Filipinetako Errege Konpainia fundatu zuten. Honek zuzeneko komunikazioa eta komertzioa ezarriko zuen Cádiz eta Manila artean. Praktikan, baina, Venezuela, Peru, Txina eta Indiarekiko truke zuzenak ere mantendu zituen.

Baionako finantza-gizon Frantzisko Cabarrús izan zen neurri handi batean Caracasko Errege Konpainia Gipuzkoarraren akziodun, egitura eta langileez eratu zuten enpresa berri honen bultzatzaile nagusia. Konpainia berriak Madrilen izango zuen egoitza, eta Cádizen, berriz, base nagusia, baina Donostia ere leku garrantzitsua izan zen haren merkataritza-egituran. Eta Pasaiak ekidatu ziren erabiliko zuten ontzidiaren zati handi bat.

Filipinetako Konpainiak 1834an izango zuen azkena. Une horretan, Espainian iraultza liberal bat nagusitu zen, eta era horretako guztiak bezala ez zegoen horrelako konpainia pribilegiozkoak onartzeko prest. Edonola ere, Konpainiaren emaitzen balantzea positiboa zela esan dezakegu, Europako beste herrialde batzuetako merkataritza konpainiek lortutakoen parekoa.



## LA REAL COMPAÑÍA DE FILIPINAS

En el siglo XVIII, tiempo de las reformas ilustradas, el tráfico monopolístico del Galeón de Manila será visto con ojos críticos ya que, al margen de la actividad comercial que enriqueció a una minoría, los recursos agrícolas, ganaderos o forestales de Filipinas habían sido poco o mal explotados.

Declarando como su primer objetivo el desarrollo del archipiélago, se funda en 1785 la Real Compañía de Filipinas, estableciendo comunicación y comercio directo desde Cádiz con Manila. En la práctica mantuvo también intercambios directos con Venezuela, Perú, China e India.

Francisco Cabarrús, financiero natural de Bayona, fue el principal impulsor de esta empresa que se constituyó en buena parte sobre el accionariado, las estructuras y el personal de la Real Compañía Guipuzcoana de Caracas. La nueva Compañía tuvo su sede en Madrid y su base principal en Cádiz, pero San Sebastián fue también un enclave importante en su estructura mercantil. En Pasajes se construyó una parte considerable de su flota.

La Compañía de Filipinas se extinguirá en 1834, momento en el que triunfa en España una revolución liberal, reacia, como todas ellas, a reconocer compañías privilegiadas. En cualquier caso el balance de resultados de la misma puede considerarse positivo, equiparable al obtenido por compañías mercantiles de otros países europeos.




Filipinetako Errege Konpainiaren akzioa, 1785. C.Acuñaren marrazki baten gainean F.Selmak egindako grabatua. Untzi Museoaren bilduma.

Filipinetako Errege Konpainia Caracasko Errege Konpainia Gipuzkoarraren luzapen gisa sortu zuten. Gipuzkoarraren akziodunetako askok eta askok Filipinetakoaren sorreran lagundu zuten.

Acción de la Real Compañía de Filipinas, 1785. Grabado de F. Selma sobre dibujo de C. Acuña. Colección Untzi Museo-Museo Naval.

La Real Compañía de Filipinas surgió como prolongación de la Compañía Guipuzcoana de Caracas. Una parte considerable del accionariado de la Guipuzcoana apoyó la creación de la de Filipinas.



Filipinetako Konpainiaren *El Águila Imperial* fragata ehun, espezia eta ekialdeko beste hainbat produkturekin Cádiz iritsi delako abisua. 1788ko apirilaren 25a. Bilduma partikularra.

Aviso del arribo a Cádiz de la fragata *El Águila Imperial* de la Compañía de Filipinas con su carga de tejidos, especias y otros productos orientales. 25 de abril de 1788. Colección particular.



Manila eta badiaren ikuspegia. Fernando Brambila-ren urkolorea, XVIII. mendearen amaiera. Madrilgo Museo Naval.

Caviteko portuak, Manilako badiaren bertan kokatuta egonik, segurtasuna ematen zien ontziei, baina ez zituen tifo handien indar suntsitzaile beldurgarritik babesten.

Vista de Manila y su bahía. Aguada de Fernando Brambila, finales del siglo XVIII. Museo Naval, Madrid.

El puerto de Cavite, situado en la gran bahía de Manila, ofrecía seguridad a los buques aunque no los hacía inmunes al efecto devastador de los grandes tifones.





Francisco Cabarrús, Goyak 1788an egin erretratua. Baionakoa zen jaiotzez, Karlos III.aren kontseilari garrantzitsua, eta oso munta handiko eginkizuna bete zuen Filipinetako Konpainia abian jartzeko unean. Banco de España (Madril).

Francisco Cabarrús, retratado por Goya en 1788. Natural de Bayona, fue consejero de Carlos III y tuvo un papel muy destacado en la puesta en marcha de la Compañía de Filipinas. Colección Banco de España (Madrid).



Haizemailea, kareizko hagatxoak dituena. Kanton, XIX. mendea. Ekialdeko Museoa, Valladolid.

Abanico con varillaje de concha Carey. Cantón, siglo XIX. Museo Oriental, Valladolid.



Kantongo ikuspegia. XIX. mendeko anonimo txinatarra. Madrilgo Museo Naval.

Ikuspegi honetan, Kantongo faktoria komertzialen eta europar enbaxaden eraikin batzuk ikusten dira. Merkatu hiri garrantzitsu honetan hainbat urtez bizi izan zen Manuel Agote gipuzkoarra, Filipinetako Konpainiaren ordezkari gisa.

Vista de Cantón. Anónimo chino del siglo XIX. Museo Naval, Madrid.

Panorámica en la que se observan varios edificios de las factorías comerciales y embajadas europeas de Cantón. En esta importante ciudad mercantil residió durante años, como representante de la Compañía de Filipinas, el guipuzcoano Manuel de Agote.



### MANUEL AGOTE, EUSKAL ILUSTRATUA EKIALDE URRUNEAN

Manuel Agote Bonetxea (Getaria, 1755-Getaria, 1803) 24 urte zituela hasi zen Atlantikoan, Indiako Ozeanoan eta Pazifikokoan zeharreko itsas merkataritzako bidaietan Ustariz, San Gines y Cia. merkataritza etxearekin. 1787an Kanton eta Makaora bidali zuten, Filipinetako Errege Konpainiaren Txinako lehen ordezkari gisa. 1779 eta 1798 bitartean erredaktatu zituen egonaldi eta nabigazio egunkarietan, kultura zabaleko eta behaketaarako ahalmen handiko gizona ageri zaigu. Eta Ekialde Urrunari buruzko begiradaz ez zen merkataritza arlora mugatuko. Halaz, idatzi zuenak oso interes handia du, halaber, ikuspegi politiko, antropologiko eta kulturaletik. Bere bidaietan, Agotek oso kartografi lan aipagarria egin zuen, eta Pazifikoko hainbat uharte, kostalde eta hiriren planoak edo profilak egin zituen. Marrazkilari eta akuarelista bikaina izan zen gainera, eta interesgarri iritzi zion guztia xehetasun handiz ilustratu zuen.

*Irudia:* Javier López Altunaren marrazkia, 2008.

### MANUEL DE AGOTE, UN ILUSTRADO VASCO EN EL LEJANO ORIENTE


Manuel de Agote y Bonechea (Getaria, 1755-Getaria, 1803) inició, a la edad de 24 años, sus viajes náutico-comerciales por el Atlántico, el Índico y el Pacífico con la empresa gaditana Ustariz, San Ginés y Cía. En 1787 fue destinado a Cantón y Macao como primer representante de la Real Compañía de Filipinas en China. En los diarios

de estancia y navegación que redacta entre 1779 y 1798 se muestra como hombre de

amplia cultura y gran capacidad de observación. Su perspicaz mirada sobre Extremo Oriente no se limita a la vida comercial. Sus escritos también ofrecen considerable interés desde la perspectiva política, antropológica y cultural.

En sus viajes Agote llevó a cabo una apreciable labor cartográfica levantando planos o perfiles de determinadas islas, costas y ciudades del Pacífico. Agote fue además un excelente dibujante y acuarelista que ilustró con detalle todo aquello que despertaba su interés.


*Imagen:* Dibujo de Javier López Altuna, 2008.



*Panga*, Manilan bidaiariak garraiatzeko erabilitako ontzi mota bat. Manuel Agoteren marrazkia, bere 1797ko egunkarian jasoa. Aparteko testu batean honakoa dio: “Panga hauek bizkor-bizkor ibiltzen dira, eta oso ontzi gutxi dago horiek arraunez harrapatzeko gai. (...) Ontzi horiekin bizimodua ateratzen dute indio askok”. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Agiritegia.

*Panga*, tipo de embarcación utilizada en Manila para el transporte de pasajeros. Dibujo de Manuel de Agote incluido en su diario de 1797. En texto aparte señala: “estas Pangas son muy andadoras y pocas embarcaciones hay que las puedan alcanzar al remo (...) Con ellas buscan la vida muchos indios”. Archivo Diputación Foral de Gipuzkoa.






Pazifikoan ikusitako uhartea. Manuel Agotek marraztutako profila. Makao-Acapulco bidaiako egunkaria, 1781. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Agiritegia.

Isla avistada en el Pacífico. Perfil dibujado por Manuel de Agote. Diario del viaje Macao-Acapulco, 1781. Archivo Diputación Foral de Gipuzkoa.



Janista bat zorreatik zigorra jasotzen (Kantongo europarrekin bitartekari lana egiten zuten txinatar merkatariei *janista* esaten zieten). Kantongo egunkaria, 1795ekoa. Manuel Agote. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Agiritegia.


*Janista* sometido a castigo por deudas (los comerciantes chinos que actuaban como intermediarios con los europeos de Cantón eran conocidos como *janistas*). Diario de Cantón de 1795. Manuel de Agote. Archivo Diputación Foral de Gipuzkoa.



Manuel Agotek John M. Clerienen eskuan ikusi zuen tatuajea. Clerien pakebote ingeles bateko kapitaina zen, eta base bat jarri nahi zuen Palaos uharteetan Ekialdeko Indietako Konpainia Britainiarrarentzat. 1794ko egunkaria. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Agiritegia.

Tatuaje que Manuel de Agote observó en la mano de John M. Clerien, capitán de un paquebote de la Compañía británica de las Indias Orientales que pretendía establecer una base en las Islas Palaos. Diario de 1794. Archivo Diputación Foral de Gipuzkoa.






Manilako plazaren eta errebaletako batzuen plano, Manuel Agotek egina. 1787ko egunkaria. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Agiritegia.

Plano de la plaza de Manila y parte de sus arrabales, levantado por Manuel de Agote. Diario de 1787. Archivo Diputación Foral de Gipuzkoa.

Maparen azalpena / Explicación del mapa: 1) Catedral, 2) Palacio del Gobernador, 3) Casa del Cabildo, 4) Plaza de Armas, 5) Capilla Real, 6) Hospital Real, 7) Palacio del Arzobispo, 8) Casa de la Real Compañía de Filipinas, 9) Convento de Sto. Domingo, 10) Colegio de Sto. Domingo, 11) Colegio de S. Juan de Letrán, 12) Iglesia de Recoletos, 13) Convento de S. Francisco, 14) Tercera Orden de San Francisco, 15) Colegio Real de Sta. Potenciana, 16) Convento y Hospital de S. Juan de Dios, 17) Colegio Real de S. José, 18) Iglesia "que fue de los Padres de la Compañía de Jesús", 19) Iglesia de S. Agustín, 20) Puerta de Santiago, 21) Puerta de Almacenes, 22) Puerta de Sto. Domingo, 23) Puerta del Parián, 24) Puerta Real, 25) Puerta de Sta. Lucía, 26) Sta. Isabel y la Misericordia, 27) Fortín y Puente Otulay Grande ("como llaman los naturales"), 28) El río de Manila, 29) S. Fernando, 30) Parián, 31) Almacenes Reales, 32) La Bahía.




*Parao*, Manila eta inguruetan merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko ontzia. Manuel Agotek hainbat zehaztapen eman zituen ontzi honen ezaugarriei eta erabiltzen zituzten nabigazio teknikei buruz.

Manuel Agoteren egunkaria, 1797. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Agiritegia.

*Parao*, embarcación para el transporte de mercancías y pasajeros en Manila y alrededores. Manuel de Agote se extiende en precisiones sobre las características de esta embarcación y las técnicas de navegación empleadas.

Diario de Manuel de Agote, 1797. Archivo Diputación Foral de Gipuzkoa.





Acapulco portuaren plano (xehetasuna). Manuel Agoteren egunkaria, 1784koa. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Agiritegia.

Plano del puerto de Acapulco (detalle). Diario de Manuel de Agote de 1784. Archivo Diputación Foral de Gipuzkoa.

**DIA 16 al 17 de Jun. Mart. Variaz. Jo. 30. NE**

HMB	R.	Y	A
1	0.500	2.75	7
2	0.500	2.75	7
3	0.500	2.75	7
4	0.500	2.75	7
5	0.500	2.75	7
6	0.500	2.75	7
7	0.500	2.75	7
8	0.500	2.75	7
9	0.500	2.75	7
10	0.500	2.75	7
11	0.500	2.75	7
12	0.500	2.75	7
13	0.500	2.75	7
14	0.500	2.75	7
15	0.500	2.75	7
16	0.500	2.75	7
17	0.500	2.75	7
18	0.500	2.75	7
19	0.500	2.75	7
20	0.500	2.75	7
21	0.500	2.75	7
22	0.500	2.75	7
23	0.500	2.75	7
24	0.500	2.75	7
25	0.500	2.75	7
26	0.500	2.75	7
27	0.500	2.75	7
28	0.500	2.75	7
29	0.500	2.75	7
30	0.500	2.75	7

Latitud N. 13.º 23'  
 Dist. del Sol 13.º 20'  
 Long. del Sol 13.º 34'  
 Dist. del Sol 2.º 10'  
 Long. del Sol 13.º 24'  
 Dist. del Sol 12.º 32'  
 Long. del Sol 13.º 15'  
 Dist. del Sol 12.º 18'

Empezamos esta Simplicidad conda Pela con el 15<sup>o</sup> de Junio (el que fue trayendo poco a poco) Maritima los Orizontes cargados de neblina, y mas a la parte del N. y asi continuamos con el viento. Se han visto abundancia de Cadarnes parecidos a los de Aramagay y otros y por grande y fino, mas por los que Chigu. y para decirlos sean como de la figura de una B. y se encuentran en el Buque de una Albacora.

Manuel Agoteren 1783ko egunkariko orria. Geografiari eta metereologiari buruzko datu pila batekin batera, faunaren berri ere eman zuen, atuzuri baten sabelean aurkitutako arrain txiki baten marratzkia esaterako. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Agiritegia.

Página del diario de Manuel de Agote de 1783. Junto a una diversidad de datos geográficos y observaciones metereológicas informa sobre la fauna incluyendo el dibujo de un pequeño pez encontrado en el buche de una albacora. Archivo Diputación Foral de Gipuzkoa.



Joan Sebastian Elcano. Fernando Selmak marraztu eta grabatutako estampa, Martín Fernández de Navarreteren Colección de los viajes y descubrimientos que hicieron por mar los españoles... liburua (Madril, 1825-1837, IV. liburukia) ilustratzen duena.

Grabatuak Getarian, 1801ean, Manuel Agoteren kontura altxatu zuten marmolezko estatua kopiatzen du. Monumentua txikituta geratu zen 1835ean, karlistek Getaria bonbardatu zutenean.

Osasun arrazoiak zirela eta, Manuel Agote Gipuzkoara itzuli zen 1798an. Hurrengo urtean bere jaioterriko alkate izendatu zuten. Hil aurretik -1803an zendu zen- Gipuzkoan bale harrapatzea berpizteko proiektu bat idatzi eta aurkeztu zuen Batzar Nagusietan.

Juan Sebastián Elcano. Estampa dibujada y grabada por Fernando Selma, que ilustra el libro de Martín Fernández de Navarrete, Colección de los viajes y descubrimientos que hicieron por mar los españoles..., Madrid, 1825-1837, vol. IV.

El grabado reproduce la estatua en mármol erigida en Getaria, en 1801, a expensas de Manuel de Agote. El monumento fue destruido durante el bombardeo carlista de Getaria en 1835.

Por razones de salud, Manuel de Agote retornó a Gipuzkoa en 1798. Al año siguiente fue nombrado alcalde en su villa natal. Antes de su fallecimiento, producido en 1803, escribió y presentó a las Juntas Generales un proyecto para tratar de reactivar la pesca de la ballena en Gipuzkoa.





*Colección de algunos Dioses y Hombres Venerables a quienes los Chinos ofrecen Sacrificios, 1795. Manuel Agoteren marrazki sorta. Untzi Museoaren bilduma. Sorta honetan 40 marrazki baino gehiago ziren. Hauetatik zazpi dauzka Donostiako Untzi Museoak, Bordeleko antikuario bati erosita.*

Ezkerretik eskuinera, eta goitik behera: Tsiao-tsai-thong-tsu; 2. Lohán; 17. Lohán; Ty Cuan. Tsiao-tsai-thong-tsu-ri buruz, Agotek honakoa dio: "ondratu zuten guztiak aberats ditzakeen haur bat da, eta horregatik benetan gurtzen duten guztiak aberats izango dira". Ty Cuan-i buruz, berriz, diosku txinatarrek eskaintzak egiten dizkioten idolo bat dela, eta "arbasoen arimez erruki dadila" erregutzen diotela.

*Colección de algunos Dioses y Hombres Venerables a quienes los Chinos ofrecen Sacrificios, 1795. Serie de dibujos de Manuel de Agote. Colección Untzi Museoa-Museo Naval. La serie estaba formada por más de 40 dibujos, de los cuales el Museo Naval de San Sebastián conserva siete, adquiridos a un anticuario de Burdeos.*

De izda. a dcha. y de arriba abajo: Tsiao-tsai-thong-tsu; el 2º Lohán; el 17º Lohán; Ty Cuan. Sobre Tsiao-tsai-thong-tsu Agote comenta que "es un niño que puede enriquecer a todos aquellos que le honoraron, y por esta razón todos aquellos que verdaderamente lo veneran, se volverán ricos". Respecto a Ty Cuan apunta que es un "Ydolo" al que los chinos presentan ofrendas y suplican "tenga consideración de las Almas de sus antepasados".





## ILUSTRAZIOKO MARINELAK OZEANO PAZIFIKOAN

XVIII. mendean, esplorazioek izaera zientifikoa hartu zuten. Armada britaniarra, frantseseko eta espainoleko fragatak eta korbetak itsasoak esploratzera abiatu ziren, galdutako paradisuen edo ozeanoen arteko pasabide irudizkoen bila; kasuan kasuko kolonietako geografiaren eta naturaren gaineko ezaguera zehatzagoa ere bilatzen zuten, jakina.

Espainiako koroak XVIII. mendean antolatutako hidrografi eta deskubrimenduko bidaien azpian dagoen arrazoi nagusia –Europako beste herrialdeetan gertatu bezala– oso interes geostrategiko eta komertzial zehatzak dira, baina giza geografia eta geografia fisikoaren ezagutzari egin zioten ekarpena errealitate ukaezina da.

Pazifikoko uretan armadak egin zituen itsas espedizioetan, lan zientifikoak egin zituzten haietan, oso-oso nabarmena izan zen euskal partaidetza. Beste batzuen artean, aipatzekoak dira Domingo Bonetxea, Jose Moraleda, Bruno Etzeta, Ignazio Maria Alaba eta Joan Antonio Ibargoitiaren ekarpen baliotsuak.

## MARINOS DE LA ILUSTRACIÓN EN EL PACÍFICO

En el siglo XVIII las exploraciones adquirieron carácter científico. Las fragatas y corbetas de las armadas británica, francesa y española, se dirigieron a explorar los mares en busca de paraísos perdidos o imaginarios canales de comunicación entre océanos; buscaban también un conocimiento más exacto de la geografía y la naturaleza de las respectivas colonias.

Los viajes hidrográficos y de descubrimiento organizados por la Corona española en el siglo XVIII responden primordialmente –como en los demás países europeos– a intereses geostratégicos y comerciales muy concretos, pero su contribución al conocimiento de la geografía física y humana constituye una realidad innegable.

La participación vasca en las expediciones marítimas de la Armada que desarrollaron trabajos de carácter científico en la cuenca del Pacífico fue muy destacada. Cabe resaltar, entre otras, las valiosas aportaciones de Domingo Bonechea José de Moraleda, Bruno de Hezeta, Ignacio María de Álava y Juan Antonio Ibargoitia.






Domingo Bonetxea. Jose Maria Salaberriaren olio-pintura. XX. mendearen hasiera. Gipuzkoako Ozeanografia Elkarte.

Getarian jaiotako Domingo Bonetxea fragata-kapitaina buru izan zen Tahitirako bi espediziotan, 1772 eta 1775 bitartean. Peruko erregeorde Manuel Amatek sustatutako espedizio hauek Pazifikoko hainbat uharteren aurkikuntza izan zuten emaitza. 20 mapa baino gehiago egiteaz gain, landarediari buruzko ikerketak eta maila zientifikoko beste hainbat behaketa egin zituzten.

Domingo de Bonechea. Óleo de José María Salaverría. Comienzos del siglo XX. Sociedad Oceanográfica de Gipuzkoa.

Capitán de fragata, nacido en Getaria, Domingo de Bonechea comandó dos expediciones a Tahití entre 1772 y 1775, promovidas por el virrey del Perú Manuel de Amat, que dieron como resultado el descubrimiento de varias islas del Pacífico. Además del levantamiento de más de 20 cartas se efectuaron estudios de flora y otras observaciones de carácter científico.



Santa Cruz de Ojatutirako portua, Tahiti uharterean (*Amaten ubartea* esaten zioten). Domingo Bonetxearen espedizioa, 1774. Egilea: Juan Hervé. Madrilgo Museo Naval. Domingo Bonetxeak Tahitira egindako bigarren espedizioan zehar altxatutako planoak. Bidaia honen helburu nagusia uharte horietan kolonia bat sortzea zen, baina azkenean oso iraupen laburra izan zuen frantziskotarren misio bat jartzera mugatu zen.

Puerto de la Santa Cruz de Ojatutira en la isla de Tahití (bautizada como isla de Amat). Expedición de Domingo de Bonechea, 1774. Autor: Juan Hervé. Museo Naval, Madrid. Plano levantado durante la segunda expedición de Domingo de Bonechea a Tahití. El principal objetivo de este viaje era la fundación de una colonia en las islas, pero finalmente se limitó al establecimiento de una misión franciscana que tuvo corta duración.



Maurua uharteko (Tahiti) errito goporra. Domingo Bonetxearen espedizioa, 1774. Antropologia Museo Nazionala, Madril.

Dolerita harrizko gopor hau antropologiarako balio paregabeko pieza bat da; izan ere, mundu osoan tipologia honetakoen artean osorik gorde den bakarra da. Zeremonia sakratuetan erabili ohi zuten, kavarako ontzi gisa. Kava *Piper Methyssticum*-en sustraiez egindako infusioa zen, eta tribuko buruzagiak hartzen zuen arbasoen jainkoekin identifikatzeko. Goporra Tahitiko Tu erregeak eman zien espedizioako kideei, Karlos III. arentzako opari gisa.

Cuenco ritual de la isla de Maurúa (Tahiti). Expedición de Domingo de Bonechea, 1774. Museo Nacional de Antropología, Madrid.

Este cuenco de piedra dolerita negra está considerado como pieza de excepcional valor antropológico por tratarse de la única de su tipología que se conserva completa en el mundo. Se empleaba en ceremonias sagradas como recipiente de kava, infusión de raíces de *Piper Methyssticum*, que el jefe tribal consumía para identificarse con sus dioses ancestrales. El cuenco fue entregado por el rey Tu de Tahiti a los expedicionarios como regalo para Carlos III.



Santa Cruz de Ojaturirako portua. Tahiti uhartea. Domingo Bonetxearen espedizioa, 1774. Madrilgo Museo Naval.

Bigarren espedizioan, Bonetxeak Jose Andia Varela portugaletarra izan zuen aldamean. Honek bere ontziaz hartu zuen parte espedizioan. Bidaiari buruzko kontakizun bat egin zuen, inguru hartako geografia, fauna, landaredia eta nekazaritza-produkzioa jasota.

Puerto de la Santa Cruz de Ojaturira. Isla de Tahiti. Expedición de Domingo de Bonechea, 1774. Museo Naval, Madrid.


En la segunda expedición Bonechea estuvo acompañado por José Andía y Varela, natural de Portugalete, que tomó parte en la expedición con su propio buque. Fue autor de una relación del viaje que atiende a la geografía de la zona, la fauna, la flora y la producción agrícola.

Jose Moraledaren *Viaje de reconocimiento de las islas de Chiloé* eskuizkribuko orria, 1790. Madrilgo Museo Naval.

Jose Moraleda pilotuak, Pasai San Pedron jaioa zenak, oso balio handiko lan hidrografikoa egin zuen Txileko eta Erdialdeko Amerikako kostaldeei buruz. Bere jardueran ez zen mapak trazatzera mugatu; honetaz gain, kostaldearen deskripzioa, kanaletako nabigazioaren ezaugarriak, portuetan babesteko aukerak, are lurren nekazaritzarako baldintzak ere jasotzen zituen.

Página del manuscrito de José de Moraleda. *Viaje de reconocimiento de las islas de Chiloé*, 1790. Museo Naval, Madrid

El piloto José de Moraleda, natural de Pasajes San Pedro, realizó un trabajo hidrográfico muy valorado sobre las costas de Chile y Centroamérica. Su actividad no se limitó al trazado de cartas, sino que incluía la descripción de la costa, las características de navegación de los canales, las posibilidades de abrigo de los puertos y hasta las condiciones agrícolas de las tierras.



Aricako (Txile) senaiako planoak, Jose Moraledak egin, 1785. Madrilgo Museo Naval.

Moraledaren mapa zehatzei oso probetxu handia atera zieten Malaspina eta beronen espedizioeko hidrografoek.

Plano de la rada de Arica (Chile) levantado por José de Moraleda, 1785. Museo Naval, Madrid.

Las detalladas cartas de Moraleda fueron utilizadas provechosamente por Malaspina y los hidrógrafos de su expedición.





Bruno Etzetak 1775ean Ozeano Barearen Amerikako kostaldearen iparraldera zuzendutako espedizioan zehar aurkitutako lau portu: Remedios, Bucareli, Trinidad eta Bodega. Agiritegi Historiko Nazionala, Madril.

Bruno Etzeta marinela bilbotarrak 1774-1775ean zuzendutako esplorazioak oso ekarpen handia egin zion Amerikako ipar-mendebaldeko kostaldearen ezagutzari. Errusiaren presentzia, gero eta gehiago baitzebiltzan ur horietan, eta Ozeano Barearen eta Atlantikoaren arteko pasabide bat aurkitzea izan zituen bidaiari hauetarako pizgarri. Etzetak egunkari bat erredaktatu zuen, eta bertan xehetasun handiz jaso zituen bere ibilbidea eta hidrografi lanak; gainera, testua oso interesgarria izango zen Amerikako ipar-mendebaldeko indigenak antropologiaren ikuspegitik ezagutzeko.

**Cuatro puertos descubiertos durante la expedición comandada por Bruno de Hezeta al norte de la costa pacífica americana en 1775: los Remedios, Bucareli, Trinidad y Bodega.**  
Archivo Histórico Nacional, Madrid.

La exploración dirigida por el marino bilbaino Bruno de Hezeta en 1774-1775 supuso una notable contribución al conocimiento de la costa del noroeste de América. La creciente presencia rusa en esas aguas y la localización de un posible paso entre el Pacífico y el Atlántico fueron el estímulo de estos viajes. Hezeta redactó un diario que recoge con detalle su itinerario y trabajos hidrográficos, resultando además de interés para el conocimiento antropológico de los indígenas del noroeste americano.



Gaspar itsasartearen plano, Indonesia. Ventura Barkaiztegi, XVIII. mendearen amaiera. Madrilgo Museo Naval.

Ventura Barkaiztegi donostiarra batez ere Kubako ekialdeko kostaldera egin zuen "ezkutuko espedizioagatik" dugu ezaguna, baina misio militar eta hidrografikoetan ere izan zen Asiako hego-ekialdean. Bankako itsasartearen eta Dos Hermanas uharteren mapa egin zuen. 1798an Barkaiztegik, bere ontzitik bertatik, filipinar kostaldean hondoratutako *Galeón San Andrés*-en tripulazioa, bidaiariak eta kargaren parte bat erreskatatzeko lanak zuzendu zituen. 1802ean Filipinetako bilgunearen agintea hartu zuen.

**Plano del Estrecho de Gaspar, Indonesia. Ventura de Barcaítegui, finales del siglo XVIII. Museo Naval, Madrid.**

El donostiarra Ventura de Barcaítegui es conocido sobre todo por su "expedición secreta" a la costa oriental de Cuba, pero también estuvo presente en misiones militares e hidrográficas en el sudeste asiático. Levantó carta del estrecho de Banka e isla de dos Hermanas. En 1798 Barcaítegui dirigió desde su buque las operaciones de rescate de la tripulación, pasaje y parte de la carga del *Galeón San Andrés* que había naufragado en la costa filipina. En 1802 tomó el mando del apostadero de Filipinas.



Ignazio Maria Alabaren erretratua. Vicente Escobarren olio-pintura, 1818. Madrilgo Museo Naval.

Ilustrazioko marinel nabarmena, nabigazioan eta borrokan oso historial luzea zuena bera, Ignazio Maria Alaba gasteiztarak Ozeano Bareko eskudraren komandante jeneral kargua beteko zuen 1795 eta 1803 bitartean. Filipinetan Manilako bilgunea antolatu eta uhartetiko eta Indonesiako itsas mapetan antzemandako akatsak eta gabezia hidrografikoak zuzentzen ahalegindu zen. Horretarako, mapa berriak egin zituen. Filipinetako Errege Konpainiak eskaturik, Ipar Pazifikoko tradizionalaz besteko itsasbideak trazatu zituen, ontzi ingelesak inguru haietan zebiltzala eta merkantzia trafikoari segurtasuna ematera begira. Aldi berean, Manila eta Callao arteko bidaia motzago egin nahi zuen.

Retrato de Ignacio María de Álava. Óleo de Vicente Escobar, 1818. Museo Naval, Madrid.

Destacado marino de la Ilustración, poseedor de un amplio historial de navegación y combate, el vitoriano Ignacio María de Álava desempeña entre 1795 y 1803 el cargo de comandante general de la escuadra del Pacífico. En Filipinas organiza el apostadero de Manila y se esfuerza por rectificar errores e insuficiencias hidrográficas detectadas en las cartas marinas del archipiélago y de Indonesia levantando nuevos mapas. A solicitud de la Real Compañía de Filipinas traza derrotas alternativas a la tradicional del Pacífico Norte para dar seguridad al tráfico de mercancías ante la presencia de buques ingleses, al tiempo que trataba de acortar el viaje entre Manila y El Callao.


*Configuración de varias islas por la fragata El Filipino en su viaje a Lima desde Cavite por la Mar del Sur.* Joan Antonio Ibargoitia, 1799. Madrilgo Museo Naval.

Joan Antonio Ibargoitia, Igorren jaiotako fragata-teniente bizkaitarra, izan zen Manilatik Limara joateko Ignazio Maria Alabak trazatutako itsasbide esperimentaletako lehena gauzatzeko arduraduna. 1799an bost hilabete behar izan zituen zeharkaldia egiteko, Ipar Pazifikokoan zeharrekoan bederatziz hilabete behar ziren bitartean. 1800ean porrot egin zuen, ordea, itsasbidea errepikatzeko ahaleginean, baina egin esfortzuak hego-hemisferioko haizeen erregimena hobeto ezagutzea ekarri zuen, bertan nabigatzera begira. Bigarren bidaia honetan Ibargoitiak, gainera, Palaos, Karolina eta Mariana uharteetako batzuk kokatu, deskribatu eta kartografiatu zituen.

*Configuración de varias islas por la fragata El Filipino en su viaje a Lima desde Cavite por la Mar del Sur.* Juan Antonio de Ibargoitia, 1799. Museo Naval, Madrid.

Juan Antonio de Ibargoitia, teniente de fragata vizcaíno, natural de Igorre, fue el encargado de ejecutar la primera de las derrotas experimentales trazadas por Ignacio María de Álava para viajar de Manila a Lima. En 1799 efectúa la travesía en cinco meses mientras que en la derrota tradicional del Pacífico Norte se invertían nueve.

En 1800 fracasó en el intento de repetir la derrota, pero su esfuerzo sirvió para un mejor conocimiento del régimen de vientos para la navegación por el hemisferio sur. En este segundo viaje Ibargoitia sitúa, describe y cartografía además varias islas de las Palaos, Carolinas y Marianas.







Magallaesen parkea, Manila, 1860. Filipinetako gobernadore eta kapitain jeneral Fernando Norzagarairi agurra-omenaldia. C.W. Andrews. *La Ilustración Filipina*.

Parque de Magallanes, Manila, 1860. Despedidad-homenaje a Fernando de Norzagaray, gobernador y capitán general de Filipinas. C.W. Andrews. *La Ilustración Filipina*.

## NEGOZIOA, GOBERNUA ETA MISIOA. XIX. MENDEA

XIX. mendean zehar, euskal presentzia nabarmen areagotu zen Filipinetan. 1834an merkataritza librea ezarri zutelarik, merkataritzaren arloan edo nekazaritzaren ustiapenean bidea egin nahi zuen emigrante mota bat iritsiko zen uharterdira. Horietako batzuek arrakasta izango zuten ontzi negozioan edo azukre, tabako, kafe edo abakaren produkzioarenean, hauexek baitziren uharterdiko oinarritzko produktu kolonialak XVIII. mendearen amaieraz geroztik.

Garai horretako Filipinetako gobernazioan beren indarra erakutsi zuten, halaber, botere militar gorena ere izan zuten hainbat euskaldunek, hauek baitziren: Jose Gardoki, Luis Lardizabal, Antonio Urbiztondo, Fernando Norzagarai, Rafael Etxague eta Ramon Blanco.

Ordena erlijiosoetako misiolarien ohiko fluxua ere mantentzen ari zen Ekialde Urrunean. Asiako geografiako eremu jakin batzuetan, misiolari hauen jarduerak arriskuz beteta segituko zuen, eta zenbaitek bizia emango zuen bere asmo eta ahalegin propagandista horretan.

## NEGOCIO, GOBIERNO Y MISIÓN. EL SIGLO XIX


En el siglo XIX la presencia vasca en Filipinas se incrementa considerablemente. Con la implantación del libre comercio en 1834, llega al archipiélago un tipo de emigrante que trata de abrirse paso en el ámbito mercantil o en la explotación agrícola. Algunos de ellos tendrán éxito en el negocio naviero o en la producción de azúcar, tabaco, café o abacá, los productos coloniales básicos del archipiélago desde finales del siglo XVIII.

En la gobernación de Filipinas de esa época hicieron notar su presencia varios vascos que ostentaron además el máximo poder militar: José de Gardoqui, Luis de Lardizábal, Antonio de Urbistondo, Fernando de Norzagaray, Rafael de Echagüe y Ramón Blanco.

El tradicional flujo de misioneros de las diferentes órdenes religiosas se mantiene en Extremo Oriente. En determinadas zonas de la geografía asiática su actividad no deja de estar exenta de peligros, y algunos perderán la vida en su anhelo propagandista.



LA AGRICULTURA EN LAS ISLAS FILIPINAS.



UNA «HACIENDA» EN LA ISLA DE NEGROS: 1, EXTERIOR DE LA CASA-HACIENDA.—2, CAMARÍN DONDE SE DEPOSITA EL AZÚCAR, SE PESA Y SE CARGA EN LOS WAGONES DE EXPORTACIÓN.—3, CAMARÍN DONDE SE HACE LA MOLENDINA.—(De fotografías remitidas por D. R. Echaur.)

**ENPRESA-ABENTURA  
FILIPINETAN**

XIX. mendearen lehen erdialdean zehar Filipinetan finkatu ziren euskal emigranteek bertako baliabideak apenas ustiatuta zeuden lurralde bat aurkitu zuten. Denborak aurrera egin ahala, ekintzaileen zati garrantzitsua eskuratuko zuten azukre, tabako, kafe edo abaka bezalako produktu kolonialen merkatuan.

Azukrearen sektorean ugari izan ziren Euskal Herritik joandako negozio gizonak. Hauek azukre produkzioarako zeuzkaten sailak Manilako aldirietan eta Negros eta Panay uharte handietan zehar hedatu ziren.

Itsas merkataritzaren eremuan ere euskal pilotu eta kapitain asko mugitu ziren, oso jarduera bizia izan zuten eta uhartediko kabotajeko bideetan zein Singapur eta Hong-Kongeko portuekiko trafiko handian. Ontzigtintza eta ontzi-enpresak ere aberastasunerako bide izan ziren.

*Irudia:* Azukre produkzioarako etxaldea Negros uhartean (Filipinak). Ricoren grabatua. *La Ilustración Española y Americana*, 1886. Untzi Museoaren bilduma.

**LA AVENTURA EMPRESARIAL  
EN FILIPINAS**

Los emigrantes vascos que se instalaron en Filipinas durante la primera mitad del siglo XIX se encontraron ante un territorio cuyos recursos apenas habían sido explotados. Con el paso del tiempo los más emprendedores lograron hacerse con una considerable parte del mercado de productos coloniales como el azúcar, el tabaco, el café o el abacá.

En el sector azucarero abundaron los hombres de negocios procedentes del País Vasco. Sus plantaciones se extendieron en la periferia de Manila y en las grandes islas de Negros y Panay.

En el ámbito del comercio marítimo se movieron muchos pilotos y capitanes vascos, muy activos tanto en las rutas de cabotaje del archipiélago como en el intenso tráfico con los puertos de Singapur y Hong-Kong. La construcción naval y la actividad naviera fueron también opciones de prosperidad.

*Imagen:* Hacienda azucarera en la isla de Negros (Filipinas). Grabado de Rico. *La Ilustración Española y Americana*, 1886. Colección Untzi Museo-Museo Naval.





Jose Joaquin Intsausti Gurrutxategiren (San Fernando, Cádiz, 1815-Manila, 1889) erretratua. Filipinetako enpresa munduaren figura garrantzitsuenetako bat izan zen XIX. mendearen bigarren erdialdean. Intsaustik 1854an fundatutako konpainia azukre eta abakaren produktiorako etxalde handien jabea izan zen, eta 20 ontzi baino gehiagoz osatutako flota ere eduki zuen. Destilategi bat eta sokateria, zementu, pintura, olio eta beste zenbait gauzatarako lantegiak ere eduki zituen. Jose Joaquin Intsausti izan zen, gainera, Banco Español-Filipino de Isabel II haren akziodun nagusietako bat, eta zuzendari nagusi ere izan zen hamarkada bat baino gehiagoz. (Intsausti familiaren bildumako argazkia).

Retrato de José Joaquín de Ynchausti Gurruchategui (San Fernando, Cádiz, 1815-Manila, 1889), una de las más importantes figuras del mundo empresarial filipino de la segunda mitad del siglo XIX. La compañía fundada por Ynchausti en 1854 fue propietaria de grandes haciendas de azúcar y abacá, y dispuso de una flota mercante de más de 20 buques. Contó también con una destilería y fábricas de jarcias, cemento, pintura, aceites, etc. José Joaquín de Ynchausti fue además uno de los principales accionistas del Banco Español-Filipino de Isabel II llegando a ser director general del mismo durante más de una década. (Foto colección familia Ynchausti).

Compañía Ynchausti-ren ontzi-tresnen dendaren aipamen grafikoa, 115. orrialdean osorik ageri den *bizki eta figuren* konposizioaren zatia dena.

Alusión gráfica al establecimiento de efectos navales de la Compañía Ynchausti que forma parte de la composición *letras y figuras* que se reproduce completa en la pág. 115.



Irudiaren hondoan Manilako zubi esekia ikusten da. Jose Joaquin Intsaustik finantzatu zuen injinerutzako lan handi hau 115. orrialdean osorik ageri den *bizki eta figuren* konposizioaren xehetasuna.

Al fondo de la imagen se observa el puente colgante de Manila, gran obra de ingeniería financiada por José Joaquín de Ynchausti (detalle de la composición *letras y figuras* que se reproduce en la pág. 115).



Joaquín José de Ynchausti González (Manila, 1861-Madrid, 1920), Compañía Ynchausti-ren fundatzailearen semea, emazte zuen Ana Romero Llamasekin, Manilako etxean egin zieten argazkia. (Intsausti familiaren bildumako argazkia).

Joaquín José de Ynchausti González (Manila, 1861-Madrid, 1920), hijo del fundador de la Compañía Ynchausti con su esposa Ana Romero Llamas fotografiados en su casa de Manila. (Foto colección familia Ynchausti).



Intsausti familiaren etxea Manilako Malate auzoan. (Intsausti familiaren bildumako argazkia).

Casa de la familia Ynchausti en el barrio de Malate, Manila. (Foto colección familia Ynchausti).



Intsausti familiaren etxea. Manilako badiaren aurrean kokatutako etxe hau ekitaldi ofizial batzuetarako erabili zuten, estatubatuarren okupazioaren ondotik. (Intsausti familiaren bildumako argazkia).


Casa de la familia Ynchausti. Situada frente a la bahía de Manila esta mansión fue utilizada, tras la ocupación estadounidense, para la celebración de algunos actos oficiales. (Foto colección familia Ynchausti).



Intsausti familiaren etxea Manilan. II. Mundu Gerraren hasieran Filipinetako Gurutze Gorriaren zerbitzurako jarri zuten. Japoniarrek uhartedia okupatu zutenean, bertan izan zen, preso, Jonathan Wainwright, MacArthur irten ondoren Filipinen defentsaren ardura bere gain hartu zuen teniente jenerala. Aginte japoniarren egoitza ere izan zen. 1945ean etxea suntsitu egin zuten, Manila askatzeko borroketan zehar.


Casa de la familia Ynchausti en Manila. Al comienzo de la II Guerra Mundial se puso al servicio de la Cruz Roja de Filipinas. Tras la ocupación japonesa estuvo prisionero en ella Jonathan Wainwright, teniente general que asumió la defensa de Filipinas tras la salida de MacArthur. Fue también sede del mando japonés. En 1945 la casa resultó destruida durante la liberación de Manila.





Antonio Aialaren (Araba, 1804-1876) erretratua. Domingo Roxasekin elkartu zelarik, Antonio Aialak destilategi bat fundatu zuen Manilan 1834an. Geroago, nekazaritza eta meatzaritzara ere bideratu zituzten beren negozioak. Banco Español-Filipino de Isabel II haren zuzendari gisa eman zuen denboran, azpiegituren garapenean murgildu zen. Sociedad Filipina de Finanzas-en eta itsas aseguruetarako La Esperanza konpainiaren zuzendaria ere izan zen. Roxas eta Zóbel familiak partekatzen zituzten negozio eta ahaidetasunezko loturetatik enpresa talde arrakastatsua sortuko zen, eta hauek oso garapen handia izango zuten XX. mendean.

Retrato de Antonio de Ayala (Álava, 1804-1876). Asociado con Domingo de Roxas, Antonio de Ayala funda una destilería en Manila en 1834. Sus negocios se abren también a la agricultura y la minería. Durante su etapa como director del Banco Español-Filipino de Isabel II se implicó en el desarrollo de infraestructuras. Fue también director de la Sociedad Filipina de Finanzas y de la compañía de seguros marítimos La Esperanza. Del vínculo de negocios compartidos y lazos de parentesco entre las familias Roxas y Zóbel surgirá un exitoso grupo de empresas que adquieren gran desarrollo en el siglo XX.



Zobel familiak Manilan zeukan botikaren bi alderdi. José Honorato Lozanoren urkolorea, 1858 ingurukoa, *Álbum Karuth* lanekoa. Filipinas Heritage Library, Ayala Foundation.

Jacobo Zobel Zangroniz (1842-1896), alemaniar eta nafar jatorriko filipiniarra, ez zen bakarrik bere lan iharduera eta negozioengatik ezaguna izan. Antzinako numismatikari buruz egindako ikerlan eta idatzi politikoengatik ere nabarmendu zen. Historiaren Akademiaren kide eta Bizkaiko Seme Kutuna, Manilako alkate izatera heldu zen.

Dos aspectos de la farmacia de la familia Zóbel en Manila. Aguada de José Honorato Lozano, hacia 1858. Del *Álbum Karuth*. Filipinas Heritage Library, Ayala Foundation.

Filipino de ascendencia alemana y navarra, Jacobo Zóbel Zangróniz (1842-1896) no se distinguió sólo por su actividad profesional y sus negocios. Destacó también por sus estudios sobre numismática antigua y sus escritos políticos. Miembro de la Real Academia de la Historia e Hijo Predilecto de Vizcaya llegó a ser alcalde de Manila.





Zóbel familiaren etxea Manilan. José Honorato Lozanoren urkolorea, 1858 ingurukoa, *Álbum Karuth* lanekoa. Filipinas Heritage Library, Ayala Foundation.

Casa de la familia Zóbel en Manila. Aguada de José Honorato Lozano, hacia 1858. Del *Álbum Karuth*. Filipinas Heritage Library, Ayala Foundation.



Zóbel familiaren Manilako etxearen barnealdea. José Honorato Lozanoren urkolorea, 1858 ingurukoa, *Álbum Karuth* lanekoa. Filipinas Heritage Library, Ayala Foundation.

Interior de la casa de la familia Zóbel en Manila. Aguada de José Honorato Lozano, hacia 1858. Del *Álbum Karuth*. Filipinas Heritage Library, Ayala Foundation.



Manilako San Sebastián kalearen ikuspegia. José Honorato Lozanoren urkolorea, 1858 ingurukoa, *Álbum Karuth* lanekoa. Filipinas Heritage Library, Ayala Foundation.

Vista de la calle San Sebastián de Manila. Aguada de José Honorato Lozano, hacia 1858. Del *Álbum Karuth*. Filipinas Heritage Library, Ayala Foundation.





Julian Zulueta Amondo (Anuzita, Araba, 1814-1878) Kubako azukrearen oligarkia boteretsuaren kide nagusietako bat izan zen. Aberastasun izugarria pilatu zuen, azukre-kanaberaren sailetan eta esklabo trafikoan oinarrituta.

Coolien (jornalari asiarrak esklaboak ziren) trafikoak afrikar jatorriko esklaboaren salerosketa ordezkatu zuenean, Zuluetak flota garrantzitsua eskuratu zuen, belaontzi handiak (clipperrak) eta baporeak alegia, eta horien bidez 8.000 coolie inguru eramane zituen Makaoetik Kuba eta Perura 1846 eta 1860 bitartean.

Trafiko honek diru irabazi galantak ekarri zituen Kubako handikiei, eta Txinako gobernuarekin zailtasunak sortu zirenean, laneratu merkatu berriak bilatu zituzten Siam, Annam eta Japonen.

Julián de Zulueta y Amondo (Anúncita, Álava, 1814-1878) fue uno de los principales integrantes de la poderosa oligarquía azucarera cubana. Su enorme fortuna estuvo sustentada en las plantaciones de caña de azúcar y el tráfico de esclavos.

Cuando el tráfico de coolies (braceros asiáticos semiesclavos) sustituye la trata de esclavos de origen africano, Zulueta se hizo con una importante flota compuesta por grandes veleros (*clippers*) y buques de vapor con la que transportó, entre 1846 y 1860, unos 8.000 coolies desde Macao a Cuba y Perú.

Este tráfico generó sustanciosos beneficios económicos a los potentados de Cuba, y al surgir dificultades con el gobierno chino se buscaron nuevos mercados de mano de obra en Siam, Annam y Japón.



*Bella Vascongada* fragata urakana igarotzen Manila-Cádiz bidean, Justo Goñi zelararik kapitaina, 1849an. Baroja familiaren jabetzakoa (Itzea Etxea, Bera).

La fragata *Bella Vascongada* corriendo un huracán en la ruta Manila-Cádiz al mando del capitán Justo Goñi, 1849. Propiedad de la familia Baroja (Casa Itzea, Bera de Bidasoa).



Justo Goñi, Manilako Ibiliko marinela. Pio Barojaren arbasoa eta honek idatzi eleberrietako batzuen inspirazio iturria. Baroja familiaren jabetzakoa dagerrotipoa (Itzea Etxea, Bera).

Justo Goñi, marino de la Carrera de Manila. Antepasado de Pio Baroja vino a ser fuente de inspiración de algunas de sus novelas. Daguerrotipo propiedad de la familia Baroja (Casa Itzea, Bera de Bidasoa).



*Victoria* baporea. W. H. Yorke, 1879.  
Untzi Museoaren bilduma.

*Victoria* izan zen Olano, Larrínaga y Cía ingeles-euskal ontzi-entresaren baporeetako bat; honek, 1869-1879 epean zehar, Liverpool eta Ekialde Urruna (Singapur, Manila) lotu zituen, Suezko kanaletik zehar. 1879 arte, enpresa hau arduratu zen Espainia eta Filipinen artean posta zein funtzionario zibilak eta militarrek garraiatzeaz.

Vapor *Victoria*. W. H. Yorke, 1879.  
Colección Untzi Museoa-Museo Naval.

El *Victoria* fue uno de los vapores de la naviera anglo-vasca Olano, Larrínaga y Cía., que en el periodo 1869-1879 unió Liverpool con Extremo Oriente (Singapur, Manila) a través del canal de Suez. Hasta 1879 esta empresa se ocupó del correo y del transporte de los funcionarios civiles y militares entre España y Filipinas.




*Churruca* eta *Gravina* baporeak. W. S. Todd-en urkolorea, XIX. mendearen amaierakoa. Untzi Museoaren bilduma.

Ontzi biki hauek, neurri txiki samarrekoak biak, Olano, Larrínaga y Cía konpainiak Ekialde Urrunarekiko merkataritzan erabiltzen zuten ontzidikoak ziren. *Churruca* 1895ean saldu zuten, eta beste hainbat ontzi-entresak erabili zuten gero, Ynchausti y Cía-k esaterako; 1948 arte lanean jarraitu zuten. *Gravina*, berriz, Txinako Itsasoan hondoratu zuen tifo batek, 1895ean.

Vapores *Churruca* y *Gravina*. Aguada de W. S. Todd, finales del siglo XIX. Colección Untzi Museoa-Museo Naval.

Estos buques gemelos, de modestas dimensiones, pertenecieron a la flota con la que la compañía Olano, Larrínaga y Cía. comerciaba con Extremo Oriente. El *Churruca* fue vendido en 1895 y pasó por otras navieras como la de Ynchausti y Cía.; permaneció en activo hasta 1948. El *Gravina*, sin embargo, se hundió en el Mar de China a consecuencia de un tifón, en 1895.





### OPIOAREN GERRAK

Mendebaldeko inportazioez, opioaren kontsumoa neurri beldurgarrian hazi zen Txinan XIX. mendearen lehen erdialdean zehar. Trafiko honen bultzatzaile nagusiak britainiarrak izango ziren, beste herrialde batzuetako merkatariek ere, euskaldun batzuk barne, probetxua atera bazioten ere.

1819 inguruan, Filipinetako Konpainiako bi faktorek, Lorenzo Calvo eta Gabriel Iruretagoienak zehazki, opioaren trafikoan sartzea erabaki, eta negozio honetan aurretik ari ziren enpresa britainiarrekiko lehian hasi ziren. Eta hauek zabaldu bideak jarraitzaile asko izango zituen inguru hartan finkatutako beste merkataritatzuen artean. Esate baterako, Filipinetako Konpainiaren babesari esker Kalkutan finkatutako Laruletta, Mendieta, Uriarte eta Irisarrik osatu enpresako hainbat kide.

Euskal merkataritza hauek eta beste batzuek etekin onak emango zituzten loturak ezarri zituzten konpainia britainiarrekin eta, batera edo bestera, parte hartu zuten Opioaren Gerrak deitu horiek ekarriko zituen bilbean.

*Irudiak:* Opio-erretokiak. "Tin-sin" muin-paperaren gaineko urkoloreak. 1890 ingurua. Ekialdeko Museoa, Agustindarren Errege Kolegioa. Valladolid.



### LAS GUERRAS DEL OPIO

Con las importaciones occidentales el consumo de opio en China creció de modo alarmante en la primera mitad del siglo XIX. Los británicos serían los principales impulsores de este tráfico aunque también se beneficiaron de él comerciantes de otros países, incluidos algunos vascos.

Hacia 1819 dos factores de la Compañía de Filipinas, Lorenzo Calvo y Gabriel Yruretagoyena, deciden implicarse en el tráfico del opio compitiendo con las empresas británicas involucradas en el negocio. Su ejemplo no tarda en ser seguido por otros comerciantes establecidos en la zona. Entre ellos varios miembros de la empresa formada por Laruletta, Mendieta, Uriarte e Yrisarri, afincada en Calcuta gracias a la protección de la Compañía de Filipinas.

Estos y otros comerciantes vascos establecen productivos lazos con las compañías británicas y, de un modo u otro, participan en el entramado que da origen a las denominadas Guerras del Opio.

*Imágenes:* Fumaderos de opio. Aguadas sobre papel de médula de "tin-sin". Hacia 1890. Museo Oriental, Real Colegio de los Padres Agustinos, Valladolid.



Indar britainiarren eta txinatarren arteko borroka Opioaren Lehen Gerran zehar, 1842an. Anne S. K. Brown Military Collection.

Opioaren Lehen Gerran, 1839 eta 1842 bitartean izan zen, britainiarrek armen indarrez ezarri zuten Txina drogaren komertziorako ere zabaltzea. Bigarreanean (1856-1860) Frantziak ere muturra sartuko zuen, botere kolonialaren zati bat bereganatu nahi baitzuen; eta berriro lortuko zuten Txina mendean hartzea eta hau –beste inposizio umiliagarri batzuen artean– opioaren inportazioa onartzera behartzea.

**Combate entre fuerzas británicas y chinas durante la Primera Guerra del Opio, 1842.**  
Anne S. K. Brown Military Collection.

En la Primera Guerra del Opio, librada entre 1839 y 1842, los británicos impusieron por la fuerza de las armas la apertura de China al comercio de esa droga. En la segunda (1856-1860) se involucró también Francia buscando su parcela de poder colonial, logrando de nuevo someter a China que se vio una vez más obligada –entre otras humillantes imposiciones– a permitir la importación del opio a su territorio.

**Fermin Lasala Collado, Mandasko dukea. Kutxa fototeka.**

Londresko Gortean enbaxadore guztiahalduna izaki “boxerren” matxinadaren ondoren Txina okupatu eta zatitu zuten unean, Fermin Lasala donostiarra hainbat gestio egingo zituen, Inperio Zerutararren banaketan Espainiarentzat zati garrantzitsua ziurtatu ahal izateko. “Boxerren” matxinada, mendebaldearen aurkakoa, 1839ko Opioaren Gerraz hasitako dramaren azken ekitaldia izan zen, eta 1900ean Txinako Inperioa birtualki desagitea izango zuen amaiera.

**Fermin Lasala y Collado, Duque de Mandas. Fototeca Kutxa.**

Como embajador plenipotenciario ante la Corte de Londres en el momento preciso en el que China es ocupada y dividida tras la rebelión de los “boxer”, el donostiarra Fermin Lasala realiza diversas gestiones destinadas a asegurar a España una parte sustancial en el reparto del Celeste Imperio. El levantamiento antioccidental de los “boxer” fue el último acto del drama que se inició con la Guerra del Opio de 1839, para concluir con la virtual desintegración de China en 1900.







### KOTXINTXINAKO GERRA

1859an indar frantziar-espainiar batek Saigon hartu zuen. Hau Frantziak eta Espainiak Annamgo erresumaren (egungo Vietnam) kontra hasitako gerraren gertakari odoltsuenetako bat izan zen; gerra horretarako, misiolari katolikoak hiltzeko neurrirainoko jazarpena jasaten ari zirela argudiatu zuten. Motibazio erlijiosoak frantsesen desira koloniala estaltzen zuen gerra honetan.

*Irudia:* Saigonen kontrako erasoak, frantziar-espainiar gorputz espedizionarioak 1859an egina. *L'illustration, Journal Universel*-en grabatua. 1859ko irailaren 17a. Untzi Museoaren bilduma.

### LA GUERRA DE COCHINCHINA

En 1859 se produce la toma de Saigón por una fuerza combinada franco-española. Fue éste uno de los episodios más sangrientos de la guerra que Francia y España declararon al reino de Annam (actual Vietnam) con el argumento de que los misioneros católicos estaban siendo perseguidos a muerte en su territorio. La motivación religiosa venía a encubrir en esta guerra la ambición colonial francesa.

*Imagen:* Asalto a Saigón por el cuerpo expedicionario franco-español en 1859. Grabado de *L'illustration, Journal Universel*. 17 septiembre 1859. Colección Untzi Museo-Museo Naval.

Serafín Olaberen erretratua, Dionisio Fierros Álvarezek 1862an olio-pinturaz egina. Nafarroako Errege Agiritegi Orokorra.

Serafín Olabe Díez (Sevilla, 1831-Calahorra, 1884), armadaren ofiziala bera Filipinetan, kapitain gisa sartu zuten Kotxintxinako gorputz espedizionarioan. Han nabarmendu egin zen Ki-Hoa eta Myt-Ho-ko borroketan, eta misio diplomatikoan ere parte hartu zuen 1862ko bake itunera begira; teniente koronel mailara igo zuten.

Gerra honi buruz Olabek saiakera bat argitaratu zuen (*Cuestión de Cochinchina*, 1862), interes historiko nabarmeneko hainbat marrazkirekin batera. 1862an Kubako gerran parte hartu eta gero Espainiara itzuli zen, eta Nafarroan finkatu, hangoa baitzuen aita. Une horretatik aurrera oso jarduera politiko bizian aritu zen, eta azkenean foruen aldeko joera garbia erakutsi zuen. Nafarroako Euskara Elkartearen ohorezko kidea izan zen 1878tik aurrera.

Retrato al óleo de Serafín de Olave por Dionisio Fierros Álvarez, 1862. Archivo Real y General de Navarra.

Serafín de Olave y Díez (Sevilla, 1831-Calahorra, 1884), oficial del ejército en Filipinas, fue incorporado como capitán al cuerpo expedicionario de Cochinchina. Allí se distinguió en los combates de Ki-Hoa y Myt-Ho e intervino también en misión diplomática para cerrar el tratado de paz de 1862, siendo ascendido a teniente coronel. Sobre esta contienda Olave publicó un ensayo (*Cuestión de Cochinchina*, 1862) y varios dibujos de considerable interés histórico. Después de tomar parte en la guerra de Cuba en 1862 vuelve a España y se asienta en Navarra de donde era originario su padre. Desarrolla desde entonces una intensa actividad política que deriva en una marcada tendencia fuerista. Fue socio honorario de la Asociación Euskara de Navarra desde 1878.







Valentin Berriotxoaren martirioaren oroigarria. 1900 ingurua. Santa Ana Komentuaren bilduma, Ama Domingotarrak, Elorrio.

Valentin Berriotxoa misiolari domingotarra (Elorrio, 1827-Tonkin, 1861) izan zen Annamgo erresuman –egungo Vietnamen– katolikoek jasan zuten jazarpenean hildako europar erlijiosoetako bat. Berriotxoa beatoa 1988an kanonizatu zuten.

**Recordatorio del martirio de Valentín de Berriochoa. Hacia 1900. Colección Convento Santa Ana, Madres Dominicas, Elorrio.**

El misionero dominico Valentín de Berriochoa (Elorrio, 1827-Tonkin, 1861) fue uno de los religiosos europeos que murió en las persecuciones contra los católicos en el reino de Annam (actual Vietnam). El beato Berriochoa sería canonizado en 1988.



San Valentín Berriotxoaren erretaula Sortzez Garbiaren elizan, Elorrión (Bizkaia). Ekialde Urruneko arkitektura erlijiosoan inspiratutako monumentua Smith eta Arruperen obra izan zen, hauexek irabazi baitzuten Bizkaiko Foru Aldundiak Valentín Berriotxoaren beatifikazioa zela eta 1906an deitutako lehiaketa. Bilboko Eleiz Museoaren argazkia.

Retablo de San Valentín de Berriochoa en la iglesia de La Purísima Concepción, Elorrio (Bizkaia). El monumento, inspirado en la arquitectura religiosa de Extremo Oriente, fue obra de Smith y Arrupe, ganadores del concurso convocado por la Diputación Foral de Bizkaia con motivo de la beatificación de Valentín de Berriochoa en 1906. Foto: Museo Diocesano de Arte Sacro, Bilbao.



Espainiar ordezkartiza Annamen. *La Ilustración Española y Americana*, 1863.

Annamgo erresumak sinatutako bake itunak erlijio katolikoa predikatzeko eta katoliko izateko askatasuna izan zuen ondorio. Itunak, gainera, lurraldearen zati bat Frantziari lagatzea ekarriko zuen. Hauxe izan zen Indotxinako koloniaren sorburua. Espainiak ordain ekonomiko eskas bat besterik ez zuen hartuko, bere partaidetzagatik.

Delegación española en Annam. *La Ilustración Española y Americana*, 1863.

El tratado de paz firmado por el reino de Annam trajo consigo la libertad para predicar y profesar la religión católica. El tratado supuso además la cesión de una parte de su territorio a Francia, origen de la colonia de Indochina. España sólo recibiría una exigua indemnización económica por su participación.



Armand David misiolari eta naturalista txinatar jantziak soinean.

Armand David (Ezpeleta, 1826-París, 1900) XIX. mendeko naturalistarik garrantzitsuenetakoa izan zen. Lazaristen –geroago Pauldar izenaz ezagutuen– Kongregazioko kidea zen, eta 1862an Txinara bidali zuten. Han fauna eta florako aleak eta mineralak biltzen hasiko zen, hauek guztiak Parisko Natur Zientzien Museora bidaltzeko. Txinako lurraldean zeharreko lan nekez baten hasiera izan zen, eta honen ildotik, hainbat espediziotan zehar, hirurogeita zortzi espezie txori aurkituko zituen, ehun bat espezie intsektu, eta baita zenbait ugaztun ere, 1869an deskubritu zuen panda handia tartean. Zalantzarik gabe, Armand David izan zen XIX. mendean zehar Txinako naturaren gaineko ezagutza zientifikoari ekarpen handiena egin ziona. Daviden historia naturaleko bildumek Parisko Natur Zientzien Museoko funtsak aberastu zituzten, eta beste museo bat sorrarazi zuten Pekinen; azken hau txinatar enperadorearen jabetzara igaroko zen. Armand David, era berean, flora, fauna eta ingurumena oro har babestera zuzendutako sentikortasun baten aitzindaria izan zen.

**El misionero y naturalista Armand David con indumentaria china.**

Armand David (Espelette, 1826-París, 1900) fue uno de los naturalistas más importantes del siglo XIX. Miembro de la Congregación de los Lazaristas –conocidos después como Misioneros Paules– fue enviado a China en 1862 donde inicia un trabajo de recogida de especímenes de fauna, flora y minerales que envía al Museo de Ciencias Naturales de París. Fue el comienzo de un arduo trabajo a lo largo y ancho del territorio chino que le lleva a descubrir, en varias expediciones, sesenta y ocho especies de pájaros, un centenar de especies de insectos y varias de mamíferos, entre ellas el panda gigante, que describió en 1869.

Armand David fue sin duda quien más contribuyó al conocimiento científico de la naturaleza de China en el siglo XIX. Sus colecciones de historia natural enriquecieron los fondos del Museo de Ciencias Naturales de París y dieron origen a un Museo en Pekín que pasó a ser propiedad del emperador chino. Armand David fue también un precursor de la sensibilidad orientada a la protección de la flora, la fauna y el medio ambiente en su conjunto.



Misiolaria haur baten erreskatea ordaintzen Tamontacan (Mindanao). J. M. Unsainen bilduma.

Sorburua Frantzian zuen Haurtzaro Saindu erakundeak, XIX. mendearen erdialdetik aurrera, bultzatu egin zuen “haur fedegabeen errendentzioa” (haur hauek katolikoaz aparteko erlijioa zuten gurasoen seme-alabak ziren) diru kopuru bat ordainduz lortzea. Valentín Berriotxo misiolari domingotarrak Filipinetatik idatzi zion lagun bati, Haurtzaro Saindu haren jarduera zabal zezan, “honen helburua fedegabeen seme-alabak erostea, edo erreskatatzea, haztea eta hezteza baita” (J.M. Arrieta, *Vida del venerable mártir Valentín de Berrio-Ochoa*, Bilbo, 1865).

**Misionero pagando el rescate de un niño en Tamontaca (Mindanao). Colección J. M. Unsain.**

La “redención de niños infieles” (hijos de padres que profesaban una religión distinta de la católica) mediante el pago de cierta cantidad de dinero fue impulsada por la organización de origen francés Santa Infancia, desde mediados del siglo XIX. El misionero dominico Valentín de Berriochoa escribía desde Filipinas a un amigo animándole a propagar la obra de la Santa Infancia “cuyo fin es comprar, o rescatar, criar y educar los hijos párvulos de los infieles” (J.M. de Arrieta, *Vida del venerable mártir Valentín de Berrio-Ochoa*, Bilbao, 1865).





Misiolari jesuitak Mindanaon, Filipinak, 1887. Goian: Apo sumendirako espedizioa; behean: Manip sultanarekin, eta honen familia eta nagobo batzuekin. *Recuerdos de Mindanao* argazki-album anonimokoa. Biblioteka Nazionala, Madril.

Mindanao oso lurralde zaila zen misiolariak beren lana egin zezaten. Izan ere, malaisiar-mahomatarrak sendo finkatuta zeuden uharteko hainbat tokitan, eta espainiar botere kolonialistaren aurkakoak ziren. XIX. mendearen bigarren erdialdean jesuitak –hainbat euskaldun tartean– izango ziren uhartea kristautzeko elementu behinenak: lehen aldiz sartu ziren harremanetan barnealde menditsuan bizi ziren tribu nomadekin, eta komunitate iraunkorrek ezarri zituzten.

Misioneros jesuitas en Mindanao, Filipinas, 1887. Arriba: expedición al volcán Apo; abajo: con el sultán Manip, su familia y varios nagobos. Del álbum fotográfico anónimo *Recuerdos de Mindanao*. Biblioteka Nacional, Madrid.

Mindanao, isla con fuertes enclaves malayo-mahometanos hostiles al poder colonial español, era un territorio difícil para la actividad misional. En la segunda mitad del siglo XIX los jesuitas –entre ellos varios vascos– se convierten en principales agentes de la cristianización de la isla, entrando en contacto, por vez primera, con las tribus nómadas del interior montañoso y estableciendo *reducciones* o comunidades permanentes.





Antonio Urbiztondo teniente jenerala. P. Chamorro y Baquerizoren (zuz.) *Estado Mayor General del Ejército Español, 1851-1856* liburuko litografia. Untzi Museoaren bilduma.

Ibillide politiko sigi-sagatsuko Antonio Urbiztondo Egia (Donostia, 1808-Madril, 1857) militarrek partaidetza aktiboa izan zuen Lehen Karlistaldian, eta 1846an teniente jeneral mailara iritsi, eta Baskongadetako kapitain jeneral izendatu zuten. 1850ean Filipinetara bidali zuten, gobernadore eta kapitain jeneral gisa. Bere gobernazio-aldian zehar herri lanak eta nekazaritza bultzatu zituen; orduan fundatu zen *Banco Español-Filipino de Isabel II* diruetxea ere; hau oso garrantzitsua izango zen, uhartediaren garapen ekonomikora begira. Maila militarrean, Joloko sultanaren kontra zuzendu espedizio arrakastatsua nabarmendu zen, eta honengatik San Fernandoren Gurutze Handia eman zioten. Dimisioa eman eta 1853an Espainiara itzuli zen, eta hiru urte geroago Gerrako ministro izendatu zuten. Kargua hartu eta hilabete gutxira hil zen, zertzelada ilun samarretan.

Teniente general Antonio de Urbiztondo. Litografía del libro de P. Chamorro y Baquerizo (dir.), *Estado Mayor General del Ejército Español, 1851-1856*. Colección Untzi Museoa-Museo Naval.

Militar de zigzagueante trayectoria política, Antonio de Urbiztondo y Eguía (San Sebastián, 1808-Madrid, 1857) toma parte activa en la Primera Guerra Carlista y en 1846 asciende a teniente general y es nombrado capitán general de la Provincias Vascongadas. En 1850 es enviado a Filipinas como gobernador y capitán general. Durante su gobernación se impulsaron las obras públicas y la agricultura, y se fundó el Banco Español-Filipino de Isabel II, hecho de gran importancia para el desarrollo económico del archipiélago. En el plano militar destacó su exitosa expedición contra el sultán de Joló por la que recibiría la Gran Cruz de San Fernando. Regresa a España en 1853 tras presentar su dimisión y tres años después es nombrado Ministro de la Guerra aunque fallece –en turbias circunstancias– pocos meses después de acceder al cargo.




Joloren kontrako erasoak, 1851. Teodoro Fernández Muñozen olio-pintura, 1854. Madrilgo Museo Naval.

Filipinen hegoaldeko Joloko uhartedeko Mahamad Chamunul Alam sultanak bultzatutako piraten erasoak ugaritzen ari zirela eta, Antonio Urbiztondok zigor espedizio bat antolatu behar izan zuen. Horretarako, bost gerraontzi –horietako hiru bapore gurgildunak ziren–, bi kanoiontzi eta bederatzita faluaz osatutako flota bat prestatu zuten; osterantzean, hainbat fragata, brigantín eta ontzi indigena zeuzkan, garraio lanetarako. Guztira bildutako indarrak 6.000 gizon baino gehiago ziren, soldaduak eta marinelak kontatuta. Joloko defendatzaileen erresistentzia oso oso gogorra izan zen, eta hura hartzeko borrokek hildako asko eragin zituzten alde bietan.

Ataque a Joló en 1851. Óleo de Teodoro Fernández Muñoz, 1854. Museo Naval, Madrid.

El aumento de las incursiones piráticas inducidas por el sultán Mahamad Chamunul Alam del archipiélago de Joló (sur de Filipinas) obligó a Antonio de Urbiztondo a organizar una expedición de castigo. Preparó para ello una flota compuesta de cinco buques de guerra –tres de ellos vapores de ruedas–, dos lanchas cañoneras y nueve falúas, además de varias fragatas, bergantines y embarcaciones indígenas empleadas para el transporte. La fuerza desplegada sumaba más de 6.000 hombres contando tropa y marinería. La resistencia que opusieron los defensores de Joló fue muy intensa y el sometimiento de la plaza costó muchas vidas por ambas partes.





*Asalto dado a la Plaza de Joló por el Ejército Hispano-Filipino, a las órdenes del Excmo. Sr. D. Antonio de Urbiztondo, Marqués de la Solana, el día 28 de Febrero de 1851. Vista tomada en el momento de caer herido mortalmente el M. R. P. Fr. Pascual Ibáñez.*

C. Borromeo J. H. Lozanoren marrazkiaren gainean egindako grabatua (Gabino Leonor-en *Últimos momentos de M.R.P. Pascual Ibáñez o la conquista de Joló: memoria histórico-poética de aquella célebre jornada* obrako ilustrazioa, Manila, 1851).

*Asalto dado a la Plaza de Joló por el Ejército Hispano-Filipino, a las órdenes del Excmo. Sr. D. Antonio de Urbiztondo, Marqués de la Solana, el día 28 de Febrero de 1851. Vista tomada en el momento de caer herido mortalmente el M. R. P. Fr. Pascual Ibáñez.*

Grabado de C. Borromeo sobre dibujo de J. H. Lozano (ilustración de la obra de Gabino Leonor, *Últimos momentos de M.R.P. Pascual Ibáñez o la conquista de Joló: memoria histórico-poética de aquella célebre jornada*, Manila, 1851).



*Panay* kanoiontzia, 30 zaldi-potentziakoa, Joloko itsaslapurren hiru ontziren kontrako borrokan Unisango uharteetan. Santander Fundazioaren bilduma. Filipinen hegoaldeko uharteak intsumisio iturri bat izan ziren espainiar agintarientzat. Zona hori okupatzeko eta bertan ordena koloniala ezartzeko espedizioak ugari izan ziren. Bakar-bakarrik XIX. mendearen azken herenean lortu zuten inguru horren gaineko halako nagusitasun bat, bapore korazatuak, artilleriak eta garai hartako suzko armek ematen zuten nagusitasun militarri esker.

El cañonero *Panay*, de 30 caballos de vapor, combate contra tres embarcaciones de piratas joloanos en los islotes de Unisan (4 de junio de 1861). Detalle de óleo anónimo. Colección Fundación Santander.

Las islas del sur de Filipinas fueron siempre un foco de insumisión para las autoridades españolas. Las expediciones encaminadas a la ocupación y establecimiento del orden colonial en la zona fueron numerosas. Sólo en el último tercio del siglo XIX se obtuvo un cierto dominio en la zona gracias a la superioridad militar que proporcionaban los vapores acorazados, la artillería y las armas de fuego de la época.





Fernando Norzagarai. C. Múgica Pérez en litografía (P. Chamorro y Baquerizoren (zuz.) *Estado Mayor General del Ejército Español*, 1851-1856 liburukoa). Untzi Museoaren bilduma.

Fernando Norzagarai Escudero (Donostia, 1808-Madril, 1860) Lehen Karlistaldian parte hartu eta oso zerbitzu-orri bikaina osatu zuen liberalen aldeko borrokan. Puerto Ricoko gobernadore eta kapitain jeneral gisa esperientzia labur bat izan ondoren, 1856an Filipinetara iritsiko zen, kargu bera zuela. Uhartedian egin zituen lehen gauzen artean *tulisanen* (landa munduko bidelapurren) aurkako borroka dago; oso ekintza gogorak zuzendu zituen horien kontra. Gainera, Kotxintxinako Gerrarako soldadu-talde hispaniar-filipinarra osatzeko eta prestatzeko arduraduna izan zen. 1859an Norzagarai dimisioa eman zuen, osasun arazoiek bultzatuta. Gobernuan eman zuen denboran zehar Filipinetan halako oparotasunaldi bat izan zen.

Fernando de Norzagaray. Litografía de C. Múgica y Pérez (del libro de P. Chamorro y Baquerizo (dir.), *Estado Mayor General del Ejército Español*, 1851-1856). Colección Untzi Museoa-Museo Naval.

Fernando de Norzagaray Escudero (San Sebastián, 1808-Madrid, 1860) participa en la Primera Guerra Carlista logrando una brillante hoja de servicios al servicio de la causa liberal. Tras una breve experiencia como gobernador y capitán general de Puerto Rico pasa a Filipinas en 1856 con el mismo cargo. Entre sus primeras intervenciones en el archipiélago figura la lucha contra los *tulisanes* (bandidos rurales) mediante actuaciones de gran dureza. Fue además el responsable del alistamiento y preparación del contingente hispano-filipino para la Guerra de Cochinchina. En 1859 Norzagaray presentó su dimisión por razones de salud. Durante su gobierno las Filipinas vivieron una etapa de cierta prosperidad.

Rafael Etxague. B. Blancoren litografía (P. Chamorro y Baquerizoren (zuz.) *Estado Mayor General del Ejército Español*, 1851-1856 liburukoa). Untzi Museoaren bilduma.

Rafael Etxague Berminghamek (Donostia, 1815-Madril, 1887) oso bide garrantzitsua egin zuen militar gisa, eta karlistaldietan nabarmendu zen, alderdi liberallean. Partaidetza aktiboa izan zuen, halaber, Marokoko gerran. Zauritu egin zuten bertan. 1862an Filipinetako gobernadore nagusi izendatu zuten, eta bere agintaldian zehar hezkuntzaren erreforma bat gauzatu zuen uharteetan. Honek haur guztiarentzako derrigorrezko lehen hezkuntza publiko eta doakoa ezartzea ekarriko zuen. Zentsuraren erreforman ere parte hartu, eta Elizak arlo honetan zuen jarduteko ahalmena mugatu zuen. Espainiara itzulita, Filipinar uharteetako gobernu eta ekonomi erreformetarako Kontsulta Batzordean hartu zuen parte.

Rafael de Echagüe. Litografía de B. Blanco (del libro de P. Chamorro y Baquerizo (dir.), *Estado Mayor General del Ejército Español*, 1851-1856). Colección Untzi Museoa-Museo Naval.

Rafael de Echagüe y Bermingham (San Sebastián, 1815-Madrid, 1887) tuvo una importante trayectoria militar destacándose en el ejército liberal durante las guerras carlistas. Participó también activamente en la guerra de Marruecos donde resultó herido. Nominado gobernador general de Filipinas en 1862, durante su mandato se hizo efectiva en las islas una reforma educativa que supuso la implantación de la enseñanza primaria pública, gratuita y obligatoria para todos los niños. Echagüe intervino también en la reforma de la censura limitando la actuación de la Iglesia en la materia. Ya de vuelta en España tomó parte en la Comisión consultiva para las reformas gubernativas y económicas de las islas Filipinas.







MISIONERO AGUSTINO DIRIGIENDO LA PALABRA SAGRADA A LAS MISMAS TRIBUS, EN PRESENCIA DEL EXCMO. SR. GOBERNADOR GENERAL.  
De fotografías facilitadas por el Sr. García Caltrero.)

Misiolari agustindarra eta koloniako agintariak igorrote talde baten aurrean. Filipinak. *La Ilustración Española y Americana* aldizkari xilografía, 1881.

Igorrote batzuek, Luzongo zonalderik malkartsuenean bizi ziren indigenak ziren, ez zuten Espainiaren subiranotasuna onartu nahi. XIX. mendearan amaiera aldean, horietako batzuk armak hartzera iritsi ziren.

Misionero agustino y autoridades coloniales en presencia de un grupo de igorrotos. Filipinas. Xilografía de *La Ilustración Española y Americana*, 1881.

Algunos igorrotos, indígenas que habitaban la zona más agreste de Luzón, se resistían a aceptar la soberanía española. A finales del siglo XIX parte de ellos llegaron incluso a oponerse por las armas.



Borreroa hobenduna zigortzen Manilako kaleetan. José Honorato Lozanoren urkolorea, 1858 ingurukoa, *Album Karuth* lanekoa. Filipinas Heritage Library, Ayala Foundation.

Reo azotado por el verdugo en las calles de Manila. Aguada de José Honorato Lozano, hacia 1858. Del *Album Karuth*. Filipinas Heritage Library, Ayala Foundation.





Ramon Blanco jenerala. *Munseys Magazine*, 1898ko iraila. Bilduma partikularra.

Ramon Blanco Erenas (Donostia, 1833-Madril, 1906), oso gerra historia zabaleko militarra bera, Antilletako kolonietan eta Mindanaon aritua, teniente jeneral kargura igo zuten karlisten kontrako hirugarren gerran. 1893an Filipinetako gobernadore nagusi izendatu zuten. Honen agintaldian zehar Filipinetako Eskualdeko Lehen Erakusketa inauguratu zuten, eta baita Manilako argiztapen-sistema elektrikoa ere. Eta berari egokitu zitzaion 1896an sortutako matxinadaren kontra erreakzionatzea. Matxinada honen eraginez, Espainiak galdu egingo zituen Asian eta Pazifikoko zeuzkan koloniak. Batzuen iritzi, Blancok gogor eta, era berean, lasaitasunez jokatu zuen, beste batzuen iritzi, berriz, jarrera epelegia erakutsi zuen. 1896ko urtearen amaieran kargutik kendu eta Kubara joango zen, kapitain jeneral gisa. Han aurre egin behar izan ziren uhartera iparramerikarrei emanez amaitu ziren gertakari dramatikoak.

**El general Ramón Blanco. *Munseys Magazine*, Septiembre de 1898. Colección particular.**

Ramón Blanco y Erenas (San Sebastián, 1833-Madrid, 1906), militar de dilatado historial bélico, curtido en las colonias antillanas y en Mindanao, fue ascendido a teniente general en la tercera guerra contra los carlistas. En 1893 es nombrado gobernador general de Filipinas. Durante su mandato se inauguró la Primera Exposición Regional de Filipinas y el alumbrado eléctrico de Manila. A él le correspondió reaccionar en 1896 contra la insurrección que desencadenaría la pérdida de las colonias españolas de Asia y el Pacífico. Su actuación es juzgada por unos como firme y serena, mientras que otros la consideran excesivamente tibia. A finales de 1896 fue relevado de su cargo pasando a Cuba como capitán general. Allí tuvo que afrontar los dramáticos sucesos que finalizaron con la entrega de la isla a los norteamericanos.



Mindanaoko kanpaina, *La Ilustración Española y Americana*, 1895. Untzi Museoaren bilduma.

Mindanao eta Joloko "mairu" deituek koloniaren gobernuari etengabe botatako erronek 1894-95ean ikusiko zuten azkena. Ramon Blancok Mindanaoko Marawi inguruan kanpaina militar bat zuzendu eta eremu horretan nagusitzea lortu zuen.

**La Campaña de Mindanao, *La Ilustración Española y Americana*, 1895. Colección Untzi Museo-Museo Naval.**

El desafío recurrente que los denominados "moros" de Mindanao y Joló presentaban al gobierno colonial tuvo su último episodio en 1894-95. Ramón Blanco logró imponerse en la zona dirigiendo una campaña militar en la región de Marawi (Mindanao).





Manilako boluntarioak. *La Ilustración Española y Americana*, 1896. Untzi Museoaren bilduma.

1896ko urtearen erdialdean piztu zen, Luzonen, orduan lehenik matxinada tagalo eta, geroago, Filipinetako Iraultza deituko ziotena. Filipinetako gobernadore nagusi Ramon Blancok gerra egoera deklaratu zuen, eta Espainiari premia handiz errefortzuak eskatzearekin batera, espainiarrez eta filipinar leialdez osatu boluntario gorputz bat sortu zuen.

Voluntarios de Manila. *La Ilustración Española y Americana*, 1896. Colección Untzi Museoa-Museo Naval.

A mediados de 1896 estalló en Luzón la que se llamó insurrección tagala primero y más tarde Revolución Filipina. El gobernador general de Filipinas, Ramón Blanco, declaró el estado de guerra y, al tiempo que pedía con urgencia refuerzos a España, creó un cuerpo de voluntarios formado por españoles y filipinos leales.



*El Gobernador Blanco y sus tropas*, d.g.. Félix Martínezen olio-pintura. National Museum of the Philippines Collection, Manila. Behin baino gehiagotan Ramon Blancok berak zuzendu zituen matxinatuen kontrako operazio militarrek.

*El Gobernador Blanco y sus tropas*, s.f. Óleo de Félix Martínez. National Museum of the Philippines Collection, Manila. En diversas ocasiones Ramón Blanco dirigió personalmente las operaciones militares contra los insurgentes.





## ENPRESARIAK, GERRILLARIAK ETA PILOTARIAK. XX. MENDEA

1898an iparramerikarrek Filipinak eta Guam uhartea okupatu ondoren, espainiar gobernuak erabaki zuen Mikronesian bere mendean zeuzkan bestelako lurraldeak utzi eta Alemaniako Inperioari saltzea.

Estatubatuarren presentziak Filipinetan ez zuen aparteko eraginik izan uhartedian segitzea edo Washingtonen boterea finkatu ondoren hara itzultzea erabaki zuten euskal enpresarientzat.

Horrela, XIX. mendean euskaldunek sortutako konpainia askok jarraitu egin zuten azukrearen, abakaren edo itsas garraioaren inguruko jardueretan, eta enpresa-eremu berriak zabalduko ziren gainera, kopra, energia elektriko, turismo, higiezin eta finantzei loturik. Ayala edota Aboitiztarren ondorengoek oraindik ere leku nagusia dute herrialde hartako ekonomian.

Bigarren Mundu Gerrak oso eragin bortitza izan zuen Filipinetan eta Ozeano Bareko beste zona batzuetan, suntsipena zabaldu baitzuen han eta hemen. Euskaldun batzuek gerrilla filipinarrari edo indar iparramerikarrei laguntzeak izango zuen bere eragina 1945ean iritsitako japoniarren porrotean.

Aparteko atala eskaini behar, dena den, Txinan, Filipinetan eta Indonesiako frontoia zabaltzean euskal pilotak Ekialde Urrunean izandako historiari.

## EMPRESARIOS, GUERRILLEROS Y PELOTARIS. EL SIGLO XX


Tras la ocupación norteamericana de Filipinas y la isla de Guam en 1898, el Gobierno español decidió desprenderse del resto de sus posesiones en Micronesia vendiéndolas al Imperio alemán.

La presencia estadounidense en Filipinas no parece haber tenido mayores consecuencias para los empresarios vascos que decidieron permanecer en el archipiélago o retornaron a él una vez consolidado el poder de Washington.

De este modo, muchas compañías fundadas por vascos en el siglo XIX prosiguen sus actividades en torno al azúcar, el abacá o el transporte marítimo y se abren a nuevos ámbitos empresariales relacionados con la copra, la energía eléctrica, el turismo, las inmobiliarias o el sector financiero. Los descendientes de los Ayala o los Aboitiz siguen manteniendo en el presente un lugar preponderante en la economía del país.

La Segunda Guerra Mundial tuvo un fuerte impacto de violencia y destrucción en Filipinas y otras zonas del Pacífico. La colaboración de algunos vascos con la guerrilla filipina o las fuerzas norteamericanas contribuyó a la derrota japonesa de 1945.

Capítulo aparte merece la historia de la pelota vasca en Extremo Oriente con la apertura de frontones en China, Filipinas e Indonesia.



Manila eta Filipinetako albuma, estatubatuarrek okupatu ondoren argitaratua. 1898 eta 1899ko gerra eszenak jasotzen ditu. J.M. Unsainen bilduma.

Filipinetako independentzia prozesua etenik geratu zen 1898an etorritako estatubatuarren okupazioaz. Estatu Batuen nagusitasuna II. Mundu Gerra amaitu arte mantendu zen uharteetan.

Álbum de Manila y Filipinas editado tras la ocupación estadounidense. Incluye escenas bélicas de 1898 y 1899. Colección J.M. Unsain.

El proceso de independencia de las Filipinas quedó suspendido con la ocupación norteamericana de 1898. El dominio de los EE.UU. en las islas perduró hasta el final de la II Guerra Mundial.



La Carlota Sugar Central. Compañía Ynchausti-ren jabetzako hau izan zen Negros uharteko azukre-findegi modernoetan lehenetakoa.

XX. mendeko lehen hamarkadetan, azukre produkzioa izugari handitu zen Filipinetan. Euskaldunek batez ere Negros uhartean zeuzkaten azukre sail eta zentral ugariak oso irabazi handiak eman zituzten. Intsausti, Luzuriaga, Gurrutxarri, Uriarte, Aldekoa, Ganboa edo Mentxaka izan ziren familia aberats haietako batzuk.

La Carlota Sugar Central. Propiedad de la Compañía Ynchausti, fue una de las primeras refinerías modernas de azúcar de la isla de Negros.

En las primeras décadas del siglo XX la producción de azúcar creció fuertemente en Filipinas. Las numerosas plantaciones y centrales azucareras que los vascos poseían, sobre todo en la isla de Negros, obtuvieron altos beneficios. Los Ynchausti, Luzuriaga, Gurrucharri, Uriarte, Aldecoa, Gamboa o Menchaca fueron algunos de aquellos hacendados.





Ynchausti konpainiaren Manilako egoitza, 1933an. (Intsausti familiaren bildumako argazkia).

Sede de la Compañía Ynchausti en Manila, 1933. (Foto colección familia Ynchausti).



*Bisayas* ontzia, Ynchausti konpainiaren ontzidiko handienetako bat, 1926an. (Intsausti familiaren bildumako argazkia).

El *Bisayas* fue uno de los mayores buques de la flota de la Compañía Ynchausti, 1926. (Foto colección familia Ynchausti).



Ynchausti y Cía.ren itsuta edo sokagintzako lantegia Manilan, 1927an. (Intsausti familiaren bilduma).

Ynchausti lantegiak egiten zituen itsutetarako, abaka edo *Manilako kalamua* erabiltzen zuten, zuntz honek oso ondo eusten dio eta itsasoak eragin urradurari. Diotenez, mundu mailan ospea hartutako Filipinetako lehen industri produktua izan zen.

Bere jarduera ekonomikoaren adar ugarietan oso garapen maila altua erdietsi eta gero, Ynchausti konpainia desegin egin zuten 1933an, fundatzailearen biloba Manuel Intsaustik hori erabaki baitzuen. Enpresa-aktiboetako batzuk bazkide minoritarioa zen Elizalde familiak erosi zituen.

**Fábrica de jarcias de Ynchausti y Cía. en Manila, 1927. (Colección familia Ynchausti).**

Las jarcias que fabricaba la firma Ynchausti se hacían a partir del abacá o *cáñamo de Manila*, fibra muy resistente a la abrasión marina. Según se cuenta fue el primer producto industrial filipino de renombre mundial.

Después de haber alcanzado un alto grado de desarrollo en sus múltiples ramas de actividad económica, la compañía Ynchausti fue disuelta en 1933 por decisión de Manuel de Ynchausti, nieto del fundador. Algunos de sus activos empresariales fueron adquiridos por la familia Elizalde, socio minoritario de la firma.





Paulino Aboitiz eta Emilia Irastortza beren bederatzí seme-alabekin, 1901ean.

Lekeitiokoa jaiotzez, Paulino Aboitiz 1870eko hamarkadan joan zen Filipinetara. Marinel gisa hasi zen lanean Leyten finkatutako euskal armadore batentzat, baina abakaren merkataritzaren inguruan lortuko zuen aberastasuna. Ramon Aboitizek (irudiaren erdian zutik) jarraipena eman zion aitaren enpresari, eta honen jarduera nekazaritza, abelazkuntza eta aseguruaren arloa zabaldu zuen. II. Mundu Gerraren ondotik, Aboitiztarren negozio nagusia itsas garraioa izan zen, nahiz jarduera ekonomikoaren beste eremu batzuetan ere interesatu ziren, hala nola finantzen, energiaren edo ontzigintzaren arloetan. Aboitizarrak, gaur egun ere, enpresa-talde erreferentziakoa dira Filipinetan.

Paulino Aboitiz y Emilia Yrastorza con sus nueve hijos, 1901.

Natural de Lekeitio, Paulino Aboitiz emigró a Filipinas en la década de 1870. Comenzó a trabajar como marinero para un armador vasco establecido en Leyte, pero su fortuna se gestó en torno al comercio del abacá. Ramón Aboitiz (de pie en el centro de la imagen) dio continuidad a la empresa de su padre diversificando su actuación en agricultura, ganadería y seguros. Después de la II Guerra Mundial el negocio principal de los Aboitiz fue el transporte marítimo aunque también se interesaron por otros ámbitos de actividad económica como el financiero, el energético o la construcción naval. Los Aboitiz sigue siendo en la actualidad un grupo empresarial de referencia en Filipinas.



Zóbel Aiala familia, Manila, 1929.  
Georgina Padilla Zóbelen bilduma.

XIX. mendean sortu ziren Aiala, Zóbel eta Roxas familien arteko senidetazueko harremanek segida emankorra izan zuten, enpresa munduan, hurrengo mendean, hain zuzen aseguru, finantza eta higiezinaren arloetan. Hauen ekimenez Makati auzoa sortuko zen Manilan, herrialdeko finantza, enpresa, egoitza eta merkataritzaren gune nagusia alegia, hirurogeiko urteetan eraiki baitzuten. Gaur egun, Ayala Corporation higiezinaren, telekomunikazioen eta finantza zerbitzuen alorreko enpresa talde nagusietako bat da. Ayala taldeak, gainera, kultura bultzatzeko bokazioa sendoa erakutsi du. Esanaren lekuko garbia da Ayala Museum-en eta Filipinas Heritage Library-ren sorrera.

Familia Zóbel de Ayala, Manila, 1929.  
Colección Georgina Padilla Zóbel.

El entramado familiar de los Ayala, Zóbel y Roxas que se origina en el siglo XIX tuvo fructífera continuidad empresarial en la siguiente centuria en el campo de los seguros, las finanzas y los bienes inmuebles. De su iniciativa surgirá en Manila el barrio de Makati, principal centro financiero, empresarial, residencial y comercial del país construido en los años sesenta. En la actualidad la Ayala Corporation es uno de los principales grupos empresariales del sector inmobiliario, las telecomunicaciones y los servicios financieros. El grupo Ayala ha mostrado además una sólida vocación de apoyo a la cultura. La creación del Ayala Museum y la Filipinas Heritage Library son buena muestra de ello.





Misiolari frantziskotarrak Yenanfun (Txina). 1920 ingurua. Arantzazuko Santutegiko Agiritegia.

Ekialde Urruneko koloniak galdu arren, espainiar misiolarien presentzia –euskaldun asko tartean– garrantzitsua izan zen, halaber, XX. mendearen lehen erdialdean zehar.

Irudian, lehen ilaran, ezkerretik eskuinera: aita Francisco Wang, aita Ángel Aguado, monsinore Celestino Ibáñez, aita Melquíades Lopez de Aberasturi eta aita Pablo Alberdi; 2. ilara: anaia Ezequiel Gasulla, aita Juan José She (martiria), aita Martín Astaburuaga, aita Isidoro Saura, aita Anjel Arrieta, aita Francisco Fradua, aita José Fang, aita Bizente Labaka; 3. ilara: apaizgaiak eta zerbitzariak.

**Misioneros franciscanos en Yenanfu (China). Hacia 1920. Archivo Santuario de Aránzazu.**

A pesar de la pérdida de las colonias de Extremo Oriente la presencia de misioneros españoles –muchos vascos entre ellos– siguió siendo importante durante la primera mitad del siglo XX.

En la imagen, 1ª fila, de izda. a dcha.: P. Francisco Wang, P. Ángel Aguado, Mons. Celestino Ibáñez, P. Melquíades López de Aberasturi y P. Pablo Alberdi; 2ª fila: Hno. Ezequiel Gasulla, P. Juan José She (mártir), P. Martín Astaburuaga, P. Isidoro Saura, P. Angel Arrieta, P. Francisco Fradua, P. José Fang, P. Vicente Labaca; 3ª fila: seminaristas y sirvientes.



Berrizko misiolari mesedetakoak Saipanen (Marianak), 1930 inguruan. Berrizko Moja Mesedetakoan Artxiboa.

Berrizko Misiolari Mesedetakoan erakunde erlijiosoa 1930ean sortu zuen Margarita María Lopez de Maturanak (Bilbo, 1884-Donostia, 1934). Honen hasierako misio lana Txina, Saipan (Marianak), Panape (Karolinak), eta Tokion izan zen.

**Misioneras Mercedarias de Berriz en Saipán (Islas Marianas), hacia 1930. Archivo Monjas Mercedarias de Berriz.**

El instituto religioso Mercedarias Misioneras de Berriz fue creado en 1930 por Margarita María López de Maturana (Bilbao, 1884-San Sebastián, 1934). La actividad misionera inicial de esta institución se efectuó en China, Saipán (Islas Marianas), Panapé (Islas Carolinas) y Tokio.



Pedro Arrupe jesuita, ekialdeko jarreran gogoetan. Erroma, 1966. Loiolako Santutegiko Agiritegiko argazkia.

Hiroshimako aldirietan nobizioen maisu zela, Pedro Arrupe (Bilbo, 1907-Erroma, 1991) bomba atomikoaren leherketaren lekukoa izan zen. Jesusen Lagundiko Jeneral hautatu zutelarik 1965ean, asiar herrialdeekiko interes biziari eta errespetuari eutsi zion.

**El jesuita Pedro Arrupe meditando en posición oriental. Roma, 1966. Foto: Archivo Santuario de Loyola.**

Siendo maestro de novicios en las afueras de Hiroshima, Pedro Arrupe (Bilbao, 1907-Roma, 1991) fue testigo de la explosión de la bomba atómica. Tras ser elegido General de la Compañía de Jesús en 1965 siguió manteniendo un profundo interés y respeto por los países asiáticos.

*Domunden txartela, Donostian inprimatua. 1950 ingurua. Bilduma partikularra.*

Espainian *Domund* esaten zaio mundu osoan ospatzen den Misioen Mundu Egunari. Honen helburua herrialde garatueta dirua bildu eta misioetara bidaltzea da. Joan zen mendeko 20ko urteetan Pio X.a aita santuak abian jarritako ekimen bat da.

*Domund* akronimoa 1943an sortu zuen *Obras Misionales Pontificias de España* delakoak; honen lehen zuzendaria Anjel Sagarmínaga bizkaitarra (Iurre, 1890-1968) izan zen, misio jardueraren sustatzaile handia bera.

**Tarjeta del Domund impresa en San Sebastián. Hacia 1950. Colección particular.**

En España se conoce como Domund a la Jornada Mundial de las Misiones que se celebra en todo el mundo con el objetivo recaudar en los países desarrollados dinero destinado a las obras misionales. Fue ésta una iniciativa puesta en marcha por el papa Pío X en los años 20 del pasado siglo. El acrónimo Domund fue creado en 1943 por Obras Misionales Pontificias de España, cuyo primer director, fue el vizcaíno Ángel Sagarmínaga (Yurre, 1890-1968), gran promotor de la actividad misionera.







## II. MUNDU GERRA PAZIFIKOAN

Ozeano Barea gerra eszenatoki izugarria izan zen II. Mundu Gerran zehar. Japonen aurkako gerra ahalegin izugarri hartan, euskal ekarpena apala izan zen, baina aipatzeko modukoa inolaz ere.

Filipinak okupatu ondoren, euskaldun askok partaidetza aktiboa izan zuten erresistentzian, espioi, lotura edo bitarteko eta gerrillari gisa aritu baitziren.

Ozeano Bareko kanpainan, Estatu Batuen Ontzidiko tripulazioetan edo Itsas Infanteriako unitateetan zein Lehorreko Armadakoetan sarturik, euskal jatorriko soldaduek operazio askotan hartu zuten parte. Horietako asko emigranteak edo Estatu Batuetara artzain aritzeko heldutako emigranteen semeak ziren.

*Irudia:* Tanke estatubatuar bat Santiagoko gotorlekuan sartzen, Manilan, 1945ean. Wisconsin Unibertsitatearen Artxiboa.

## LA II GUERRA MUNDIAL EN EL PACÍFICO

El Pacífico se convirtió en un vasto escenario de operaciones bélicas durante la II Guerra Mundial. La contribución vasca al gigantesco esfuerzo de guerra contra Japón fue modesta, pero digna de ser reseñada.

Tras la ocupación de Filipinas por los japoneses, colaboraron activamente en la resistencia un buen número de vascos, actuando como espías, enlaces y guerrilleros.

En la campaña del Pacífico, formando parte de las tripulaciones de la Flota de los EE.UU. o integrados en unidades de Infantería de Marina o del Ejército de Tierra, combatientes originarios del País Vasco participaron en numerosas operaciones. Muchos de ellos eran emigrantes o hijos de emigrantes que habían llegado a Estados Unidos como pastores.

*Imagen:* Un tanque norteamericano entrando en el fuerte de Santiago, Manila, 1945. Archivo Universidad de Wisconsin.

Manila japoniarren okupaziotik askatu ondoren, 1945ean. Wisconsin Unibertsitatearen Artxiboa.

Japoniarrek Filipinak okupatu zituzten 1942 eta 1945 bitartean. Honek ondorio lazgarriak ekarri zituen, suntsipen itzela eta biktima kopuru handia besteak beste. Eta Manila askatzeko borrokek hiriaren eta honen ondare kolonialaren zati handi bat txikitu zuten. Soldadu japoniarrek bihozgabe jokatu zuten biztanleria zibilarekin. Orduko hartan hil zirenen artean, euskal pilotari eta misiolari zenbait daude.

Manila liberada de la ocupación japonesa, 1945. Archivo Universidad de Wisconsin.

La ocupación japonesa de Filipinas entre 1942 y 1945 tuvo consecuencias traumáticas por la devastación y gran número de víctimas que trajo consigo. Los combates por la liberación de Manila supusieron la destrucción de gran parte de la ciudad y su patrimonio colonial. Las tropas japonesas se ensañaron con la población civil.

Entre los que perdieron la vida en aquellas circunstancias se cuentan varios pelotaris y misioneros vascos.





Guadalcanalen eta ondoko beste uharte batzuetan izan zen Pazifikoko gerrako borrokarik latzenetako bat. Ernesto Karrantza tenienteak, guraso bizkaitarrak zituen baina Mexikon jaioa bera, 90 andaluziar eta 110 euskaldunetz osatutako konpainia baten agintetik hartu zuen parte borrokan.

*Irudia:* Ipar Amerikako armadaren soldaduak Guadalcanalen, 1942.

En Guadalcanal y otras islas adyacentes se libró una de las más duras batallas de la guerra del Pacífico. El teniente Ernesto Carranza, nacido en México de padres vizcaínos, participó en ella al mando de una compañía compuesta por 90 andaluces y 110 vascos.

*Imagen:* Soldados del ejército norteamericano en Guadalcanal, 1942.

Roman Arrutza, Iloiloko (Filipinak) onibar-jabe baten semea, armada iparramerikarrean sartu zen Pazifikoko gerra piztu baino lehen. Manuel L. Quezón filipinar presidenteari laguntzeko taldean aritu zen, Manilako badiako Corregidor uhartearen setioan.

Román Arrutza, hijo de un hacendero de Iloilo (Filipinas), se alistó en el ejército norteamericano antes de que estallara la guerra del Pacífico. Formó parte del grupo de apoyo del presidente filipino Manuel L. Quezón en el asedio de la isla de Corregidor (bahía de Manila).







Higinio Uriarte, filipinar gerrillaren kapitaina.

Higinio Uriarte, Negros uharteko hainbat azukre eta arroz etxalderen jabetza zuen familia bateko kidea bera, japoniarren kontrako gerrillan nabarmendu zen, filipinar erresistentziaren eta MacArthurren Kuartel Nagusiaren arteko loturaren elementu garrantzitsu gisa jardun baitzuen.

Higinio de Uriarte, capitán de la guerrilla filipina.

Higinio de Uriarte, miembro de una familia propietaria de varias haciendas de azúcar y arroz en la isla de Negros, destacó en la guerrilla contra los japoneses actuando como eslabón de conexión entre la resistencia filipina y el Cuartel General de MacArthur.



Higinio Uriarte, *A basque among the guerrillas of Negros*, Bacolod, 1963. José M<sup>a</sup> Unsainen bilduma.

Liburu honen bidez Higinio Uriartek euskaldunek II. Mundu Gerran zehar filipinar gerrillari eskaini laguntzaren lekukotasuna laga zuen.

Higinio de Uriarte, *A basque among the guerrillas of Negros*, Bacolod, 1963. Colección José M<sup>a</sup> Unsain.

Con este libro, Higinio de Uriarte dejó testimonio de la colaboración vasca con la guerrilla filipina durante la II Guerra Mundial.



Manuel Galdós Falmouthen, Errepublikaren *José Luis Díez* destruktoretik lehorreratu ondoren. 1937. Juan Pardoren artxiboa.

Espainiako Gerra Zibilean zehar, Manuel Galdós (Donostia, 1909-1974) Euzkadiko Gudontzidian nabarmendu zen, komandante gisa. II. Mundu Gerran aliatuekin batera aritu zen Pazifikokoan, Panamako bandera zeramaten ontzietan, gerrako materialaren garraioan.


Manuel Galdós en Falmouth después de desembarcar del destructor republicano *José Luis Díez*. 1937. Archivo Juan Pardo.

Durante la Guerra Civil española, Manuel Galdós (San Sebastián, 1909-1974) destacó como comandante de la Marina de Guerra Auxiliar de Euzkadi. En la II Guerra Mundial colaboró con los aliados en el Pacífico transportando material de guerra en buques de bandera panameña.



Manuel Galdos, *Heron* motorentzi panamarreko kapitaina zela, aliatuentzako hegazkinak garraiatzen. Juan Pardoren artxiboa.

Manuel Galdós, capitán de la motonave panameña *Heron*, transportando aviones para los aliados. Archivo Juan Pardo.



Wallem & Co. ontzi-enpresak Hong Kongetik bidalitako gutuna, Manuel Galdos kapitainak II. Mundu Gerran zehar eskaini zituen zerbitzuen berri ematen duena. Untzi Museoaren bilduma.

Carta expedida en Hong Kong por la naviera Wallem & Co. que da cuenta de los servicios prestados por el capitán Manuel Galdós durante la II Guerra Mundial. Colección Untzi Museoa-Museo Naval.



Manuel Galdos Indonesian, 1956an. Untzi Museoaren argazkia. Mundu gerra amaiturik Galdosek Ekialde Urruneko nabigazioan jarraitu zuen, eta behin baino gehiagotan eragin zitoten Indotxina, Indonesia edota Formosako gatazkek.

Manuel Galdós en Indonesia, 1956. Foto: Untzi Museoa-Museo Naval.

Acabada la guerra mundial Galdós siguió navegando en aguas de Extremo Oriente viéndose afectado, en más de una ocasión, por los conflictos de Indochina, Indonesia o Formosa.



DO YOU KNOW THAT \_\_\_\_\_ No. 27

**LOWEST DIVIDENDS PAID DURING JAN. TO JUNE 1934**

**WIN**  
 Nº1 HERNANDO #4.-  
 FEB. 17<sup>th</sup> 1934

**PLACE**  
 Nº1 HERNANDO #2<sup>10</sup>  
 MAR. 18<sup>th</sup> 1934

**DOUBLE EVENT**  
 Nº2 HERNANDO #18.  
 & Nº1 HERNANDO #18.  
 FEB 24<sup>th</sup> 1934

**FORECAST**  
 Nº4 RAMONCHO  
 & Nº2 REZOLA  
 \$ 51<sup>60</sup>  
 JUNE 14<sup>th</sup> 1934

元五預 經 二 巧 號四六 元 多 號 關 二 雙 十 二 角 三 號 八 三 四 多 號 七 二 如 最 月 月 四 一  
 六 十 測 查 二 特 且 月 十 后 日 多 號 四 月 元 位 后 日 月 元 到 后 日 月 下 低 獎 年 九  
 角 一 券 控 號 號 四 十 八 關 一 后 福 日 二 一 號 一 十 福 關 一 十 ； 聯 金 六 一 三

68

### EUSKAL PILOTA EKIALDE URRUNEAN

Filipinetan, euskal emigranteen artean, XIX. mendearen amaieraz geroztik behintzat jokatzeko zuten pilotan. Partida bat jokatzeko nahikoak ziren abaka edo azukre biltegi bateko paretak.

Manilako *Casino Español*-eko instalazioen zati gisa, 1917an pilotaleku bat eraiki zuten; denborak aurrera egin ahala, neurriz irabazten joango zen. 1940an zesta-puntako pilotaleku bikaina zabaldu zuten Manilan, eta 60 eta 70eko urteetan zehar pilotarako zaletasuna nabarmen hazi zen. 1970eko hamarkadan, zaleentzako 30 pilotaleku baino gehiago zeuden uhartedian. Corazón Aquino 1986an presidentziara iritsi zenean, baina, Manila eta Cebuko pilotaleku profesionalak itxi egin zituzten. 90eko urteetan zesta-puntako beste pilotaleku bat eraiki zuten Manilan, baina honek ez zuen urte askorik iraun.

1930eko hamarkadaren hasieran, bikain egokitutako bi pilotaleku ireki zituzten Txinan, Shanghaiko Auditorium bata eta Tianjineko (lehengo Tientsin) Forum bestea. Pilotaren benetako jauregi hauek oso giro bizia izan zuten, harik eta gerra gorabehererek, 1945 inguruan, biak ixtea eragin zuten arte.

Jakarta eta Makaon ere zesta-puntako pilotaleku handiak egon ziren, 1970 eta 1974an irekiak hurrenez hurren. Gaur egun ez dago horietako bat bera ere.

*Irudia: Hai-Alai Annual, 1934-1935* (Shanghaiko pilotalekuaren urtekaria) argitalpeneko ilustrazioa.

### LA PELOTA VASCA EN EXTREMO ORIENTE

En Filipinas el deporte de la pelota se practicaba en círculos de emigrantes vascos al menos desde finales del siglo XIX. Para jugar un partido bastaban los muros de un almacén de abacá o azúcar.

Como parte integrante de las instalaciones del Casino Español de Manila, se construyó en 1917 un frontón que con el tiempo crecería en dimensiones. En 1940 se abrió en Manila un magnífico frontón de cesta-punta si bien fue en los años 60 y 70 cuando la afición a la pelota se incrementó considerablemente. En la década de 1970 se contabilizaban más de 30 frontones para aficionados en el archipiélago. Con la llegada de Corazón Aquino a la presidencia en 1986, los frontones profesionales de Manila y Cebú fueron clausurados. En los años 90 se construyó en Manila un nuevo frontón de cesta-punta, pero no permaneció muchos años en activo.

A comienzos de la década de 1930 se abrieron en China dos frontones excelentemente acondicionados, el Auditorium de Shanghai y el Forum de Tianjin (antes Tientsin). Auténticos palacios de la pelota, estos frontones tuvieron una intensa vida hasta que los acontecimientos bélicos provocaron su cierre hacia 1945.

En Yakarta y Macao existieron también grandes frontones de cesta-punta que se abrieron al público en 1970 y 1974, respectivamente. Ninguno de los dos existe en la actualidad.

*Imagen: Ilustración de Hai-Alai Annual, 1934-1935* (anuario del frontón de Shanghai).

30eko urteetan, Txinan *Jai-Alai* pilotalekuak zabaldu zituztenean, zesta-puntako pilotaleku profesionalak zeuden Milan, Erroma, Florentzia, Turin, Brusela, Tanger, Fez, Marrakech, Rabat, Kairo, Alexandria, Habana, Mexiko D.F., Tampico, Buenos Aires, Bogotá, Río de Janeiro, Sao Paulo, Miami, Chicago, New Orleans, Madril, Bartzelona, Sevilla, Valentzia, Bilbo eta Donostian, besteak beste.

*Irudia: Hai-Alai Annual, 1934-1935* (Shanghaiko pilotalekuaren urtekaria) argitalpeneko ilustrazioa. Pilotariek itsasontziz egiten zuten Espainia-Txina bidaia ikusten da.

En los años 30, cuando se abren las canchas de *Jai-Alai* en China, existían frontones profesionales de cesta-punta en Milán, Roma, Florencia, Turin, Bruselas, Tánger, Fez, Marrakech, Rabat, El Cairo, Alejandría, La Habana, México D.F., Tampico, Buenos Aires, Bogotá, Río de Janeiro, Sao Paulo, Miami, Chicago, Nueva Orleans, Madrid, Barcelona, Sevilla, Valencia, Bilbao, San Sebastián, etc.

*Imagen: Ilustración de Hai-Alai Annual, 1934-1935* (anuario del frontón de Shanghai). Se observa en ella la ruta España-China que hacían en barco los pelotaris. Colección Jose María Urrutia.





Shanghaiko Auditorium-eko pilotalekuaren fatxada. *Hai-Alai Annual, 1934-1935* (Shanghaiko pilotalekuaren urtekaria) argitalpenaren azala. Jose M<sup>a</sup> Urrutiaren bilduma.

Shanghaiko pilotalekua, instalazio bikainez hornitua, hiriko frantziar eremuan zegoen; horixe zen hiria zatitzen zuten nazioarteko *emakidetako* bat, Boxerren Gerraren garaitik zetoren akordio baten arabera.

Fachada del frontón Auditorium de Shanghai. Portada de *Hai-Alai Annual, 1934-1935* (anuario del frontón de Shanghai). Colección José M<sup>a</sup> Urrutia.

El frontón de Shanghai, dotado de magníficas instalaciones, se ubicaba en el sector francés de la ciudad, una de las *concesiones* internacionales en la que estaba dividida la ciudad según un acuerdo que se remontaba a la Guerra de los Boxer.



Shanghaiko pilotalekuko jokalariai, enpresariak eta zuzendaritzakoak 1934-1935 denboraldian. *Hai-Alai Annual, 1934-1935*. Jose M<sup>a</sup> Urrutiaren bilduma.

Shanghaiko pilotalekua “Mr. Broker” esaten zioten belgikar aberats baten ekimenari esker eraiki zuten (“Mr. Broker” galgo- eta zaldi-lasterketen promotorea ere bazen); geroago Teodoro Jauregi pilotari ohiak eta Haig Assadurian armeniar enpresariak lagunduko zioten. Shanghai nabarmendutako pilotari handien artean Frantzisko Berrondo eta Jose Luis Saltsamendi zeuden.

Jugadores, empresarios y directivos del frontón de Shanghai en la temporada 1934-1935. Del *Hai-Alai Annual, 1934-1935*. Colección José M<sup>a</sup> Urrutia.

El frontón de Shanghai, se construyó por iniciativa de un millonario belga conocido como “Mr. Broker” (promotor también de carreras de galgos y caballos), secundado luego por el ex pelotari Teodoro Jáuregui y el empresario armenio Haig Assadurian. Entre los grandes pelotarís que destacaron en Shanghai estaban Francisco Berrondo y José Luis Salsamendi.





Shanghaiko pilotalekuko harmailak. Jose M<sup>a</sup> Urrutiaren bilduma.

Shanghaiko ikusle txinatarrak, asko izaten ziren, hiriko sektore aberatsenekoak ziren.

Graderío del frontón de Shanghai. Colección José M<sup>a</sup> Urrutia.

El abundante público chino que acudía al frontón de Shanghai pertenecía a los sectores adinerados de la ciudad.



Shanghaiko pilotalekuko *balla*. Jose M<sup>a</sup> Urrutiaren bilduma.

Vestíbulo del frontón de Shanghai. Colección José M<sup>a</sup> Urrutia.



Tientsingo (egungo Tianjin) zesta-puntako pilotalekuko pilotari taldea, 1937an. Konposizioaren goialdean, I. Ortiz intendentea. Beheko angeluetan bi pilotariren semeak. Regino Otegi "Txitibar" en bilduma (argazki-erreprodukzioa).

Cuadro de pelotaris del frontón de cesta-punta de Tientsin (actualmente Tianjin), 1937. En lo alto de la composición el intendente I. Ortiz. En los ángulos inferiores los hijos de dos pelotaris. Colección Regino Otegui "Txitibar" (reproducción fotográfica).





Tientsingo Forum pilotalekua (Pekindik hurbileko hiri hau, gaur egun, Tianjin izenaz da ezaguna). S.A. I. Forum Tientsin albumekoa, 1934. Regino Otegi "Txitibar" en bilduma.

Boneti eta Kessler arkitektoek egindako pilotaleku hau 1934an inauguratu zuten. Italiarren *emakidan* zegoen, hau da, hiri hau banatuta zegoen eremuetako batean. V. Fumagalli enpresari italiarrak Shanghaiko pilotalekuko promotoreen laguntza izan zuen, berea abian eta funtzionamenduan jartzeko. Txinako Iraultzaren ondoren, barnealdea eraldatu egin zuten, antzerkita begira; orduan, Langileen Kultura Jauregia izena hartu zuen. Eraikina zutik dago oraindik ere, baina diskoteka bihurturik.

Frontón Forum de Tientsin (ciudad próxima a Pekín conocida actualmente como Tianjin). Del álbum S.A.I. Forum Tientsin, 1934. Colección Regino Otegui "Txitibar".

Este frontón, obra de los arquitectos Boneti y Kessler fue inaugurado en 1934. Se situaba en la *concesión* italiana, una de las zonas de dominio internacional en que estuvo dividida esta ciudad. El empresario italiano V. Fumagalli contó con el apoyo de los promotores del frontón de Shanghai para su puesta de marcha y funcionamiento. Después de la Revolución China su interior fue transformado para funciones de teatro pasando a denominarse Palacio de la Cultura de los Trabajadores. El edificio se conserva en la actualidad convertido en discoteca.



Tientsingo (Txina) zesta-puntako pilotalekuko pilotariak, zuzendaritza eta langileak. Beheko argazkiak 1936ko iraileko data du. Jostetxo Iraundegiren bilduma.

Tientsingo Forum pilotalekuak langile kopuru handia zeukan: aretozainak, pilotagileak, saskigileak, bulegariak, sukaldariak, musikariak, zerbitzariak, pospolo-saltzaileak, *ice-cream boy*-ak, etab.

Pelotaris, dirección y personal del frontón de cesta-punta de Tientsin (China). La fotografía de abajo está fechada en septiembre de 1936. Colección Jostetxo Iraundegi.

El frontón Forum de Tientsin contaba con gran número de empleados: acomodadores, peloteros, cesteros, oficinistas, cocineros, músicos, camareros, cerilleras, *ice-cream boys*, etc.





Tientsingo (Txina) Forum pilotalekuko pilotariak eta langileak, 1936. Aurreko orrialdeko argazkiaren xehetasuna (behean).

Pelotaris y empleados del frontón Forum de Tientsin (China), 1936. Detalle la fotografía de la página anterior (abajo).



Tientsingo pilotalekuko pilotariak eta zuzendaritzakoak, bi emakumezko errusiar erbesteraturekin. Regino Otegi "Txitibar" en bilduma.

Pelotaris y directivos del frontón de Tientsin en compañía de dos exiliadas rusas. Colección Regino Otegui "Txitibar".





Manilako Jai-Alai. Walton Beckett arkitekto iparramerikarrak diseinatu hau 1940an inauguratu zuten. Garai hartan ondoen egokitua omen zen; igogailuak zeuzkan, eta hozte sistema, hiru jatetxe, dantza aretoa eta hainbat taberna. Hasieran ikusleak elitekoak eta aberatsak ziren, baina denbora igaro ahala herritar xeheak ere hasi ziren joaten hartara. 1986an itxi zuten, Cory Aquino boterera heldu zenean, eta 1998an denbora labur batez atzera zabaldu bazuten ere, 2000ko urtean eraitsi zuten.

Jai-Alai de Manila. Diseñado por el arquitecto norteamericano Walton Beckett se inauguró en 1940. Pasaba por ser el mejor acondicionado de la época; disponía de ascensores, sistema de refrigeración, tres restaurantes, salón de baile y varios bares. En los inicios contaba con un público elitista y adinerado, pero con el paso del tiempo terminó por popularizarse. Se cerró en 1986, tras la llegada de Cory Aquino al poder y, tras una breve reapertura en 1998, fue derribado el año 2000.



Pilotariak Manilan, 1948an. Zutik, ezkerretik eskuinera: Bilbao, Elías Baskaran, Luis Rekalde, Lorentxo Arriola (atzean), Jose Maria Arantzibia, Marcos Gisasola, J. Larrucea, Perea, Ignazio Rekalde, Olasolo, Argarate (intendentea), Madrigal (enpresaria), Pablo, Jose Luis Mandiola, Aguirre, Luis Urreta, J. Luis Muñoz, G. Andonaegi, J. Taboada, Larrinaga (Txato Bolu) eta G. Cazalis. Makurturik: Lizartza, Saturnino Allende, Gómez Rocha, G. Baskaran, Ugalde, J. Arratibel, Imanol Ibarluzea, Garmendia eta Rufino Laca. Jose Agustin Larrañagaren bildumako argazkia.

Jose Maria Arantzibia (zutik, 5.a ezkerretik eskuinera), Txina eta Manilan profesional gisa aritu eta gero, oso bide luzea egin zuen pilotako enpresari moduan. Manilan *Club de la Pelota Vasca* fundatu zuen, eta pilota sustatu zuen filipinarren artean. Zesta-puntaren bultzatzaile handia izan zen Ekialde Urrunean, eta neurri handi batean berak garatu ekimenari esker iritsiko zen Cebu, Jakarta eta Makaoko pilotalekuak zabaltzea.

Pelotaris en Manila, 1948. De pie, de izda. a dcha.: Bilbao, Elías Bascarán, Luis Recalde, Lorenzo Arriola (detrás), José María Arancibia, Marcos Guisasola, J. Larrucea, Perea, Ignacio Recalde, Olásolo, Argarate (intendente), Madrigal (empresario), Pablo, José Luis Mandiola, Aguirre, Luis Urreta, J. Luis Muñoz, G. Andonaegui, J. Taboada, Larrinaga (Chato Bolu) y G. Cazalis. Agachados: Lizartza, Saturnino Allende, Gómez Rocha, G. Bascarán, Ugalde, J. Arratibel, Imanol Ibarluzea, Garmendia y Rufino Laca. Foto colección José Agustín Larrañaga.

José María Arancibia (de pie, 5º de izda. a dcha.) después de jugar como profesional en China y Manila desarrolló una larga trayectoria como empresario de la pelota. En Manila fundó el Club de la Pelota Vasca promoviendo el juego de la pelota entre los filipinos. Fue un gran impulsor de la cesta-punta en Extremo Oriente ya que a su iniciativa se debió, en buena medida, la apertura de los frontones de Cebú, Yakarta y Macao.





Jai-Alai Harrison Plaza, Manila. 1994an zabaldu zuten. Azken partida profesionala 2001ean jokatu zuten bertan. J. M. Unsainen argazkia, 2009.

Jai-Alai Harrison Plaza, Manila. Se abrió al público en 1994. El último partido profesional se jugó en su cancha en 2001. Foto: J. M. Unsain, 2009.



Cebuko Jai-Alai. 1967an inauguratu eta 1986an itxi zuten. Gaur egun erabat utzita badago ere, noizean behin erabiltzen dute filipinar zaleek. J. M. Unsainen argazkia, 2009.

Jai-Alai de Cebú. Inaugurado en 1967 se cerró en 1986. Pese a su estado de abandono es utilizado, esporádicamente, por los aficionados filipinos. Foto: J. M. Unsain, 2009.



Filipinar zaleak Manilako *Casino Español*-en pilotalekuan. 1917an fundatutako zentro hau funtsezkoa izan zen euskal pilotak Filipinetan gora egin zezan. Manilako Instituto Cervantes-en argazkia, 2009.

Aficionados filipinos en el frontón del Casino Español de Manila. Este centro, fundado en 1917, fue un lugar clave para el desarrollo de la pelota vasca en Filipinas. Foto: Instituto Cervantes de Manila, 2009.



Jakartako pilotalekuaren informazio liburuxka, 1971n. Jose M<sup>a</sup> Urrutiaren bilduma.

Folleto informativo del frontón de Yakarta, 1971. Colección José M<sup>a</sup> Urrutia.



Jakartako pilotalekua (Indonesia). 1970ean inauguratu zuten, eta 5.000 ikusle har zitzakeen. Jose M<sup>a</sup> Urrutiaren bilduma.

Frontón de Yakarta (Indonesia). Inaugurado en 1970, contaba con capacidad para 5.000 espectadores. Colección José M<sup>a</sup> Urrutia.



Euskal zesta-puntistak, filipinarrak eta indonesiarrak Jakartako pilotalekuan, 1977an. Jose M<sup>a</sup> Urrutiaren bilduma.

Jakartako pilotalekua Jose M<sup>a</sup> Arantzubiaren (pilotari ohia eta promotorea), Antonio Riveroren (aita espainiarra zuen filipinarra) eta Stanley Ho-ren (txinatar enpresari boteretsua) enpresa-ekimenetik sortu zen. Arantzubiak, gainera, pilota eskola bat jarri zuen martxan Jakartan, eta horrexetatik osatuko zuten jokalaritza multzo profesionala. Pilotalekua 1981ean itxi zuten, Indonesian apustu joko guztiak galarazi zituztenean.

*Irudia:* Goitik behera eta ezkerretik eskuinera: Aldama, Ciloniz, Reyes, Jose Maria Bustindui (intendente), Langa, Nito, Elorza, Cristobal, Olaetxea, Budy, Tang.

**Puntistas vascos, filipinos e indonesios del frontón de Yakarta, 1977. Colección José M<sup>a</sup> Urrutia.**

El frontón de Yakarta surgió de la iniciativa empresarial de José M<sup>a</sup> Arancibia (ex pelotari y promotor), Antonio Rivero (filipino de padre español) y Stanley Ho (poderoso empresario chino). Arancibia puso además en marcha una escuela de pelota en Yakarta de la que se nutriría parte del cuadro profesional. El frontón cerró sus puertas en 1981, tras la prohibición de todos los juegos de apuestas en Indonesia.

*Imagen:* De arriba a abajo y de izda. a dcha.: Aldama, Ciloniz, Reyes, José M<sup>a</sup> Bustinduy (intendente), Langa, Nito, Elorza, Cristóbal, Olaetxea, Budy, Tang.





Jakarta 70eko urteetan. Jose Maria Urrutia  
puntistaren album pertsonalekoa.


Yakarta años 70. Del álbum personal del  
puntista José María Urrutia.





Makaoko pilotalekua. 1974an inauguratu zuten, Jose M<sup>a</sup> Arantzibia eta Stanley Ho zirela bazkide fundatzaileen artean. Eraikinak zutik segitzen du egun, kasino bihurturik bada ere.

Frontón de Macao. Se inauguró en 1974, con José M<sup>a</sup> Arancibia y Stanley Ho entre los socios fundadores. El edificio pervive en la actualidad transformado en casino. Colección Jesús Oyarzábal.



Makaoko pilotalekua. Kantxako 5.500 eserleku zeuzkan, eta hauen gain beste hainbat ere bai. Gainera, kafetegia, jatetxeak eta hotela zeuzkan, besteak beste. Jose M<sup>a</sup> Urrutiaren bilduma.

Frontón de Macao. Contaba con 5.500 butacas de cancha más otras localidades e incluía servicios de cafetería, restaurantes, hotel, etc. Colección José M<sup>a</sup> Urrutia.



Makaoko Jai Alai Palace-ko puntista taldeko batzuk pilotalekuaren gerente txinatarrekin, 1974an. Jesus Oartzabalen argazkia.

Makaoko pilotalekuko pilotariak Euskal Herritik joanak ziren gehienak, baina denbora igaro ahala txinatar pilotariak sartzen joan ziren (1980an, 35 jokalarietatik sei Makaokoak ziren). Pilotaleku honetako ikusleetako asko eta asko Hong Kongetik heltzen ziren, ordubetara dago eta feriyz.

Parte del cuadro de puntistas del Jai Alai Palace de Macao con los gerentes chinos del frontón, 1974. Foto: Jesús Oyarzábal.

Los pelotaris del frontón de Macao provenían en su mayor parte del País Vasco, pero con el paso de tiempo fueron incorporándose pelotaris chinos (en 1980, de 35 jugadores, seis eran de Macao). Gran parte del público de este frontón procedía de Hong Kong, a una hora de viaje en *ferry*.




## PAZIFIKOARI ETA EKIALDE URRUNARI BURUZKO LITERATURA

Ikuspegi historikotik, euskal egileek Pazifikoari eta Ekialdeko Asiari buruz laga diguten idazki kopurua oso aipatzekoa da, kontuan hartuz gero, behintzat, eszenatoki geografiko horretan mugitu ziren marinel, esploratzaile, konkistatzaile eta misiolarien txostenak, kronikak eta egunkariak. Lehen zenbaketa batean, XVI. mendea bakarrik hartuz aintzat, oso lekukotasun baliotsuak ditugu Elkano, Urdaneta, Lopez de Legazpi, Martín Rada, Paskoal Andagoia, Ortiz de Retes, Frantzisko Javier, Martín Ignazio Loiola, Domingo Salazar edo Joan Areitzagak idatzitakoak, dokumentu gisa balio handiagoa dutenak berak literaturaren ikuspegitik baino. Eta inguru haietan sortutako Sebastián Vizcaíno, Rodrigo Aganduru edo Antonio de Morgaren idazkiak bazterteke, argien mendean sartuko gara hainbat marinel ilustratuk egin ekarpenez; horien artean izan genituen Domingo Bonetxea, Jose Andía, Jose Moraleda, Bruno Etxeta, Ignazio Maria Alaba eta Joan Antonio Ibargoitia, baina toki berezia laga behar diogu Filipinetako Konpainiaren agente azkar Manuel Agoteri berari ere. XIX. mendean jada Serafin Olabe, Eduardo Iriondo, Adolfo Mentaberri edota Julian Salazar ditugu; hauen obra inprimatuak beti-beti esperientzia pertsonalera jotzen du. Literatur fikziorako, berriz, XX. mendearen lehen hamarkadetan sortu ziren Pio Barojaren eleberririk iritsi arte itxaron beharko dugu: *Las inquietudes de Shanti Andía* (1911), *Yan-Si-Pao o la svástica de oro* (1928), *Los pilotos de altura* (1929) eta *La estrella del capitán Chimista* (1930) izan ziren.

## LITERATURA SOBRE EL PACÍFICO Y EXTREMO ORIENTE

En perspectiva histórica el número de escritos de autoría vasca y navarra relacionados con el Pacífico y Extremo Oriente resulta más que considerable si se toman en cuenta los informes, crónicas y diarios de los marinos, exploradores, conquistadores y misioneros que se movieron en ese escenario geográfico. En un primer recuento, referido exclusivamente al siglo XVI, aparecen los valiosos testimonios –de mayor valor documental que literario, sin duda– redactados por Elcano, Urdaneta, López de Legazpi, Martín de Rada, Pascual de Andagoia, Ortiz de Retes, Francisco Javier, Martín Ignacio de Loyola, Domingo de Salazar o Juan de Areizaga. Sin ignorar los escritos de oriundos como Sebastián Vizcaíno, Rodrigo Aganduru o Antonio de Morga, entramos en el Siglo de las Luces con las aportaciones de marinos ilustrados como Domingo de Bonechea, José de Andía, José de Moraleda, Bruno de Hezeta, Ignacio María de Álava y Juan Antonio Ibargoitia con espacio singular para Manuel de Agote, el perspicaz agente de la Compañía de Filipinas. Ya en el siglo XIX se encuentran Serafín de Olave, Eduardo Iriondo, Adolfo Mentaberri o Julián de Salazar, con obra impresa que remite siempre a la experiencia personal. Para la ficción literaria hay que esperar a las novelas de Pío Baroja gestadas en las primeras décadas siglo XX: *Las inquietudes de Shanti Andía* (1911), *Yan-Si-Pao o la svástica de oro* (1928), *Los pilotos de altura* (1929) y *La estrella del capitán Chimista* (1930).



Pío Barojak idatzi itsas giroko eleberrietan, Ekialde Urruna eta ozeano Barea euskal marinelen abenturen eszenatoki ageri zaizkigu. Coolien trafikoa edo Txinako itsasoko itsaslapurren kontrako borroka dira hark utzitako kontakizunetan ageri diren gaietako batzuk. Eta famili oroitzenak eta jakintza historikoa dira, neurri handi batean, Pío Barojaren kontakizunen elikagai.

*Irudiak:* *Las inquietudes de Shanti Andía* (1972, 1920ko edizioaren faksimilea) eta *La estrella del capitán Chimista* (lehen argitalpena, 1930) lan azalak.

En la serie de novelas marineras de Pío Baroja, el Extremo Oriente y el océano Pacífico se hacen presentes como escenario de las aventuras de los marinos vascos. El tráfico de coolies o la lucha contra los piratas del mar de China son algunos de los temas que aparecen en sus relatos. La memoria familiar y el conocimiento histórico nutren, en buena medida, los relatos de Pío Baroja

